



Haritz SAGASETA URROZ | Donamariako musikaria eta kantaria

## «NIRE AMETSA KANTARI PROFESIONALA IZATEA DA»

Kantu ikasketak egiten ari da Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan. Gitarra ikasten ere aritu da eta heldu den astean organu ikasketekin hasiko da. / 30

## Geuretik Sortuak egitasmoa gurean

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bekari esker, eskualdeko hainbat herritan sormen lanak garatuko dituzte. / 8

### SINADURAK



ZOZKETA / 33



REYNO GOURMET

**Lorenzo Sarratea:**  
«Gure produktuak baloratzeko borroka egin behar dugu» / 11



**Beatriz Etxeberria**  
izendatu dute Almandozko alkate / 46



ONDIKOL

**Diego Uriarte**  
txirrundulariak profesionaletara salto egingen du / 54

# BERA LESACA

## Agenda 2023

IRAILA  
URRIA

www.berakoagenda.eus  
www.lesaka.eus

<p><b>IRAILA</b></p> <p style="font-size: 2em;">8 9</p> <p style="font-size: 0.8em;">TYK RA</p>	<p><b>URTEURRENA LESAKAKO ERALDOEN 75. URTEURRENA</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">Antolatzaileak: Lesakako Buztina eta Erabilien Kargutza</p>
<p style="font-size: 2em;">9</p> <p style="font-size: 0.8em;">LAHURNATA</p>	<p><b>MERKATUA BERAKO EKIOZILEEN MERKATUA</b> <span style="float: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px 5px;">BERA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">10:30-12:30 Beldarrietan</p>
<p style="font-size: 2em;">15 16</p> <p style="font-size: 0.8em;">TYK RA</p>	<p><b>EHU - UDAKO IKASTAROAK "HIZKUNTZA-GARAPEN EZ-TIPIKOA HAITZ ELEZBONDINGAN DIAGNOSIA ETA ESKU-HARTZEA"</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">Harrizko Kultur Zentroa Antolatzaileak: EHU, Osasun Sektorea</p>
<p style="font-size: 2em;">16 17</p> <p style="font-size: 0.8em;">TYK RA</p>	<p><b>BESTAK ILEKUETAKO BESTAK</b> <span style="float: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px 5px;">BERA</span></p>
<p style="font-size: 2em;">16</p> <p style="font-size: 0.8em;">LAHURNATA</p>	<p><b>ARRANO ELKARTEAREN EGUNA</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">Antolatzaileak: Arrano Elkartea</p>
<p style="font-size: 2em;">17</p> <p style="font-size: 0.8em;">IGANDEA</p>	<p><b>DANTZA TAILERRAK: BAZTANGO MUTIL DANTZAK</b></p> <p style="font-size: 0.8em;">09:30-14:00 / 16:00-19:50 Tailerrak 19:00 Enkautaldia</p> <p style="font-size: 0.8em;">Argibide gehiago: kultur@bera.eus - 948 631 222 Izen ematea: www.berakoagenda.eus Antolatzaileak: Bortzirako Buztina eta Bortzirako Buztina</p>
<p style="font-size: 2em;">17</p> <p style="font-size: 0.8em;">IGANDEA</p>	<p><b>BTT IBILALDIA</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">Antolatzaileak: Telti-Gaste</p>
<p style="font-size: 2em;">21</p> <p style="font-size: 0.8em;">ORTZEGUNA</p>	<p><b>TAILERRA "BAKAI ETA BEZKIDETZA LANTZEN DUTEN LIBURUTEGIAK"</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">PROGRAMAREN BURTAN, "HITZAZTANAK, INDIKATZETAN, GABEKO KOMUNIKAZIOA"</p> <p style="font-size: 0.8em;">Itasien Mujika 17:30 Liburutegia</p>
<p style="font-size: 2em;">22</p> <p style="font-size: 0.8em;">ORTZIRALEA</p>	<p><b>HAURRENTZAKO IPUIN-KONTALARIA MUSAS Y FUSAS</b> <span style="float: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px 5px;">BERA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">17:30 Berti Ibarretan</p>
<p style="font-size: 2em;">23</p> <p style="font-size: 0.8em;">LAHURNATA</p>	<p><b>MUSIKA IKUSKIZUNA BIDAIA</b> <span style="float: right; background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px 5px;">BERA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">20:00 Telti eta Ibarretan Somera: 7€ - talpegi Agutza prentzean Bera, Telti eta Ibarretan Lesakan eta www.ortzira.com-es (-inbuletza gutxiak)</p>
<p style="font-size: 2em;">23 24</p> <p style="font-size: 0.8em;">TYK RA</p>	<p><b>SUSTRAILS OPEN ENDURO BTT</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p>
<p style="font-size: 2em;">30</p> <p style="font-size: 0.8em;">LAHURNATA</p>	<p><b>MERKATU TTIKIA</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">10:00 Ibarretan Plaza</p>
<p style="font-size: 2em;">30</p> <p style="font-size: 0.8em;">URRIAREN 1 ERA</p>	<p><b>IRUÑEKO ORFEOIA</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p> <p style="font-size: 0.8em;">18:00 Txaroko San Martin Elizan Antolatzaileak: Lesakako Buztina Organizazioa: Lesakako Buztina</p>
<p style="font-size: 2em;">30</p> <p style="font-size: 0.8em;">TYK 1 ERA</p>	<p><b>ASSOCIACIO CASTELLERA XICS GRANOLLERS</b> <span style="float: right; background-color: #c00000; color: white; padding: 2px 5px;">LESACA</span></p>

# EUS KARA ZURI DEIKA

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesakako Matxinbeltzenea  
948 637 796 · [bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Donezteben, Rosa Seminario, 6  
948 451 555 · [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

**LEITZAKO EUSKALTEGIA**  
Leitzan, Euskal Herria Plaza, 1  
948 610 776 · [leitza@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:leitza@ikaeuskaltegiak.eus)

**DIRUZ LAGUNDUTA**

**MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen**

[www.ikaeuskaltegiak.eus](http://www.ikaeuskaltegiak.eus)

euskara  
errazago  
egiten



## NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

### Erreleboa? Nola?

Harrotasunez esaten zuen artzaina zela. Etxeko tradizioari jarraiki lurrari lotuta bizitzea aukeratu zuen, etxaldea gobernatzen eta bere artaldeaz harro. Bere ametsa seme-alabaren batekin lanbidearekin jarraitzea zen eta berak pozik lagunduko omen zion ahal zuen arte. Atzo, ordea, begi eroriekin aitortu zidan ardiekin jarraitu nahi zuen seme bakarrari burutik ideia hori kendu nahian zebilela. Ezin nuen ulertu. Nola? Ez al zen bada zure betiko ametsa? Bai, baina pentsua, argia, gasolioa igo dira, eta ardikia ez da neurri horretan igo eta gero eta oztopo gehiago dauzkagu. Paperez itota gauzkatu. Ez dut federik gure agintarientan, Europan, dirulaguntzetan eta nekazalgoari bizkar emanda bizi den gizarte zuri honen deusetan. Turistek argazkiak egiteko nahi gaituztela dirudi. Prest gaude lan lotuari heltzeko, baina ez dirua galtzeko. Era duinean bizi ahal izatea da behar duguna. Eta jakina, ez dut nire seme-alabarik ikusi nahi orain ni nagoen atakan. Lehendik gutxi genituen eta erreleborik ez dator ia. Herri honentzat, ordea, ezinbestekoak dira. Hortaz da ezinbestekoa lurra zainduz gurean janaria ekoizten dutenei laguntzea.

«**HERRI HONENTZAT EZINBESTEKOAK DIRA NEKAZARIAK**»



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Azala beltz, ilea urdin, burua zuri

Oporren ondoko sindromea izan daiteke edo letrak bata bertzearen ondotik hala moduz pilotzen aritzen garenok maiz xamar izaten dugun orri txuriaren aitzineko sindromea beharbada... Baina oporraldiaren ondotik, azala zertxobait beltzatu eta gero burua zurian dugu, ikasturte/denboraldi berria parean dugula. Ilea urdin ahala, gero eta gehiago.

## NABARMENTZEKOAK



**LUCIANO MITXELENA**  
TXIRRINDULARIA



**ESTI GASTEARENA**  
KIROLARIA

Berriz ere sasoi ederrean dagoela erakutsi du Luciano Mitxelenak. Munduko Txirrindularitza Txapelketan hirugarren izan zen 87 kilometroko proban 70 eta 74 urte artekoen mailan.

Herri kirolari abila da Esti Gastearena sunbildarra. Abuztuaren 26an ingude altxatzean Nafarroako errekor berria ezarri zuen 25 kiloko ingudeari minutu batean 63 altxaldi emanda.

## GIBELERA BEGIRA



2013-09-05 · TTIPI-TTAPA · 597 zk.

### Sarako Urtxintxak elkarteak 20 urte

2013an 20 urte bete zituen eskubaloia sustatzen Sarako Urtxintxak nesken eskubaloia elkarteak. Eskubaloia erabat errotua zen duela hamar urte Saran, baina, hori hala izateko lan anitz egin behar izan zuten, batez ere elkartearen sorreran. «Hastapenak zailak izan ziren, neskek ez zuten kirol honen inguruan gauza haundirik ezagutzen, baina motibazioa bazuten eta Ahetzeko ekipoaren sostengua eta bi gizonen laguntza ere izan zuten», azaldu zuten Joana Guerendain eta Elodie Garat taldeko entrenatzaileek eta jokalariek. Denboraldi berriari ere begira paratuak ziren taldeak: «Taldea bakoitzaren helburua txapelketan ahal bezain urrutien joatea izanen da eta zergatik ez, final bat irabaztea ere bai».



**erran.**  
eus



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemakalariak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberriagarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**  
Paskual Rekalde  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senperoko  
udalak, Malerreko Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

**2023ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi  
eta Malerreka 45€  
Leitza 36€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 100€  
Amerika eta Australia 152€



## KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

## Topa egin dezagun adiskidetasunaren alde

Aurtengo neguan leitu ditudan liburuetatik interesgarria egin zaidan gai bat gelditu zait neure baitan bueltaka, pentsarazi dit, eta orain, idatzi honen bitartez, zuekin konpartitu nahi dut. Adiskidetasunari buruz ariko naiz gaurkoan. Historian zehar, ia filosofo eta pentsalari orok idatzi dute gai honi buruz, Aristotelesek erran omen zuen *Etika* bere liburuan: «Adiskidetasuna zerbaite noblea da, eta beharrezkoa ere bai, bizitzarako beharrezkoa: adiskiderik gabe inork ez luke bizi nahi izanen, gainerako guztia edukita ere».

Egiazko lagunaren artean gaudenean lasai eta babestuak sentitzen gara. Pentsatzen duguna errateko edo sentitzen duguna egiteko ez dugu beldurrik. Adiskide artean ahalduntzen gara eta indartsuago sentitzen gara... Akaso lagun arteko otordu batek ez ahal digu eskaintzen gorputz eta arimaren plazer guztiak asetzeko aukerarik? Alde batetik, jana, edana, irria, lasaitasuna eta bertzetik, zoriona, elkarrizketa goxoa, kontsolamendua, esperantza edo oroitzapenatarako momentuak.

Gure kulturean, adiskidetasuna bigarren mailako balioa bezala saldu nahi izan digute maitasunaren aldean. Abestietan, pelikuletan, nobeletan maitasun tradizionala edo

### «EREIN DEZAGUN ADISKIDETASUNAREN HAZIA GURE INGURUAN»

bikotekideen arteko amodioa goraiatu da laguntasunaren gainetik eta zoriontasunaren ezinbertzeko iturritzat kontsideratu izan da. Ez digute azaltzen maitasuna idealista dela, errealitatearekin topatzean

eta espektatibak betetzen ez direnean, beldurra, zeloak, gorrotoa edota mendekotasuna agertzen dela. Adiskidetasuna, berriz, askeagoa da, arrazionalagoa, harreman parekideak eskaintzen dizkigu eta miresmena eta konfiantzarako baratze ederra bilakatzen da. Ez naiz ari erraten maitasunari uko egin behar diogula, ez, adiskidetasuna erdigunean jarri nahirik nabil, biak, maitasuna eta adiskidetasuna, erabat bateragarriak direla.

Laguntasunaren alderdi terapeutikoa ere aipatu nahi dut. Lagun bati ez diogu beldurrik eta gainera, lagun baten ondoan beldurra desagertzen da. Adiskide artean, seguru sentitzen garelako, garen bezalakoak izateko baimena izanen dugu eta eman dezakegun hoberena aterako da guregandik: bakardadean dagoenari konpainia, gaixoari kontsolamendua, beharrean dagoenari laguntza... Horrela, bai banaka bai taldean, gizaritari eskaini ahal izanen diogu barrenean dugun hoberena.

Erein dezagun ba adiskidetasunaren hazia gure inguruan, landu dezagun egunero-egunero, eta praktika honetan gero eta zoriontsuago izan gaitezen.



MIREN RUBIO ITURRIA

## Bertze arbolak

Iruñeko lorezainak bertze arbola klase batzuk landatzen hasi dira. Hala aditu nuen irratiko elkarrizketa batean. Bertan, elkarrizketatuak erran zuen hogeita hamar urteren buruan izanen ditugula Nafarroako hiriburuan egungo Extremadurako tenperaturak eta giroa, eta horri hobeki aurre egiteko gai diren arbola klaseak landatzea erabaki dutela. Pagoak ez, hosto lodixkokoak hobeki. Eraginkorrakoak omen.

Ezin izan dut loturarik ez egin, honako bertze datu hau irakurri dudanean egunkarian: abuztuko azken bero boladan, 18 lagun hil ziren bero sapolen ondorioz edo horren zeharkako eraginez; ezohiko datua. Eta hara bertze hau: 2022an, Carlos III. Institutuaren arabera, beroak bereziki kolpatu zuen Nafarroa Hego Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin konparatuz gero, udan 100.000 biztanletik 17,8 hil baitziren beroaren ondorioz (Bizkaian 8,8; Araban 7,8; Gipuzkoan 1,8). Gu pagoak ote?

Jakin badakit lotura hori ez dela egokiena, ez dela berez zuzena. Baina klima larrialdia jada ari zaigu eragiten, gu aldatzen, pagoak eta paisaia nola, gu aldatzeko gai ez garelako. Eta termometroaren datuaz gain, aski adibide simple eta argigarria iruditu zait lorezainena, heriotzera, lotzeko adinakoak.

### «HASI BEHARKO DUGU GEURE BURUA DIFERENTE ZAIKTZEN...»

Uda honetan mendian ibiltzeko zortea izan dugunok ikusi baitugu aldaketa parez pare: glaziarrek pena ematen zuten, urtuta ia ezerezean; hainbat errekan eta ibaitan amuarrainak eta bertzelako

animaliak ehunka hilda agertu dira; eta segi eta segi... Irakurle, segur naiz zuk ere baten bat ikusi duzula. Eta etorriko zena hemen dugula jabetu, jada jabetua ez bazina.

Lorezainak bezalaxe, hasi beharko dugu geure burua diferente zaiktzen, inausten. Bertzela, paisaia honetan ez dugu kapidarik. Pagoak ez dira gai erantzuteko. Ea gu zein klasetakoak ote garen, gu geu lurra idortzen ari garen lur honetan.

## 11 GALDERA LABUR

OIHANE ZUGARRAMURDI ZUBIETA GOIZUETAKO GAZTEA

# «Oso barnean daramat nire herria»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Oso sentibera, pazientzia handikoa eta alaia.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Musikarekin zerikusia duen guztia gustatzen zait; abestea, entzutea, dantzatzea... horrez gain, lagunekin eta jendearekin egotea oso gustuko dut.

**Goizuetan sortutako aranztarra edo Arantzan bizi den goizuetarra?**

Arantzan bizi den goizuetarra. Nahiz eta broma gisa Goizuetan aranztar naizela esaten didaten, oso barnean daramat nire herria.

**Zer ekarriko zenuke Goizuetatik Arantzara? Eta alderantziz?**

Asko xamar eskatzea izango da etxeokak eta Goizuetako lagunak nire ondora ekartzea

baina eskatzeagatik... errazago izango da nire bikotea Arantzatik Goizuetara eramatea!

**Besta egiteko egun edo toki bat?**

Goizuetako edozein parranda: karnabalak, fiestak, kintoen eguna... hurrengo bat esatekotan, Lesakako sanferminak bereziak izan dira beti nire kuadrillan.

**Asteburuko plan ideala?**

Goizuetara joateko plana da niretzako idealena, ahal dudan guztietan joaten saiatzen naiz. Asteburu bat joan gabe gelditu ezker, bigarren astean umorea aldatzen hasi naiz!

Egia esan, gehienetan, leku batean edo bestean asteburuko planik ez zaizkigu falta.

**Musikazalea zara. Instrumenturik jotzen duzu?**



Bai, odolean daramat musikarako zaletasuna; gure familia ez da otordurik izaten kantu eta zalapartarik gabe. Hasiera batean trikitixa ikasten hasi nintzen eta urte batzuk beranduago gitarra ikastera pasa nintzen. Panderetarekin ere soinu pixka bat egiteko gai banaiz.

**Nora bidaiatuko zenuke gustura?**

Argentinara joango nintzateke gustura. Betidanik izan dute osaba Jabier eta aitak bertara joateko nahia eta beharbada,

hori da gehien deseatzten dudana lekua. Beraiekin batera Argentinan barrena gustura ibiliko nintzateke.

**Amets bat?**

Nire inguruan osasuna eta maitasuna dagoen bitartean konforme.

**Zure asmoak epe motzera?**

Orain bezala jarraitzea ez legoke batere gaizki, baina etxe propioa izateko nahia badugu.

**Eta epe luzera?**

Egunen batean ama izatea gustatuko litzaidake.



1951tik  
*Casa Cambra*  
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Mairidireak  
Toailak  
Edredoi-azal nordikoak

## IRAKURLEAK MINTZO

## Ukrainako guda gelditu

## JOAN MARI BELOKI KORTXARENA

Ukrainako guda gelditu. Hauxe jende gehienak nahi duena. Ehunka mila baitira Ukrainan hiltzen ari diren gizakiak. Baina nola gelditu? Herritarrok ahotsa altxa nahi dugu, baina zer aldarrikatzeko? Hemengo komunikabide nagusien arabera, Errusiak Ukrainatik atera behar du eta urte luze honetan inbaditu dituen lurak utzi. Kito. Ondoren kalteak ordaintzea exijituko zaio, azpiegiturak berreraikitzeak gastuak bere gain har ditzala, Putini epaiketa sumarisimoa egitea, e.a.

Baina, hau al da herritarrok aldarrikatu nahi duguna? Planteamendu honek bi akats larri dituela esanen nuke. Lehena, Errusiak ez duela inola ere onartuko; beraz, proposamenak ez du guda amaitzeko balio. Bigarrenik, proposamenak ez ditu aintzat hartzen guda pizteko izan diren arrazoiak; hortaz, ez du arazoa konpontzeko balio. Beraz, izan gaitezen praktikoak eta sakon dezagun gertaeren azken urteetako bilakaeran, ondoren proposamen baliagarri bat aurkitu ahal izateko..

Oso urrutira joan gabe goazen 1990. urteraino. Urte horretan Gorbachov (SESB) eta G.Bush Jr. (AEB) presidentek hitzartu zuten Varsoviako Ituna deuseztatuko zuela lehenak eta NATO ez zela ekialderantz zabalduko bigarrenak. Sobiet Batasuna 1991n deuseztatu zen. Baina AEBek ez zuten beren hitza bete eta NATO ekialdera zabaltzeko plana eratu zuten. 2008an Bushek Ukraina NATO n sartzeari bultzatu zuen erakundearen Bukaresteko goi bileran. Errusiako agintariek NATOren armada ez zutela Ukrainako mugetan inolaz ere nahi berretsi zuten.

2014an Yanukovich Ukrainako presidente hautatuari kargua kendu zioten estatu kolpe baten bitartez. Hauteskundeetan bere puntu nagusia Ukrainaren neutraltasuna izan zen.

Victoria Nuland, gaur AEBetako Estatu Idazkariorde eta garai hartan Idazkaritza horretako kide, Maidan plazan izan zen kolpista armatuei babesa ematen. Donbassen herritarrak armak hartuta jazarri zitzaizkion Gobernu kolpistari.

2015ean, Minsken bake hitzarmena sinatu zen. Bertan marko autonomo bat ziurtatzen zitzaien Donbasseko bi errepublikei. Baina Nazio Batuen Erakundearen babesa izan arren, Gobernuak ez zuen bere konpromisoa bete.

2021ean Biden presidenteak NATO ekialderantz zabaltzeko asmoa berretsi zuen. Konfrontazio militarra ekiditeko asmoz, 2021eko abenduan Vladimir Putinek AEBen eta Errusiaren arteko segurtasun akordioa proposatu zuen. Hurrengo hilean Joe Bidenek ez zegoela negoziatzeko prest erantzun zion. 2022ko otsailean Errusiak «operazio militar berezia» abiarazi zuen. Lau aste beranduago Zelenskik neutraltasuna onartu zuen publikoki eta, Erdogan presidentearen eraginez, martxoan, Turkian, Errusiak eta Ukrainak bake akordiorako lehen zirriborroa sinatu zuten. Bidenek aukera hori zapuztuz Ukrainari guda indartzeko esan zion, Ukrainak NATOren barruan behar zuelako.

Hortaz, Errusiaren «operazio militar berezia» eraso inperialista izan zen ala defentsa ekimena? Geopolitikako adituek aurreko paragrafoetan esandakoak estrategia bereko atalak direla diote. NATOren plangintza bati lotuak leudekeenak, Sobiet Batasunak inpllosionatu zuen bezalaxe gaur Errusiar Federazioak inpllosiona dezan asmoz eginak. Goi agintariek behin eta berriz errepikatu dute biziraupena arriskutan jarri diotelako sartu dela Errusia guda honetan.

Lehen paragrafoan genioenari helduz, zer aldarrikatu behar dugu Europako mendebaldeko herritarrok? Lehenik su etena, noski. Eta ondoren, diplomazia, 2022ko Turkiako dokumentuaren bidetik abiatuta, hori

baita bi aldeek bakerako sinatu duten azken agiria. Eta agintari politikoak mugiarazteko herritarren mobilizazioa beharrezkoa denez, hemengo alderdi politikoei herritarren mobilizazioa antola dezatela. Bereziki EH BILDUri eta EAJri, haiek baitute mobilizatzeo ahalmen handiena Euskal Herrian.

## Besta laikoak

## JON ABRIL OLAETXEA

Gure herriko bestak, inguruko gehien-gehienak bezala, santu edo zaindariren baten omenez egiten dira. Eliza katolikoko santuez ari naiz, jakina. Gure tradizio katolikoaren eragina begi-bistakoa da. Oraindik orain, santuaren egunak markatzen du egutegia bera (aunitzetan, gainera, batere logikarik gabe utziz bestetako egitaraua), baina baita solemnitare handieneko ekitaldiak ere. Udalbatzak, korporazioan, elkarrekin eta modu ofizialean ekitaldi erlijiosoetan baino ez du parte hartzen gure herrian, Beran, eta erranen nuke, hala dela eskualdeko gainerako herri gehienetan ere. Zentralitate osoa ematen diogu elizkizunari, elizari eta honen sinbologia guztiari.

Paradoxikoa da hau, gure herrietan gero eta katoliko gutiago baikara, mendeetako kopururik ttikiena izateraino (are ttikiagoa praktikatzen dutenen kopurua). Gainera, inoiz baino erlijio gehiagotako kideak bizi gara elkarrekin (musulmanak, ortodoxoak, ebanjelikoak...). Gure bestek ez dituzte euren erlijioak kontuan hartzen (eta ez lituzkete kontuan izan beharko), baina gure bestak erlijio baten bueltan antolatzen ditugun bitartean, gainerako erlijioetako kideak, zuzenean, baztertzen ditugu.

Ezinbertzekoa da gure herrietako bestak laikoak bilakatzea. Katolikoek euren santuari errezatu nahi badiote, egin dezatela. Askatasun erlijiosoaren izenean, eskubide osoa dute, eta hori

## IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

defendituko dut. Eta ospatu dezatela nahi duten bezala. Baina eremuak ez du eremu publikoa izan behar. Eremu pribatuan (tenpluetan edota etxeetan) izan behar du ospakizun horrek. Eta laiktasun-printzipio hori bete dadin, ezinbertzekoa da udalbatzak, alkatea buru duela, ekitaldi horietan ez parte hartzea. Desberdina da elkarte edo talde jakin baten parte hartzea. Talde horretako kideek erabaki behar dute hori, elkarte edo talde pribatuak diren heinean. Baina botere publikoek ez dute ordezkari gisa parte hartu behar. Nahi duen zinegotziak, libreki parte har dezala, baina ez udalbatzaren izenean, ez herriko ordezkari politiko gisa, norbanako gisa baizik. Badakit tradizioak pisu handia duela honetan guztian (nahieran erabiltzen dugun tradizioa, bide batez). Herritar zenbaitek ez dutela ulertuko (udalbatzak hartzen dituen erabaki guzti-guztiekin gertatzen den bezala). Gizarte justuago, demokratikoago eta berdinzaleago baterako erabakia den neurrian, ezinbertzekoa da.

Gizarte laikoa kontzientzia askatasunean, herritar guzien tratu berdintasunean (norberaren arraza, sexua, aukera espirituala eta kultura edozein dela ere), eta ongizate komuna bilatzean oinarritzen da. Gizarte laikoa botere publikoek edozein sinesmen eta erakunde erlijiosorengandik bereiz egon behar dute.

Eta udalbatzak besten baitan leku nabarmendu bat beharko balu (hau eztabaidarako), herriaren aitzinean elkarrekin agertzeko, herriari agur egitea beharrezkoa dela uste badu udalbatzak berak, eguneratu egin behar ditu orain arteko errituak, edo berriak sortu. Beran, erraterako, abuztuaren 3an, mezaren ondotik egiten den ekitaldiak berak balio dezake horretarako (mezatik erabat aldentuz, ordutegia aldatuz, meza bera pragmatik kentzearekin batera):

herriko banderarekin agurra dantzatu dezatela, eta Berako bordon-dantza eta makil-dantzetan hartu dezala leku berezi bat plazan, beharrezkoa bada. Edo txupinazoaren unea balia dezatela horretarako. Edo, Euskal Herriko bertze leku batzuetan egin den gisara, asma dezagun zerbait berria, udalbatzako kideak, herriko dantzariekin edota herritarrekin batera soka-dantza (aurrekua gurean) dantzatzu, hori baita aurrekuaren edo soka-dantzaren jatorria. Edo sormenetik bururatzen ahal zaigun bertze edozein ekitaldi. Gizartearen hobe beharrez. Gizarte laiko eta anitza helburu.

### Etxalarko bestetan ere ez!

#### AINARA ARANGIBEL

ETXALARKO UDALEKO BERDINTASUN ZINEGOTZIA  
ETXALARKO TALDE FEMINISTA

Etxalarko bestak askatasunean eta beldurrik gabe bizitzeko eskubidea aldarrikatze asmoz, Etxalarko Feminista Taldeak *Bestetan ere eraso sexistarik ez* lelopean pankarta bat zintzilikatu zuen frontoiko zutabeen artean. Pankarta hau bi gauz kendua izan da, mezu feminista eta zilegi hau besta eremutik kentzeko asmoz.

Etxalarko Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Etxalarko Feminista Taldeak aho batez gaitzetsi nahi dugu gertaera hau. Argi dugu emakumeon askatasun eta eskubideen aurkako eraso dela eta ez gertaera isolatu bat, besta eremuan drogen kontsumoaren aitzakiarekin egindakoa. Horren erakusle da frontoian bertan beste bi pankarta ere zintzilikatuak egon eta talde feministarena bakarrik izatea kendu den bakarra.

Hagitz larria iruditzen zaigu berdintasuna eta indarkeriarik eza helburu duten mezu feministak ezabatzeko ahalegin hau. Are gehiago, indarkeria sexistaren gorakada bizitzen ari garen momentu hauetan: Nafarroa

mailan, 2023. urteko lehen sei hilabeteetan indarkeria sexistagatik 165 salaketa paratu dira (iaz 244 izan ziren urte osoan). Datu hauen larritasuna areagotu egiten da, salaketa horietatik 72 adin ttikiko emakumeen eskutik jarriak izan direla jakinda. Ikus daiteke, beraz, arazo larri baten aitzinean gaudela.

Indarkeria sexistaren gorakada honetan, inoiz baino ozenago zabaldu beharra dugu *Eraso sexistarik ez* mezua, jakinda eraso hauek ez direla hiri handietan eta ezezagunen eskutik bakarrik gertatzen, baizik eta gure ingurunean ere gertatzen den arazo larri bat dela.

Horregatik guztiagatik, Etxalarko Udaleko Berdintasun Zinegotziak eta Etxalarko Feminista Taldeak gure herrian gertatu den berdintasunaren aurkako eraso hau gaitzetsi nahi dugu.

Etxalarko bestetan ere ez, eraso sexistarik ez!





Geuretik Sortuak bekaren irabazleetako batzuk eta herrietako ordezkariak martxoan Beran egindako aurkezpenean. TTIPI-TTAPA

## Kultura geuretik eta euskaraz sortzeko

Geuretik Sortuak beka deialdiaren bigarren edizioa egingen dute aurten eta heldu den urtean. Eskualdeko lau herritan egin dituzte egonaldiak artistek: Beran, Lesakan, Leitza eta Saran. Jon Abril beratarra eta Gaizka Sarasola lesakarra bi lan sortzeko aukeratuak izan dira

### A. LARRETXEA

Geuretik Sortuak bekaren bigarren edizioa antolatu du aurten Udalbiltzak. Euskara hutsean egindako artea eta kulturaren sormena, ekoizpena eta hedapena sustatu nahi dituen zirkuitu nazionala da Geuretik Sortuak. Abiapuntua erraza du proiektuak: bekara aurkeztu eta saritutako sortzaile bakoitzari herri bakarra edo herri multzoa egokitzen zaizkio, eta sortzaileak bertan bi astetako egonaldia egin ondok sormen lan bat egin beharko du bertako errealitatean oinarrituta.

Lau izan dira aurten bekak garatzeko aukeraturako modalitateak: literatura, antzerkia, zinemagintza eta komikigintza. Denera 39 herrik hartu dute parte eta 22 artista saritu dituzte.

### Eskualdeko lau herritan

TTIPI-TTAPA hartzen duen eremuak ere badu presentzia bekan. Lehen edizioan Leitza alde batetik, eta bertetik Berak eta Lesakak hartu zuten parte. Aurten bertze herri bat batu zaie hiru herri horiei: Sara. Gauzak horrela, Leitza Berastegirekin batera aurkeztu da, eta Bera eta Lesaka Sararekin eta Urruñarekin.

Bi herrietan komikigileak dira beren proiektua garatzen ari direnak, Unai Gaztelumendi lehen bietan eta Aritz Ibarra bertze lauretan. Sortzaileak egonak dira eskualdean jada, eta idazketa eta marrazketa fasean murgilduta daude orain. Ibarra Lehen Mundu Gerrari buruzko lana osatzen ari da, Gaztelumendik, aldiz, muga hartu du gaitzat eta Leitza eta Berastegik duten harremanaz

eta harreman faltaz ari da idazten.

Eskualdeko herriez gain, eskualdeko bi sortzaile ere izan dira aukeratuak: Jon Abril Olaetxea beratarra eta Gaizka Sarasola Iarabal lesakarra. Biak literatura modalitatean saritu dituzte eta ipuin bana idaztea egokitu zaie. Ondotik, idatzitako ipuin denak liburu bakarrean bilduko dituzte.

Sarasolak Bizkaiko Larrabertzu herrian egin du egonaldia misterio-ipoiu bat sortu du bertan. Abril, aldiz, Atharratzen, Zuberoan, izan da eta

### AURTEN SORTUKO DITUZTE LANAK ETA 2024AN ERAKUTSIKO

herri ttikien husean oinarrituko du bere fikzio-ipoiuina.

Sormen egonaldiak bukatuta, idazteka fasean daude orain eta iraila erdialderako entregatu beharko dituzte beren lanak. Lehen edizioan Iban Garro lesakarra saritu zuten, eta iaz argitaratu zuten Garrok Urepeleko egonaldian egindako sormen lana.

### Egindakoa erakustea

Bi zati ditu bekak, sormenarena eta erakustearena. Lehen fasea irailan bukatuko dute sortzaileek eta ondok etorriko da bigarrena, egindako lana plaza publikoan zabaltzearena. Horretarako, Udalbiltzak aurkezpen zirkuitu propioa presatatu du. Heldu den urtetik aitzinera bekara aurkeztutako sortzaileek beren proiektuak aurkeztu beharko dituzte jendaurrean, bai egonaldia egindako herrian, baina baita bertatik kanpoko bertze herri batzuetan ere. Horrela, sortzaileek berraztertuta izanen dute beren lana erakusteko aukera, eta bekan parte hartzen duten herrietako biztanleek hainbat sorkuntza ikusteko aukera izanen dute beren herrian.

Aurten uzta landatu, eta heldu den urtean bilduko dute, beraz.



## «Luxua izan da; jendeak hagitz gustura hartu nau Atharratzen»

JON ABRIL OLAETXEA IDAZLEA

Literatura lana garatzeko eman diote beka Jon Abril Olaetxea beratarri eta Atharratzen egin du egonaldia. Aitzinetik ere publikatu izan ditu ipuinak, eta beraz, ez da formatu arrotza beretzako. «Bekaren formatua bera hagitz erakargarria egin zitzaidan, aitzinetik eskatzen dizulako gaia pentsatzea eta egokitzen zaizun herriarekin lotura duen fikzio bat sortzea. Gainera, ariketa bezala polita iruditzen zait aukera eman dutelako aitzinetik zerbait pentsatzeko, baina dena pentsatua ez izateko». Gainera, bere kasuan, egunerokotasunetik eta lanetik eskapo egiteko eta

sormen prozesuan murgiltzeko aukera eman dio beka, eta «luxuzat» du hori Abrilek.

Hasieratik definitu zuen gaia: herri ttikien hustea. «Bada gai bat atentzioa ematen didana, bereziki Huescan egindako egonaldi baten ondotik. Gure inguruan ere gertatu da eta gertatzen ari da». Gaia argi izanda, egonaldia Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian egiteak zuen «zentzu gehien» Abriren hitzetan bertan gertatzen baita fenomeno hori, eta pozik da Atharratze egokitu zaiolako.

Apirilean egin zuen lehen egonaldia, eta batez ere jendearekin egoteko aprobetxatu



TTIPI-TTAPA

zuen: «Jendea ezagutu, ikusi bertakoak nola bizitzen duten herrian hustearena, bakoitzak hartzen dituen bideak, zergatik erabakitzen duen bertan gelditzea... Horrelako gauzak landu nituen eta ikusi nuen gatazkaren bat edo bertze sortzen dela euren artean». Bigarren egonaldia, abuztuan egin zuen, idazteko.

Atharratzen egondako denboraren oroitzapen «aski goxoa»

du: «Luxua izan da. Gauzak aunitz erraztu dizkidate, eta horrek aukera eman dit bertako jendearekin patxadan egoteko, beraien proiektuak ezagutzeko... Jendeak hagitz gustura hartu nau».

Aurkezpenak egiteko tartea izanen du heldu den urtean eta hori bizitzeko ere gogotsu da. «Sekulakoa da 6-7 aurkezpen bermatzea, are gehiago ipuin baten kasuan. Uste dut hagitz interesgarria dela sortze prozesua nolako izan den azaltzeko aukera ematen duelako, eta zirkulua borobilzen duelako».

Luxuzat du Udalbiltzak emandako aukera: «Parte hartzaile batek erran zidan ez nuela esperientzia hain erraz ahaztuko eta egia da. Ez da idaztea bakarrik, komunitate batean murgiltzen zara, eta sormenaren aitzakian harrera egiten dizute. Horretarako hagitz aukera gutti daude».

## «Argi nuen beka narrazioa idazteko aprobetxatu nahi nuela»

GAIZKA SARASOLA IARZABAL IDAZLEA

Orain arte antzerkian egindako lanagatik da ezaguna Gaizka Sarasola Iarزابal lesakarra. Antzerki obra bat baino gehiago idatziak ditu, eta antzezle ere aritzen da. Geuretik Sortuak ekimenean, ordea, narrazioa izanen da landuko duen modalitatea. Berak espresuki hala erabaki du: «Lana aurkezteko orduan ez nuen zalantzarik izan, garbi nuen narrazioa probatu nahi nuela eta horretarako baliatu nahi nuela esperientzia».

Bekaren ezaugarriek bulztatu dute bere proiektua aurkeztera: «Normalean inguruko errealitateak eta historiak

transmititzen ditugunetik sortzen ditut antzerkiak eta Geuretik Sortuak ekimenak ere antzeko planteamendua du eta horregatik erabaki nuen aurkeztea».

Larrabetzun, Bizkaian egin du egonaldia Sarasolak. Bi txandatan egin du, uztailean, sanferminen ondotik lehenengo, eta abuztu erdialdean bigarrena. «Lehenengo txandan informazioa bildu, hango jendearekin egon, jendea ezagutu... Batez ere informazio bilketan eta lekua ezagutzen aritu nintzen. Abuztuko egonaldian, aldiz, idaztea zen helburua».



TTIPI-TTAPA

Fikziozko lan bat da Sarasolak Larrabetzun girotu duena: «herrian desagertze bat izaten da eta hori ikertuko duen pertsonaia bat izanen da», azaldu du.

Gustura dago Larrabetzun egindako egonaldiarekin, eta herritarrek «harrera ona» egin diotela iruditzen zaio. «Harre-ra ona egin didate, bertako jendearekin hagitz ongi moldatu naiz». Gainera, Larrabetzu

lanerako herri interesgarria iruditu zaio: «Herria bizia da, kanpoan aunitz egoten dira eta herritarrek, haurrek zein helduek beraien artean harreman handia dute».

Interesgarria iruditzen zaio horrelako beka izatea, batez ere amu gisa funtziona deza keelako: «Nik uste dut sorkuntzarako amuak eskaintzea beti ongi dagoela. Gainera, bada jendea kultur sorkuntzara gehiegi hurbiltzen ez dena, eta baldin badakite bekari esker sortzaile bat bere inguruko kontuak lantzen ibili dela, horientzako ere amu bat da eta interesa sortzen ahal du kultur adierazpide desberdinetara hurbiltzeko». Bertze kontu bat ere nabarmendu du: «gure herrietako errealitate desberdinak bertze modu batez azaleratzeko aukera ere maten, du Geuretik Sortuak proiektuak, bertze ikuspegi batzuk izatekoa».

## «Sortzaile guztiak animatuko nituzke bekara aurkeztera»

ARITZ IBARRA AGIRREZABAL KOMIKIGILEA

Lapurdin eta Nafarroan, Saran, Urruñan, Beran eta Lesakan egin du Geuretik Sortuak bekaren egonaldia Aritz Ibarra Gasteizko komikigileak. Lehen Mundu Gerrak Euskal Herrian izandako ondorioak hartu ditu gaitzat, eta horren inguruko komikia osatzen hasi da. Azaldu duenez, bekaren aitzinetik ere hasia zen gaiaren inguruko komikia prestatzeko lanean: «Epe luze bat zen, baina aukera hau ikusi nuenean ez nuen dudarik izan. Hasierako asmoa Gasteiztik idaztea zen, baina bekak aukera eman dit gaia bertatik bertara lantzeko».

Lehen mundu gerra eta horren ondorioak hartu ditu gaitzat Ibarra: «Gizakia muturrera eraman zuen gertakaria» izan zen eta harrigarria da hegoaldean zer gutxi ezagutzen dugun. Iparraldeko herritarrak borrokara joan ziren behartuta, baina guk ez dugu horren berri. Proiektuak balio izan dit ikusteko noraino ditugun sartuak bai Frantziaren eta bai Espainiaren imajinarioak gure barruan».

Pozik da Udalbiltzak emandako aukerarekin: «Ni etxean, nire logelan lan egitera ohituta nago, bertatik atera gabe, eta sekulako aukera izan da



UTZITAKOA

kanpoan lan egiteko». Saran, hasi zuen egonaldia, handik Urruñara jo zuen eta Beran eta Lesakan eman zituen azken egunak. Eskualdean emandako egunak, batez ere herritarrekin egoteko aprobetxatu zituen eta gauza batek harritu du gehien: «Hegoaldeko herritarrentzat ezezaguna da gertakaria. Kilometro gutxitan pertzepzioa erabat aldatzen da».

Lau herrietako egonaldia bukatuta, komikia egiteko lanean buru-belarri murgilduta dago orain Ibarra. Irailaren 20an entregatuko du lana, eta asmoa «irailaren 19ra arte lanean aritzea da», ahalik eta lanik osoena egiteko. Komikia entregatzearekin, ordea, ez da hor bukatuko bere egin-beharrak, ondotik aurkezpenak egitea egokituko baitaio bai. Horrekin ere pozik da Ibarra: «Nik beti esaten dut komikia entregatzea prozesuaren %50 bakarrik dela, eta gogotsu nago bigarren zati horretarako ere, gaia gizarteratzeko».

Bekak eskaintzen duen esperientzia «erdia» bizita, oso pozik dago Ibarra, aukera «polita» izan baita beretzat. Gehiago ere erran du: «Sortzaile denak animatuko nituzke bekan parte hartzera aukera ematen dizulako nahi duzun hori egiteko, eta zuk nahi duzun gaiari buruz».

## «Ez dut horrelako lan baldintzak dituen beste bekarik ezagutzen»

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA KOMIKIGILEA

Lan luze bat egiteko gogoz zen Unai Gaztelumendi komikigile donostiarra. Parean tokatu zen Geuretik Sortuak beka, eta hala erabaki zuen aurkeztea. Proiektu zehatz bat baino, lanerako metodologia bat aurkeztu zuen bekara: «herrira joatean nola lan egin nahi nuen azaldu nuen, historia zehaztu gabe, nahiko proposamen irekia zen». Sorpresa izan zen hautatua izatea beretzat: «Nire proiektua lausoagoa zen, baina nik banekien zer egin nahi nuen eta nahia-go nuen gero gustura egingo ez nuen zerbait aurkeztu baino, gero egiatan prozesuan

murgildu eta harro egongo nintzen zerbait sortzea».

Berastegin eta Leitza egin zuen egonaldia Gaztelumendik, aste santu ondoren. «Oso oso gustura ibili nintzen, oso ondo hartua izan nintzen bi herrietan», azaldu du. Bi herrietako egonaldia, lanerako baino, inspiraziorako erabili zuela dio: «Garai lausoa izaten da, lan konkreturik egin gabe, herrian paseatu, herritarrekin egon, mendi buelta pare bat egin bi herrien arteko mugan izan nintzen pare bat aldiz...».

Egokitutako herriak Leitza eta Berastegi zirela jakin zuenetik argi izan zuen zeri buruz-



WIKIPEDIA

ko komikia sortuko zuen: «bi herriek mugakideak dira, bat Gipuzkoa, bestea Nafarroa, bi administrazio diferente. Bi herrien artean daukaten harremanari buruz eta ez daukate nari buruz hitz egin nahiko nuke komikian».

Horren ondotik tokatuko zaio bigarren fasea, herriz herri komikiaren aurkezpenak egitearena. Bertsolaria ere izaki, ohitua dago plaza aitzineko

jardunera, baina komikigile bezala esperientzia diferentea dela dio: «Bertsolaritzan berehala jasotzen dugu publikoaren erantzuna. Marraztea, aldiz, itzalpeko lana da, sortu eta publikatu egiten duzu baina ez dakizu jendeak nola hartuko duen eta polita da jendearekin egotea, beren iritzia jasotzea eta elkarriketak partekatzea». Egoaldia Leitza egin duenez gero, aurkezpena ere bertan egin beharko du.

Orain artekoarekin «oso pozik dago Gaztelumendi»: «Ez dut beste bekarik ezagutzen horrelako baldintzetan lan egiteko aukera ematen duenik. Ni oso ondo hartu naute Leitza eta Berastegin. Lan egiteko baliabide perfektuak jarri dizkirate bi herrietan, zoragarria izan da. Orain nire etxeko lana da egin behar dudana, eta horretan ari naiz. Oso pozik nago proiektuarekin».



Lorenzo Sarratea ardiekin eta zerriekin egiten du lan Elizondoko Ernauteneko borda baserrian. REYNO GOURMET

## «Luzera begira gaur egungo baldintzetan irautea ezinezkoa da»

**LORENZO SARRATEA AZKARRAGA** ELIZONDOKO BASERRITARRA

Ardi latxaren sektorea «egoera larrian» ikusten du Elizondoko baserritarrak. Sektoreak dituen trabez, mugez eta erronkez aritu da, eta elkartu eta borrokarako deia egitearen beharra nabarmendu du

**G. PIKABEA** ELIZONDO

«Ardi latxaren sektorea krisian dago eta egoera larria da». Argi eta garbi mintzatu da Elizondoko Ernauteneko bordako Lorenzo Sarratea Azkarraga (Elizondo, 1969). «Gastuak irabaziak baino aise handiagoak» direla dio, eta «luzera begira» gaur egungo baldintzetan irautea «ezinezkoa» ikusten du. Historikoki Erronkari eta Idiazabal jatorri izendapenek izan

duten balioa azken urteotan galtzen ari dela gaineratu du, eta supermerkatu handiek egiten duten «kalteaz eta minaz» ere aritu da. Baserritarrak, «ikaratuak», eskaintzen dietena onartzen ari direla argitu du eta bere hitzetan, «hori ez da bidea». Horregatik egin du «elkarrekin borrokatzeko» deia, konbentzitu baitago «lana eginez, lehenbiziko sektoreak etorkizun ona izaten ahal duela». Ardiekin

eta zerriekin aritzen da lanean eta Erronkari Jatorri Izendapeneko presidentea da Sarratea. **Berriki EHNE sindikatuak ardi latxaren sektorea krisian dagoela ohartarazi du. Nola ikusten duzu?** Momentu honetan, egoera latza da. Lehenagotik ez genuen espantu gogorrik, baina hondarrek bizpahiru urteotan nahasmen handia izan da: Covid-19a dela, Ukrainako gerra dela, espekulazioa esajeratu

dela, joan den urteko idortea dela... Horien guztien ondorioak orain sumatzen ari gara.

**Ardi gaztaren ekoizpenaren kasuan, nola dago sektorea?**

Oraindik ez dugu aurtengo daturik, baina produkzioa pitta bat beheitituko dela ikusten da. Urte hasmentan, kontratuak sinatzen ditugularik, esnearen prezioak gorakada handia izan zuen, baina gastuak oraino aise handiagoak dira, eta ez gara ailegatzeko gastuak estaltzera.

**Erronkari eta Idiazabal jatorri izendapenak hagitz preziatuak dira. Errentagarri izateko nahikoa da?**

Aunitz urtez sor-marka horiek lagundu digute; jatorri izendapenik ez dutenen aldean, gure esnea, gure gasna eta gure lana gehiago baloratu izan dira. Baina hondarrek urteotan balio hori galtzen ari da. Lehen gerra artzainen eta industriaren artean izaten genuen, baina orain supermerkatu haundi horiek sartu dira tartean eta min handia egiten ari dira. Gure markak saltzen dituzte, bertako —>



2021ean Karlos III.a Noblearen Gurutzea eman zioten Lorenzo Sarrateari. Irudian Maria Txibite Nafarroako presidenterekin ageri da.

—> produktuak, baina kapaz dira bertze tokietan baino merkeago saltzeko. Mezu hori ematen dute eta gure produktuaren balioa gutitzen ari da. Gure bizkar ari dira.

**Supermerkatu handiak aipatu dituzu. Batetik bertzeraz gasna kiloaren prezioan dauden aldeak ere agerian utzi ditu EHNEk...**

Bai, lehenago batetik bertzeraz zegoen aldea ez zen hainbertzekoa izaten, baina orain bai. EHNEk prezioak konparatu zituenean, Mercadon gasna kiloa 17,68 eurotan zegoen; Eroskin kiloa 23,49 eurotan, Alcampon 23,81 eurotan eta Corte Inglesen 33 eurotan. Gaur egun 23 euroko prezioa izanen litzateke errealean, 33koa ere ez baita hala. Horrek esnea gehiago ordaintzerakoan eraginen balu... Baina ez da hala. Garbi dagoena da egungo gastuekin 17 euroko prezioa izatea ezinezkoa dela. Mercadonak prezio horretan saltzen badu, marjinarekin jokatzeko ari da, baita industria ere. Beti irabaziaz egiteko marjinarik gabe gelditzen garenak baserriarrak gara. Beheititik goiti hasi beharko genuke, prezioak gure emanez. Baina aldrebes egiten da, goitik beheiti. Gauregun, baserriarrak dugu boteretik ttikiena, dena gure ordaintzen dugu.

**Ardi esnearen ekoizpenaren kasuan, zein da egoera?**

Supermerkatu handien politika horiek denoi egiten digu kalte, baina ardi esnearekin ari garenon egoera okerragoa dela erranen nuke.

**Hortaz, egoera larrian zaudete?**

Bai, denetarik izanen da, baina momentu honetan egoera larria da. Handik eta hemendik kolpeak hartzen ari gara. Administrazioak gero eta exijentzia gehiago paratzen dizkigu, eta gure artean aunitz zabaltzen ditugun mezuek ere kalte egiten digute: «Bildotsa ez da jaten eta ez da salduko», «Gasna ez da saltzen»... Horrekin batera, baserriarrak betitik izan dugun lanerako manera edo mendiak zaintzeko manera zalantzan paratu dituzte. Urteetan egin ditugun gauza aunitz gaizki egiten ari garela aditzen ari gara; animalien kontrako tratua txarra dela, ote bati ezin surik eman... Halakoek kalte handia egiten digute. Gehiago ere erranen dut. Halako mezuek elkartu eta

**«GURE PRODUKTUAREN BALIOA GUTITZEN ARI DA»**

elkarrekin indarra egiteko balio behar ligukete, baina aldrebes gertatzen ari da. Gero eta gehiago ari gara bakoitza bere alde- ra, bakoitza bere etxean, bakoitza bere arazoekin.

**Gastuen garestitzea eta esnearen prezio baxua. Ez da nobedadea...**

Ez, eta esnari buruz ari gara, baina bildotsaz ez dugu atzenu behar. Azken 40 urteotan arras guti goratu da bildotsaren prezioa. Esnea, berriz, goratu da, baina gastuen portzentajea aise altuagoa da eta hori da arazoa. Hiru urteotan % 18 igo da esnearen prezioa, eta lau urtez ardiaren pentsua ia-ia bikoiztu egin da, eta bazka bertze hainbertze. Gutako aunitzek belarra etxean biltzen dugu, baina joan den urteko idortearen ondorioz, erosi behar izan genuen. Merkatura joan ginenean ohartu ginen aunitz kasuetan ez zegoela erosteko belarrak eta zegoena izugarri garesti zegoela. Pentsuaren eta belarraren gastuei, argindarrarena, erregaia-rena... gehitu behar zaizkio.

**Ekoizpen gastuak estaltzeko eta soldata duina izateko zenbatean egon beharko luke esne litroak?**

Badira azterketak eginak, Nafarroan INTIAk eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Behatokiak egin ditu eta kalkuluen arabera, esne litroak 1,60 eurotan behar

luke. Aurten % 15eko igoera izan dugu, baina hala ere, batezbestekoa ez dut uste 1,25 eurora ailegatu denik. Eta hori batezbestekoa da, alegia, badira merkeago saltzen ari direnak. **Supermerkatuetan esnea bezeroak erakartzeko amu gisa erabiltzen dutela maiz aditu dugu eta horretarako marka zuriko markak merkaturatzen dituztela. Zer diozu?** Marka zuria ateratzen badute, eta bertako arrazekin eta bertako baserrietatik ateratakoa dela erraten badute, ondorioa bistakoa da. Esnea amu gisa erabiltzen dute, bai. Supermerkatuetan elikagaiekin halako eskaintzak egitea debekatu behar lukete.

**Zein da aterabidea zure ustez?**

Beti pentsatu izan dut, eta oraino ere hala pentsatzen segitzen dut, soluzioaren zati bat gure esku dagoela. Behar-beharrezkoa da denak elkartzea eta elkarrekin borrokatzea. Hondarreko urte hauetan bakoitzak nahiko lan dugu gure etxean, gero eta lan gehiago eta asti gutiago dugu etxetik ateratzeko, eta borroka bertzeengan uzten dugu. Hori ez da bidea. Badakigu zer nahi dugun eta hori lortzeko borroka egin behar dugu. Kalitatezko produktuak ekoizten ditugu eta horrek balio erreala izan behar luke. Azken urteotan NPB dirulaguntzarekin petatxuz betetzen ari dira, baina zirrika horrek badi- tu nahiko petatxu dagoeneko. Gure produktuari balioa emateko gure borrokatu behar dugu. **Ekoi-zeleen borroka gain, kontsumitzaileak eta administrazioak ere zeregina izanen du, ez?**

Bai, dena soka bat da. Herri batek izaten ahal duen gauzarik hoberena elikadura subiranotasuna da, bertan jan behar duguna bertan ekoiztua izatea. Aunitzetan hemengo baserri- tarrok jatekoa ekoizten dugula atzentean zaigu. Jatekorik ez dagoen tokietan miseria ederra ikusten da, eta ez dakit ohar- tzen garen zer gertatzen ahal den hemen ez badugu ekoizten eta dena kanpotik ekarri behar baldin badugu.

## Elikagai katea ekoizlearengandik bezeroarenganako hornidura katean gehiegikeriarik ez egiteko onartu zuten. Betetzen da?

Lege hori kate hori betetzen ez zelako atera zuten, sindikatuek egindako presioaren ondorioz. Legea hor dago, baina zailtasun handiak ditu. Gehiegikeriaren bat baldin badago, salaketa zuk paratu behar duzu, zuk aurkeztu behar duzu salatzaile... Eta ez da erraza. Eta isunak onartzen dituzte, baina 3.000 euroko isuna niri paratzea izugarria da, baina supermerkatu handi horientzat deus guti da. Gainera, ofizioz, badakit ez direla konplitzen. Eta gehiago ere bai; lege hori zorrotz betearazten hasiko balira, sistema hau kolokan geldituko litzateke. Ekoizleok Europatik heldu diren NPB dirulaguntzak ditugu, eta gehienetan gastuak horiekin estaltzen ditugu. Gauza guztiek kostatzen denaren balore erreala izanzen balute, egoera bertzelakoa izanen litzateke. Baina ez da horrela eta pittaka-pittaka jatekoa devaluatzen joan da. Gaur egun, balio duenaren eta balio behariko lukeenaren arteko aldea izugarria da, eta zaila da bat-batean golpetik hori aldatzea.

## EHNEk salatu zuenez, gaur egun bertakoa baino garestiago ordaintzen omen da kanpoko arrazen esnea; adibidez, latxarena baino garestiago. Zer gertatu da?

Bai. Historikoki jatorri izendapenetik kanpo zegoen esnea % 20 bat merkeagoa izan da, baina orain, eta kasu batzuetan, izendapenetik ez dutenen truke gehiago ordaintzen da. Gaztela da bidea markatzen duena. Idortearen eta eritasun baten ondorioz, esnearen produkzioa beheititu egin da, baina esnea behar da eta industria handiak, bai ala bai, ordaintzeko prest daude. Orain dela lau urte, gaur egun ordaintzen duten prezioa ordaintzea ezinezkoa zela erraten zuten, baina orain prest daude, ez baitute esnerik. Lehen goan Mantxako Jatorri Izendapeneko esne litroa 2,40 euro ordaintzera ailegatu direla aditu nuen. Eta zer gertatu da he-



2019tik Erronkariko Jatorri Izendapeneko presidentea da Sarratea. ERRONKARIKO GAZTA

men? Hemen ere ez dago esne aunitzik, baina balioa ikaragarri galdu du. Gainera, beti mezu ezkorrekin ari gara, esnea goratzen bada gasna ez dela salduko eta... Denak ikaratuak. Bertze tokietan esnearen prezioa goititzeko marjina baldin bada hemen zertako ez?

## Baserritarrak ikaratuak daudela erran duzu. Dagoen eskaintza onartzen dutela erranen zenuke?

Bai, bai. % 90ek eskaintzen ditena onartzen dute. Barnetik haserre egonen gara, baina kontratua sinatuko dugu. Hori penagarria da. Gure amek eta aitek, gure amaxiek eta aitaxiek gaitasun handia zuten beraiek ekoizten zuten produktuaren alde borrokatzeko, eta guk gaitasun hori galdu dugu.

## Bertako arraza babesteko apusturik egiten da?

Bai, dirulaguntza batzuk hartzen ditugu. Baina ohartu behar dugu bertako arrazak, kasu honetan, ardi latxak, artzainak baldin bagara iraunen duela. Alegia, artzainak desagertzen bagara, bertako arraza bat galtzeko arriskuan egoten ahal da. Eta ez hori bakarrik. Baserri batek jarduera ekonomikoa sortzen du, eta ingurunea ere lantzen du. Gure mendiak ez daude beraien gisa horrela, baserriak bizirik daudelako ditugu hala-

ko mendiak. Beraz, ez dago arraza bakarrik arriskuan.

## Abeltzaintza estentsiboaren edo intentsiboaren aldekoa da joera?

Administrazioak eta enpresek estentsiboaren aldeko mezua zabaltzen dute, baina egiatan eredu intentsiboa ikusten da. Ardiak mendian ageri diren irudia saltzen dute, baina zenbat eta gehiago ekoiztu prezio hobekak lortuko dituzte eta hori gertatzen ari da. Ardiak mendian ibilita, ezin da ukuilu intentsibo batean adina produzitu. Lehen artzain bat borzpasei hilabetez aritzen zen lanean, eta gainerakoan ardiak mendian edukiko zituen. Urtetik urtera jarduera hori luzatzen ari da, urte osoan etxean lanean ari behar izateraino.

## Nola ikusten duzu etorkizuna?

Bistan da artzainak behar ditugula, eta industria ere behar dugula. Baina industria horrek bertako jendearena eta bertako kapitalarekin egindakoa behar luke, tiki aunitzekin osatua. Kanpotik etortzen direlarik

## «GUREARI BALIOA EMATEKO GUK BORROKATU BEHAR DUGU»

ematen du ikaragarria emanen digutela, eta ez da hala. Erabakiak urrundik hartzen dituzte, hemengo errealitatea ikusi gabe. **Gaur egungo baldintzetan irautea posible izanen da?**

Luzera begira ez. Edozein lan hitzarmenetan soldata eta lan baldintza duinak eskatzen dira, eta gu biak galtzen ari gara. Eta pena da, oraindik afizio handia duen jende gaztea badelako.

## Gazteen aldetik bada segidarik?

Baztanen, adibidez, baditugu gazte batzuk; ez behar adina, baina badira. Hala ere, gaur egungo lan baldintzekin ezin ditugu utzi, ezin ditugu urte osoan ukuilu barnean lanean utzi, gainera, soldata doi-doi irabaziz. Aspertuta utziko dute. Lan honetan segitu nahi duten gazteak ikusita, lan baldintzak hobetzen lagundu behar diegu.

## Azken datuen arabera, sektore honetan Nafarroan batez besteko adina 50 urte da...

Lehenbiziko sektorean gehienak adin handikoak dira, eta hamar urteren buruan beherakada handia izanzen dugu ez bada gazte gehiago sartzen. Orduan ikusiko dugu egiatan nola dagoen sektorea.

## Kontsumitzaileei zer eskatuko zenieke?

Batzuetan iruditzen zaigu bertakoa garestiagoa dela, baina bertakoa kontsumitzen dugularik, kontsumitzaileek gain, gure eskualdeak bizirik segitzeko inbertsio bat egiten ari gara. Nik zuri erosten badizut, zuk niri ere erosten ahal didazu. Erosketak egitera kanpora joaten banaiz, zu ere kanpora joanen zara. Zirkulu bat da.

## Eta administrazioari?

Beti arazoei petatxuak paratzen ari gara, baina arazoari behar bezala heldu behar zaio. Beti erraten dut aunitz lege ez direla gu babesteko. Baina guk ere badugu zer egina. Elkartu eta mezu bakarrarekin aitzinera egitea falta zaigu. Lana, etxean eta kanpoan, eginez gero, lehenbiziko sektoreak etorkizun ona izaten ahal du. Elkartu eta borrokatzeko gaitasuna berreskuratu behar dugu.

## 'Bidaiak' ikuskizuna irailaren 23an herrian

Emanaldia 20:00etan izanen da Toki Ona kiroldegian eta sarrera aitzinetik erosi beharko da

### A. LARRETXXEA

Oholtzan 200 artista baino gehiago bilduko ditu irailaren 23an Beran eginen duten *Bidaiak* ikuskizunak. René Zugarramurdi artistak zuzendu du eta aitzinetik Hondarribian, Hendaian eta Baionan eman dute.

Lana 5 zatitan banatuta dago, eta horietan euskal lurraldearekin lotutako aldi historiko garrantzitsuenak erakusten dira, historiaurretik gaur egunera arteko gertaerak barne hartuz. Lana osatzen duten testuak latinez, gaztelaniaz,

frantsesez eta euskaraz idatzita daude.

Hendaiko orkestra da musikaren arduraduna eta horiekin batera sei abesbatzek hartuko dute parte, tartean eskualdeko abeslariak osatzen dute Giltzarrik. Berako Labiaga ikastolako ikasle batzuk ere hartuko dute parte emanaldian.

Toki Ona kiroldegian izanen da ikuskizuna 20:00etan eta sarrerak aitzinetik erosi beharko dira, herriko Agara Prentsan, Lesakako Telletxea estankotan edota [www.entradium.com](http://www.entradium.com) web orrian.

## Giro ederra izan dute Agerrako bestetan

Abuztuko azken asteburuan ospatu zituzten Agerrako bestak. Urtero bezala ekitaldiz beteriko bestak izan dira: danborrada, musika, erraldoiak, dantza, lasterketa, auzotarren otorduak... Giro ederrean ospatu dituzte auzoko bestak.



UTZITAKOA

## Baztango mutil dantzak ikasteko ikastaroa irailaren 17an

### A. LARRETXXEA

Cultur-Izan tradiziozko arte adierazpenen programaren barrenean, Baztango mutil dantzak ikasteko tailerra izanen da irailaren 17an, igandea. Nafarroako Dantzarien Biltzarreko kide batek emanen du ikastaroa, eta egun guzkoa izanen

da. Goizean, 09:30ean hasi eta 14:00ak arte elkartuko dira, eta arratsaldean, 16:00etan hasi eta 18:50ak arte. Ondotik, 19:00etan erakustaldia eginen dute. Bai ikastaroa eta bai erakustaldia Eztegara frontoian izanen dira. Ikastaroa doan izanen da baina aitzinetik izena eman behar da.

## Illekuetako bestak ospatuko dituzte irailaren 16an eta 17an

### A. LARRETXXEA

Heldu den asteburuan besta giroa izanen dute Illekuetan. Larunbatean 12:00etan Konpaneko zubitik suzuria botako dute eta kalejira eginen dute buruhandiekin, erraldoiekin eta gaiteroekin. 13:00etan herri kirol saioa izanen da, eta buka-

tzean, 14:30ean auzotarren bazkaria izanen dute. Arratsaldean ere zer egina izanen da. 16:30ean haurrentzako jokoak izanen dira: toka, apoaren jokoak... 18:00etan mus txapelketa izanen da, 19:00etan Bera Kantarikoen saioa, 20:30ean zezensuzkoa eta 21:00etan ha-



Erraldoiak kalejiran iaz. TTPI-TTAPA

sita dantzaldia DJ Elepuntorekin.

Igandean, 12:00etan auzoko meza izanen dute eta 12:30ean Pontx pailazoaren emanaldia. 16:00etan haurrentzako jokoak izanen dira, 19:00etan Gure Txokoa Dantza Taldearen ikuskizuna, eta 20:30ean, pintxo dastaketa. Pintxo dastaketan parte hartu nahi dutenek 20:00ak baino lehen utzi beharko dituzte pintxoak txosnan.

**ANTZUZELAI**  
S.L.

BERA - T. 948 63 13 17  
[info@antzuzelai.com](mailto:info@antzuzelai.com)  
[www.antzuzelai.com](http://www.antzuzelai.com)

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

629 449 602

**BIDASOA**  
GURPILAK · GANDIENDEGIAK  
1000 001114

609 446 693 - 948 625 663  
[nbidasoa@gmail.com](mailto:nbidasoa@gmail.com)

**GASOLIOA ETXERA**  
eranstzen dugu

Gurpil eskaintza bereziki  
24h-ko esizentziak arretpelekan  
IAF erreteko zerbitzuak dehaiekin  
Gandiendegiak 24h irekita

Zako sarrerak BIDASOA sarearekin eragotzen dituztenak. Iratzeak

Alkaga Industrialdia  
Zubi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)

Neaen-Eskirez Industrialdia  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak

© 948 630 763 · Alizate, 17 · BERA



Abuztu erdialdean ireki zuten txakurrentzako parkea. UTZITAKOA

# Zakurrentzako parkea egin dute Iturlandetan

Txakurrak lotuta egon beharko dute eremuan eta nagusiek kakak bildu beharko dituzte

## TTIPI-TTAPA

Abuztu erdialdetik aitzinera erabilgarri dago Berako Udalak zakurrentzako sortutako parke berria. Kantonttikiko garbitokiaren ondoko zelaian dago, Zia errekaaren ondoan, Iturlandetan. Udalak azaldu duenez, «eremu publikoan dagoen zelai horretan, betidanik izan da zakurrekin ibiltzeko ohitura, eta toki bera aprobetxatu dugu parkea egiteko».

Eraikitze lanetan zela, maiztze uholdeetan kalte larriak izan ziren inguru horretan, eta Kattonttikiko garbitokia

buxatua gelditu zen. Garbitokiko ur huste sistema osoa berritu behar izan dute eta hodi berri bat justu zakur parketik pasa behar izan dute. Hala ere, lanak bukatu dituzte, garbitokia hutsik dago eta zakur parkea erabilgarri.

Parkea erabiltzeko ondoko arau hauek bete behar dira: kakarik gabeko espazio bat da, hau da, zakur kakak bildu behar dira; parketik kanpo zakurrek lotuta egon beharko dute eta jarrera oldarkorra duen edozein zakur berehala kontrolatu eta lotu beharko du haren arduradunak.



TTIPI-TTAPA

## Giro ederra, baina, euritsua bestetan

Goldatzek botatako txupinarekin hasi, eta txosnetako *Gaixoak ni* kantatuz bukatu dira aurtengo herriko bestak. Tartean, eguraldiak ohi baino presentzia handiago izan du, ekitaldi bat baino gehiago zapuztu dituelako euriak. Hala ere, giro ederra izan da nagusi. Heldu den urtean gehiago!

**ONUR**  
REFLEXOLOGIA  
Bera

Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa prestatzen ditu

Gorputzaren funtzionamendu egokiaz laguntzen ditu

Immunitate-sistema sendotzen du

Odol-zirkulazioa aktibatzen du

Artsietate gutxiarazten du

Estresa hobetzen du

☎ 94 63384988  
📍 Oñur  
✉ onur@yahoo.com

Ansonera

ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruñ plaza, 1 BERA

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zelaiñ Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

## Haur elebidunen hizkuntza-garapena hizpide izanen dute

Euskal Herriko Unibertsitateak emanen du udako ikastaroa Harriondoan irailaren 15ean eta 16an

### AITOR AROTZENA

Euskal Herriko Unibertsitateak, Uda Ikastaroen barne, *Hizkuntza-garapen ez-tipikoa haur elebidunengan: diagnostia eta esku-hartzea* izeneko ikastaroa eskainiko du irailaren 15ean eta 16an Harriondoa Kultur Etxean. Izena eman daiteke [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webgunean.

Osasunbideko Belen Compains Beaumont eta EHUko Elebilabeko Letren Fakultateko Mari Jose Ezeizabarrena Segurola dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza departamentuak homologatutako ikastaroaren zuzendariak. Uda Ikastaroa ekitaldi ireki eta zabala da, eta irakasleak, orientatzaileak, logopedak, psikologoak, medikuak, terapeutak, ikasleak eta familiak izan daitezke ikastaroaren hartzaileak. Ikastaroa bilgunea da, gainera, haurren hizkuntza garapenarekin eta hizkuntza nahasmenduekin jakinmina dutenentzat, maila pertsonalean zein profesionalean, nahasmenduak eragin-

dako arazoei erantzuten esperientzia duten pertsonen artean. Ikastaroaren helburua hizkuntza-arazoan inguruko elkarrizketa eta hausnarketarako gunea sortzea da, ekimen eta ekintzak abiaraziko dituztenak hizkuntza-arazoak dituzten haurrei zailtasunei aurre egiten lagunduko dietenak.

Ikastaroa Lesakan egingen da, euskara erdara batekin (gaztelania edota frantsesa) ukipenean dagoen hiru lurralde euskaldun elebidunen erdigunean. Testuinguru honetan, hizlariei beren aurkeztuak elebitasunera eta euskarara edo bertzelako hizkuntza gutxitu batekiko elebitasunera hurbiltzea eskatzen zaie, izan ere, horrelako gaiak aintzat hartzen dituen ikerketa ez baita ugariegia. Horrexek egiten ditu uda ikastaro hau bezalako ekitaldiak garrantzizko, izan ere, eskarmentudun profesionalen esperientziak jasotzea eta partekatzea bultzatzen baitituzte, hizkuntza arazoak dituzten haurren eta familien egoera eraman errazagoa egiten lagunduko dutenak.

## Erraldioen 75. urteurrenaren harira egitarau zabala prest dute astebururako

### A. AROTZENA

Isabel eta Fernando erraldoiak herrira ekarri zituztela 75 urte bete direla eta, asteburu honetarako ekitaldiz betetako ospakizun egitaraua prestatu du erraldoi konpartsak.

**Irailaren 8an**, ortziralean 16:30etik 19:30era puzgarriak izanen dituzte Harriondoa kultur etxeko atarian eta merienda ere emanen dute. Orduetegi berean, argazki erakusketa eta *El peso justo* jokoa izanen da helduentzat.

Egun handia **irailaren 9a** izanen da. Larunbatean

09:00etan meza izanen dute, «baina erraldoirik gabe, udalak ez baitu baimenik eman», konpartsak kideek jakinarazi dutenez. 09:30ean gonbidatutako konpartsei harrera egingen zaie Harriondoan, 11:00etan konpartsen kalejira hasiko da. 13:30ean Baztan-Bidasoko erraldioen topaketa plazan: 19 erraldoi, 18 musikari eta txarangarekin, 14:30ean herri bazkaria jubilatuen elkartean eta 18:00etatik 21:00etara Endara DJ plazan eta, bukatzeko, 21:00etan zenezuzkoa aterako da.



BETI GAZTE

## Beti Gazteko irakurle taldea Bertizen

Beti Gazteko irakurle taldea Bertizko natur parkean izan zen abuztuaren 24ko egun sargorian, Andoni Esparzak gidatutako bisitan. Beti Gazte kantari taldea, bere aldetik, Berako Agerra auzoko bestetan atera zen kantuan. Batzuk zein bertzeek egun ederrak pasa zituzten.

**EDERKI** tailerra

**CITRÖEN** ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

**LIDERA**

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrumubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | [lidera@hortzklínika.es](mailto:lidera@hortzklínika.es)  
@liderahortzklínika

ISO 9001:2015  
DentalQuality  
Certificado de Gestión de Calidad

**MARITX**

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA



# Sustrails Open Enduro lehen proba herrian egingen dute

Irailaren 23 eta 24an egingen den Bizibide Enduro BTT probaren ondotik Igantzin eta Basaburuan jokatuko dira bertze biak

## AITOR AROTZENA

Irailaren eta urriaren Sustrails Open Enduro BTT txapelketa jokatu da, hiru asteburuko bizikletentzako enduro txapelketa. Lehenengo jardunaldia Lesakako Bizibide BTT zentroan egingen da irailaren 23an eta 24an; bigarrena, urriaren 7an eta 8an Irrisarri Landen (Igantzi); eta hirugarrena eta azkena, urriaren 21ean eta 22an Basaburua MTB zentroan. Dagoeneko, Bizibide-Lesakako lehen lasterketarako izena emateko epea zabalik dago. Interesa duten pertsonen lehen jardunaldi honetarako bakarrik eman dezakete izena edo lehia-ketako hiru asteburuak barne hartzen dituen Sustrails-en pack osoa eskuratu dezakete. Karrera bakoitzeko prezioak 45 euro (federatuak) eta 55 euro (ez federatuak) dira. Hiru lasterketako pack-a erosiz gero, prezioa 120 euro (federatuak) eta 150 euro (federatu gabeak) izanen litzateke. Izen-emateak eta ordainketa dMillenial web orriaren bidez egin daitezke. Sustrails-eko Bizibide Enduro lehen laster-

keta hau Lesakako udalak antolatu du eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du.

## Mendi bizikleta itzulua

Irailaren 17an, igandea, egingen dute Beti Gaztek antolatuko Lesakako BTT ibilaldia. Izen ematea irekia dago dagoeneko, eta aurten online bakarrik egin daiteke hilaren 15a arte. Txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran. Ibilbide motzak 23,24 kilometroko luzera eta 770 metroko desnibela ditu, eta luzeak, berriz, 37,1 kilometroko luzera eta 1.414 metroko desnibela. Proba 09:00etan hasiko da Plaza Zaharrean. Prezioari dagokionez, Beti Gazteko bazkide eta federatutako txirrindulariek 12 euro ordaindu beharko dituzte, bazkideek eta federatu gabeek 15 euro, bazkide ez direnek eta federatutakoek 17 euro eta bazkide ez direnek eta federatuta ez daudenek, 20 euro. Dorsalak egunean berean hartu beharko dira plazan 08:00etan. Bizikleta elektrikoekin parte hartzeko aukera ere izanen da.



UTZITAKOA

## Munduko txapelketako podiumean

Munduko txirrindularitza txapelketan hirugarren izan zen Luciano Mitxelena, 70 eta 74 urte artekoen mailan, abuztuaren 5ean Eskoziako Perth hirian jokatu zen 87 km-ko lasterketan. Urrezkoa eta zilarrezko dominak Frantziako Liberto Correas eta Bernard Siguenzarentzat izan ziren.



UTZITAKOA

## Agiñako ralliesprintak hogeitau urte

Agiñako ralliesprintak hogeigarren edizioa betetzeko zuen larunbatean eta horren aitzakian, *Karrera bat historian zehar* erakusketa ikusgai izan da Harriondoan. Kartelak, argazkiak, bideoak, sailkapenak eta bertzelakoak ikusgai izan ziren abuztuaren 26tik irailaren 3ra.



**instalazioak**  
**IGOGAILUAK**

PROFESIONALAK  
KALITATE-BERMEA  
IRISGARRITASUNA  
MANTENTZE LANAK

- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadur guztiak integratuak. Portal barutik sarbidea. Inpaktu eta eragotzen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskalerrak tartean integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo eragotzen gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkilariek daudenentzako egokitasun.
- 3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpuzkilariek daudenentzako pertsonentzako sarbidea egokitasun dugu. Adar egiten ditugu lanak, eragotzen minimoak sortuz.




**EZ ZAITEZTE KEZKATU!**  
gu ardurabako gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

## Urritzokietako bestak irailaren 14tik 17ra ospatuko dituzte

Heldu den ortzegun eguerdiko txupinazotik igandeko txukuntze lanetara hainbat ekitaldi izanen dituzte

### IRUNE ELIZAGOIEN

Datoren ortzegunean, **irailak 14**, Santa Krutz egunean, txupinazoarekin emanen zaie Urritzokieta auzoko beste hasiera. 12:00etan meza izanen da Santa Krutz ermitan eta ondotik auzotarrek eskainitako luntxa.

Hurrengo egunean, **irailaren 15ean**, ortziralean 17:00etan txokolatada izanen da Sainduneko zubian eta iluntzean zingar jatea.

**Irailaren 16a**, larunbata, izanen da auzoko bestetako egun nagusia. 14:00etan Asua

izanen da, arratsaldean Elizagoien ahizpen erromeria eta jokoak, 20:00etatik 22:00etara ogitartekoak, 22:00etan Etxalarko gazteen kontzertua eta egunari akabera emateko auzoko DJ-a.

### Txukuntze lanak

**Irailaren 17an**, igandearrekin bukatuko dira bestak; 12:00etan meza izanen dute Santa Krutz ermitan eta arratsaldean, auzoa beti bezala txukun-txukun eta dotore uzteko, desmuntatze eta txukuntze lanak egingen dituzte.

## Larraburua elkarteak Bilbora eskurtsioa antolatu du irailaren 9rako

### I. ELIZAGOIEN

Irailaren 9rako eskurtsioa antolatu du Larraburua elkarteak. Larunbatean 08:00etan autobusa hartu eta goizean Bilbo historikoa eta alde zaharra ezagutzeko bisita gidatua izanen da. Bazkaldu ondotik Artxandara igo edo Bakio al-

dera bisita egingen dute eguraldiaren arabera. 20:30 aldera Etxalarrera itzultzea aurreikusita dago. Izena emateko 664 38 73 43 edo 623 15 34 38 telefonoan egin behar da. Irteera guztientzat idekia bada ere, lehenetsuna bazkideek izanen dute.

## Erik Igoa Irungo XXII. Ola pilota txapelketan garaile

XXII. Ola pilota txapelketan parte hartu dute herriko sei pilotarik abuztuaren Xiker Olagarai, Urko Aranburu, Gari Zelaieta, Juel Igoa, Romeo De Caceres eta Erik Igoa. Alebin mailan, Erik Igoak Arantzako Ander Etxegararekin jokatu zuen eta txapeldun izan ziren.



Igoa eta Etxegarai txapeldun. OLA



JOSEBA OLAGARAI ETA IRUNE ELIZAGOIEN

## Giro onean pasa dira bestan

Eguraldia lagun, abuztuaren 14tik 18ra zer gozatua izan da herriko bestetan. Jende aunitz elkartu zen txupinazoan, Herri afarian, Andre Mari eguneko dantza saioan, Mariatxiak ikusten, pilota partiduetan, asuan, eta baita gainerako ekitaldietan ere. Horren adierazle goitiko argazkiak.

 **Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



**Centro Médico Bera**  
San Esteban 17, Bera

**Telefona: 610 549 507**

# Makroproiektu eolikoan kontra Azkura irteera

Irailaren 10ean, igandean eginen dute eta gure mendietako ondarea ezagutuko dute artzainen eskutik

## TTIPI-TTAPA

Igande honetarako, irailaren 10erako, Azkura mendi ibilaldia antolatu dute. Ekimen honek bihelburu nagusi izanzen ditu: batetik, Azkua mendi inguruan dagoen mota desberdinetako ondare baliotsuari balioa ematea eta, bertze aldetik, Etxalar eta eskualdeko herritarren atxikimendua lortzea Azkua proiektuaren aurka egiteko.

Honetarako, Etxalarko Azkua Bizirik taldeak, Azkua proiektuak eragiten dieten bertze herriekin (Igantzi, Arantza eta Sunbilla) batera, egitarau polit bat prestatu du.

Igandean, 08:30ean abiatuko dira Etxalarko plazatik. Ibilbidean geldialdiak eginen dituzte bertako ondarearen inguruan azalpenak jasotzeko herriko artzain eta natura adi-

tuen eskutik: gau-lanak, artzaintza, arbola lepatuak, mindegiak, iturriak... Kaxkora ailegatutakoan norberak eramandakoarekin gosalduta bertan ikus daitezkeen hegaztiei buruzko azalpenak emanen dituzte, baita Azkua proiektuaren aurreikuspen posible batena ere.

11:30ean *Azkua Bizirik*. *Gure inguru bizia zaindu!* ekitaldia eginen dute Azkua mendian. Azkua proiektuak eragiten dien herrien arteko grabaketak eginen dituzte airetik makroproiektu eolikoan aurkako bideoa bat sortzeko.

14:00etan bazkaria eginen dute Nabarlan. Artzainek prestatuko bazkaria izanen da, garai bateko moduan. Parte hartzeko izena eman behaz irailaren 5a baino lehen (*azkuabizirik@gmail.com*)

## Haurtzaroari buruzko bi ikastaro prestatu dituzte irailerako

### TTIPI-TTAPA

Haurtzaroari buruzko bi ikastaro antolatu ditu Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Zeregin dezakegu gure haurrek sexualitate aske eta osasuntsua izan dezaten? Galdera horri erantzuteko *Sexualitatea haurtzaroan* ikastaroa emanen dute Iratxe Arretxea eta Itsaso Baquedano sexologoek **irailaren 20an**, asteazkenean 17:00etan Lesakako Koskontako Bidea 7ko udal aretoan. Izen ematea irekia dago irailaren 15a arte

948 63 50 36 telefonoan, 634 22 36 59 whatsapp zenbakian eta *info@bortziriazkgz.eus* helbide elektronikoa.

**Irailaren 27an**, berriz, 0-6 urteko haurraren loari buruzko ikastaroa emanen du Sa-beletik Mundura elkarteak. Hilabeteko azken asteazkenean, 17:00etan izanen dute hitzordua Etxalarko Pello Apeztexea kultur etxean. Izena emateko epea irailaren 21ean bukatuko da, *hezitzailea@bortziriazkgz.eus* helbide elektronikora idatziz edo 948 535 036 telefonora deituz.



Euskal Herriko III. Disc Golf txapelketa jokatu dute Iririsarrin hilaren 23an.

## Bi disc golf txapelketa garrantzitsu jokatu dituzte irailean Iririsarri Landen

### TTIPI-TTAPA IGANTZI

Baxi Basajauna elkarteak antolatutako bi disc golf txapelketa jokatu dituzte irailean Igantziko Iririsarri Landen. Hasteko, asteburu honetan berean, irailaren 8tik 10era, European Pro Tour lehiaketarako baliagarria den EPT-X Iririsarri Land Open txapelketa jokatu dute. Irailaren 27tik 29ra Mijasen (Malaga, Espainia) jokatu den European Pro Tour All-Stars txapelketaren finalerako txartelak banatu dituzte Igantzin.

Irailaren 23an, berriz, Euskal Herriko III. Disc Golf txapelketa jokatu da. Baxi Basajauna taldeko bertz kirolarik parte hartuko dute, hiruk gizonezkoen P50 kategorian eta bertze bi gizonezkoen junior kategorian, baina irekia denez, klubetik «jende gehiago animatzea nahi genuke, emaku-

meak batez ere» adierazi dute. Segidan, irailaren 30etik urriaren 1era Oviedon (Asturias) jokatu dute Baxi Basajau-nako hiru kirolarik, tartean gaur egungo P50 kategorian Espainiako txapeldun den Iñaki Gonzalez Olaizolak.

### Disc Golf eskola

Bertzetik, Baxi Basajauna elkarteak gogorarazi du ikasturte honetan ere disc golf eskola izanen dela asteazkenean, 19:00etan Doneztebeko Intzarkardi parkean, «kirol berezi hau probatu nahi duen guztia errendako irekia». Izan ere, Igantziko Iririsarrikoa izan zen 18 saskiko Euskal Herriko lehen disc golf zelai ofiziala. Ondotik, Baxi Basajauna disc golf kluba sortu zuten 2020an, Nafarroako lehena. Bere ekimenez, Donezteben hiru saskiko disc golf zelaia ireki zuten.

## Iturburuko eta Pionbordako bideak moldatu dituzte Igantzin

### ANA ETA ITZIAR

Igantziko Udalak iturburuko bide zaharren lehen 60 metro hormigoiztatzeko lanak egin ditu, baita Pionbordara daraman bidearen 560 metro linealak ere.

Sasoi eraikuntzak enpresak egin du obra, eta proiektuaren

erredakzioa eta obren zuzendaritza Mendikoa enpresak egin du.

Igantziko Udalak 37.182,43 euroko dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gobernutik, 45.840,38 euro bere gain hartuta. Beraz, bi lanen kostua 83.022,81 eurokoa izanen da.

## Berrizaungo bestak buruilaren 16an ospatuko dituzte

Auzo bazkariaren ondotik Chuchin Ibañez eta Jesús Tapiz mariatxiak ariko dira eta mus txapelketa eta bingo izanen dute

### ANA ETA ITZIAR

Azken urteetan berreskuratu-tako Berrizaungo bestak mar-txan dira aurtengoan ere. Buruilaren 16an izanen dira eta egitarau zabalekin: 12:00etan txupinazoa eta dan-tzak 14:00etan auzo bazkaria 16:00etan Chuchin Ibañez eta Jesús Tapiz mariatxiak eta mus txapelketa. 18:00etan Jokoak. Bingo berezia 20:00etan DJ Infernu. Gauerdian Txosnan besta.

Berrizaungo egun berezi honen ondotik datoz San Migel bes-tak. Hurrengoan emanen dugu

egitararen berri. Beraz, has gaitezen motorrak berotzen!

### Mendi duatloia

Buruilaren 3an egitekoa zen IV. Mendi duatloia. Udalak Atatzikiko azken zatiko eskai-lerak zaharberritu eta zabaldu ditu San Juan Xar bidean, eta baranda bat gehitu dio, bizi-kletak bertatik errazago jais-teko. Egun horretarako pausua idekia izan dute, baina gero oinezkoentzat geldituko da. Lur eremuaren jabeak eman-dako laguntza eta erraztasunak eskertu nahi ditu Udalak.

## Igantzi Bizirik taldearen deialdia iganderako Azkuan

Igantzi Bizirik-ek, Arantza, Etxalar eta Sunbillako herrie-tako plataformekin batera buruilaren 10erako Azkuko kaxkoan bideo bat grabatu behar du. Honetarako deialdia luzatu du herritarrei zuzen-duta bertara hurbildu eta par-te hartzeko.

## Jubiloteka berriz ere martxan hasi da buruilaren 6an

Udako geldialdiaren ondotik buruilaren 6an berriz ere mar-txan hasi dira jubilatua ludo-tekarekin. Asteroko hitzordua-rekin segituko dute eta indarrak berritzeko buruilaren 2an opil jatea ere antolatu zuten. Jubi-latua den edonor animatu nahi dute parte hartzera.

## Bide Berdea egonkortzeko sei harri-lubeta

Bidasoko Bide berdea egonkortzeko sei harri-lubeta eraiki dira. Ubiria eraikuntza enpresak egin du 138.944,37 eurotan. Espainiako gobernuak 45.609,54 euro emanen du eta Nafarroako gobernuak ere lagunduko du.



ANA ETA ITZIAR



ANA ETA ITZIAR

## Bigarren proba konbinatuan txapeldun

Herriz herri txapelketan parte hartu duten herriko kirolariak bigarren proba konbinatuan, hau da, txingekin eta ingudearekin, finalerako sailkatu eta garaile suertatu ziren. Lehenbiziko urtea dutela kontutan hartuta, Iñaki Portu entrenatzaile izanik, maila ederra erakutsi dute



ANA ETA ITZIAR

## Puzgarriak igerilekuan

Urtero bezala aurtengoan ere igerilekuan puzgarriak izan ziren ttikien eta ez hain ttikien gozamenerako. Abuztuaren 16an izan zen egun berezi hau eta arratsalde osoa saltoka ibili ondotik, tenis pistan apar bestarekin eman zioten bukaera egunari.

**Jauzena**

Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com

# 71 ikaslek ortziraletan hasiko dute ikasturtea

Pelle Ttikin, berriz, sei haurrek aste honetan hasi dute ikasturtea

## NEREA ALZURI

Guztira 71 ikaslek hasiko dute ortziraletan honetan, irailaren 8an, 2023/2024 ikasturtea. Bortz ikasle izanen dira lehenbiziko aldiz eskolara joanen direnak: 3 urteko gelan hiru: Lizar Eskudero Almandoz, Xuban Ordoki Hualde eta Haritz Ugarte Almandoz; 5 urtekoen gelan eta Lehen Hezkuntzako 2. mailan ikasle bana hasiko dira.

Haur Hezkuntzako guztiak elkarrekin izanen dira, baita 1go eta 2. mailako ikasleak, 5. eta 6. mailakoak eta DBHkoak ere. 3. eta 4. mailakoak bakoitza

bere gelan izanen dira. Jantokia ere martxan izanen da

Bertzalde, institutura lau ikasle joan dira: Ekiñe Goñi Oskoz, Xabi Leiza Maeztu, Helene Alzuri Lujanbio eta Asier Mutuberria Pagola.

## Pelle Ttikin sei haur

Astehenean Pelle Ttiki haur txokokoak hasi ziren; Adei Iturria Guruchet, Aiur Urkia Scheeper, Zihara Aguilera Astibia, Intza Sorli Lizardi, Eki Amaru Etxeberria Etxabe eta Gozain Eskudero Almandoz. Ane Telletxea Igor da hezitzailea.



MIKEL LARRETXEIA ETA IGOR UGALDE

## Heldu den urtera arte aio bestei

Zaila da herriko besten laburpena irudi eta lerro guttirik biltzea, ederrak izan baitziren lau eguneko bestak eta Arantza Rock jaialdia. Hamaika urtez herriko medikua izan den Maribel Latasak eta 23 urtez erizaina izan den Bittori Aierbek bota zuten txupinazoa eta hortik aitzinera besta giroa lehertu zen.

## Makroproiektu eolikoaren kontra igandean egingen duten mendi martxarako deia

### N. ALZURI

Madrilgo Zelena Renovable S.L. enpresa pribatuak herriko lurretan zentral eolikoak egin nahi duela eta, Arantza Bizirik taldeak lanean segitzen du herria eta mendiak bizirik mantentzeko eta *Bulatxiki* betiko ez galtzeko indarrak bilduz. Igandean, irai-

laren 10ean, makroproiektu eolikoaren kontra, Etxalarko Azkua mendira mendi martxa antolatu dute eta Arantza Bizirik taldeak hara joateko deia egin die herritarrei. Arantzako, Igantziko, Malerrekako eta Etxalarko taldeak elkartuta ekitaldia egingen dute kaskoan 11:30ean.



Herritar aunitz joan ziren abuztuaren 26an Antsoainera. AINHOA LARRETXEIA

## Txapeldun Nafarroako Herriz Herri Txapelketako lehen proba konbinatuan

### N. ALZURI


Bigarren edizioa eta bigarren aldiz garaile. Herri kiroletan, Nafarroako Herriz Herri Txapelketan, lehenbiziko proba konbinatuan, irabazle izan ziren arantzarrak abuztuaren 26an Antsoainen jokatuak finalen.

Arantzako taldearekin batera, Arraioz, Sunbilla eta Berriozar aritu ziren. Kanporaketetan bezala, txokor biltzea, zakua, aizkora, lasterkaldia eta arpana uztartu zituzten taldeek eta ederki moldatu ziren. 20 minutu eta 20 segundotan bukatu zituzten lanak

eta herritarren animo faltarik ere ez zuten izan.


### Parte hartzaileak

Herriz Herri Txapelketan kirolari hauek parte hartu dute: Dani Iparragirre Iturria, Julen Oskoz Elizondo, Alberto Fagoaga Leiza, Naiara Manzano Altuna, Mikel Oteiza Almandoz, Ainhoa Etxegarai Elgorriaga, Jon Alzuri Otxoteko, Oier Larretxea Agirre, Iosu Larretxea Larralde, Alaitz Aranibar Iparragirre, Julio Lukanbio Gonzalez eta Imanol Lukanbio Larretxea. Iñaki Mikelarena Iraizoz ordezkoa izan da.



948 031 174  
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.  
Egiten ditugun lanak:  
Fabriken konponketak,  
segurtasun-sistemen  
instalazioak, telatuen eta  
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.





Jubilotekako kideak eta udal ordezkariak txupinazoan. MAIDER PETRIRENA



Dantzariak San Tiburtzio eguneko emanaldiaren ondotik. MAIDER PETRIRENA

## Jubilatuek abiatu eta denek gozatu dituzte bestak

Frantxiska Iriarte herriko adintuenak piztu zuen suziria, jubilotekako kideek izenean eta giro ederrean joan dira

### MAIDER PETRIRENA

Abuztuaren 10ean indarrez hasi ziren bestak, baserritarren eta herritarren arteko herri kirol desafioarekin. Baserritarrek irabazi zuten. Altxaferoa bota baino lehen, Amets Inda alkateak kartel lehiaketan irabazleak izan direnei sariak banatu zizkien. 14 urtez azpi-

koen irabazlea Oihan Iriarte izan zen eta 14 urtetik goitikoetan, berriz, Iraide Iriarte. Aurten Jubilotekan parte hartzen duten kideek bota zuten altxaferoa. Herriko adinduena, Frantxiska Iriarte, izan zen suziria piztu zuena.

Santiburtzio egunean dantzari, gaitero eta txistulariek,

udaleko kide eta abadeak elizarraino lagundu zituzten. Meza nagusian herriko abesbatzak kantatu zuen eta akitutakoan dantza emanaldi polita eskaini zuten.

Arratsaldean, zartagin eta aitzur jaurtiketa izan zen. Muxikoak dantzatu eta patata tortilla eta postre lehiaketa egin ziren. Patata tortilla lehiaketaren irabazlea Anita izan zen eta postre lehiaketarena Ane Etxalar.

Larunbatean herriko bost neska gaztetxok trikitixa joz goizari alaitasunez hasiera eman zioten. Goizerdian erraldoi eta buruhandiek ere saio ederra eskaini zuten. Eguerdian, guraso elkarteak antolatutik, bazkaria egin zuten

eliza atarian eta ondotik apar besta izan zuten Harbiztin. Arratsaldean pilotaz gozatze-ko aukera izan zen.

Igandeko X. Goitibehera jaitsieran Andoni Espelosin eta Beñat Iriarte izan ziren txapeldun. Peñen bazkaria ere izan zen, baita ura ura ere, txarangak alaiturik.

Astelehenean frontenis txapelketako finala jokatu zen. Txapeldunak Andoni Espelosin eta Haritz Bereau izan ziren, eta txapeldunordeak Iker Marizkurrena eta Haritz Arriola. Ondotik, Chuchin Ibañezek bere emanaldia egin zuen plazan, eta herri afaria egin zen Ulibeltzak elkartearen. Hauspolariek taldearekin agurtu zituzten bestak.



MAIDER PETRIRENA

## Larretxea omendua Latasa Sarian

Hainbat aizkora proba jokatu zituzten XX. Ramon Latasa sarian, 630 ikusleren aitzinean. Gizonezkoetan, Iker Vicentek eta Ibai Soroak osatutako bikoteak irabazi zuen txapela. Emakumezkoetan, berriz, Maika Ariztegi eta Nerea Arruti izan ziren garaile. Donato Larretxea omendu zuten.



UNAI BERTIZ

## Herriz herri txapelketan bikain

Herriz herriko txapelketako finalera sailkatzea lortu zuen herriko taldeak. Lehen konbinatuan hirugarren postua lortu zuten. Bigarren konbinatuan, ingude eta txingetan, lau herriek bortsu puntu lortu zituzten, baina Federazioaren sailkatze sistemaren arabera Sunbilla laugarren izan zen.

## Merkatariek bonuak paratu dituzte eskuragarri

Abuztuaren 28an hasi eta irailaren 30era bitartean erosten eta erabiltzen ahalko dira bonuak

### TTIPI-TTAPA

Herriko denda eta zerbitzuetan kontsumoa sustatu nahi du Doneztebeko Merkataria eta Zerbitzuen elkarteak. Erosketa bonuak sortu dituzte horretarako, eta abuztuaren 28an hasi eta irailaren 30era bitarte egonen dira eskuragarri.

Erabiltzaileek ere epe hori izanen dute bonua ibiltzeko. Pertsona bakoitzeko gehienez bi bonu erosi ahal izanen dira, eta erosketa tiket bakoitzeko gehienez 2 bonu trukatu ahal izanen dira. Gainera, bonua erosketa bakar batean trukatu beharko da osorik eta ez da dirurik itzuliko.

Bonuak Laboral Kutxaren egoitzan eta Kukuka haurrentzako arropa dendan paratuko dituzte salgai. 20 euroko balioa du bonu bakoitzak,

baina erosleak 14 euro ordaindu beharko ditu. Denera, 400 bonu paratuko dituzte salgai.

Ondorengo denda eta zerbitzu hauek hartuko dute parte promozioan, eta beraz horietan erabiltzen ahalko da bonua:

Angie English Academy, A.P Amaya Picabea, Arrate estetikazentroa, Artlepo- Onddo ta punto, Beni arrandegia, Saldias harategia, Casa Lacar etxea, Centro tecnico veterinario, Cosas de casa, Mendia farmazia, Apeztegia Berria ferreteria, Garmendi TX, Kalash bitxigileak, Kukuka haur arropa denda, Kimetz belardenda, Maite moda, Mendi-txuri, Miguelena, Olatz zapata denda, Sare akademia, Talleres Santesteban eta Ze goxo fruta denda.

### Xake txapelketa eginen dute irailaren 16an

Bigarren urtez, xake txapelketa eginen dute herrian. Irailaren 16an izanen da Casino elkartearen eta Iñigo Ostiz eta Gazte Burrenba ari dira antolatzen. 10:00etan hasiko da txapelketa eta eguerdirako bukatzea aurreikusi dute. Txapelketan parte hartzeko aitzinetik izena eman behar da 662 44 98 78 zenbakira mezu bat idatzita eta egunean berean 5 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko. Hamar minutuko partidak izanen dira, sistema suitzarra erabiltzeko baitute.

### Kopa jokatu dute Errekako senior neskek eta mutilek

Azkeneko urteetan bezala, liga hasi aitzinetik Kopa Txapelketako jardunaldiak jokatu dituzte Erreka eskubaloi taldeko neska eta mutil seniorrek.

Neskak irailaren 17an, 24an eta urriaren 1ean ariko dira kopa eta liga urriaren 8an hasiko dute. Mutilen kasuan, irailaren 10ean, 17an eta 24an ariko dira kopa eta liga urriaren 1ean hasiko dute.

Gainerako taldeen entrenamenduak irail bukaeran hasiko dira eta ordutegiak whatsapppe jakinaraziko dituzte.



UTZITAKOA

### Antselmoko iturria berri dute

1880. urtean eraikitako Antselmoko iturria berri du udan udalak. Iturria berri eta itxura berria emateaz gain, bertako ura aztertuko dute zein propietate dituen jakiteko. Doneztebetik Donamaria aldera dago iturria, Antselmo etxe parean. Iturria berritzeaz gain, bide bazterrek ere garbitu dituzte.

### Laxoa desafioa eginen dute larunbatean

Laxoa txapelketan parte hartu duten Doneztebe Avia eta Doneztebe Apeztegia taldeetako kideek nahastuta desafioa jokatu dute. Abuztuaren 26an jokatzekoa zuten, baina eguraldia dela eta, larunbatean izanen da 16:30ean Bear Zana frontoian.

### Motorzaleen desafioa heldu den asteburuan

Irailaren 15etik 17ra VIII. moto kontzentrazioa eginen dute Santa Luzia plazan Basurde elkarteak antolatuta. Ortziralean elkartuko dira, eta otorduak, irteerak, jokoak... izanen dituzte. Irailaren 8a baino lehen eman beharko da izena 45 euroren truke.

### Ainara eta Joxe bihotzean

#### OIER ZULAIKA

Abuztuan eguzkiak latz jo du Donezteben... Beroaz gain bihotzak ere erre zaizkigu. Heriotza ez dugu maite, inoiz da ongi etorria, beti uzten digu hutsune bat, joan den pertsona beti izanen dugu faltan, baina 30 eta 50 urterekin are gehiago. Ainara eta Joxe falta zaizkigu.

Ainara, gazte alaia eta saltseroa, txistularia, optikaria lanbidez eta mendizalea senez. Eta horrelaxe joan zaigu mendian zorionsu, familian eta herrian oroitzapen ederrak eta samina utzirik.

Joxeren heriotzak ere herritarrek hankaz gora utzi ditu... Hainbertze tokitan faltan botako dugu, eskoletan, erraldoietan, trapatan eta dantzetan, txistua jotzen, lagunartean eta batez ere familian.

Malerrekan arrunt maitatuak dira biak, eta Ainara eta Joxe gogoan aurrera eginen dugu, non-nahi laguntzen eta umore eta giro ona hedatzen.

Ama lurra goxo har ditzala.



Dantzariak San Agustin egunean. Asteburuan Santa Leokadian izanen da besta.

## Santa Leokadiko bestak prest dituzte asteburuan Legasan

Larunbat arratsean txupinazoa, ezkila-jotzea eta zopak izanen dituzte eta igandean meza, bazkaria eta dantzaldia

### TTIPI-TTAPA LEGASA

San Agustin bestek utzitako ondorioa pasatzeko asti handirik izan gabe, besta giroan sartuko dira asteburuan legasarrak, Santa Leokadiko baseliza inguruan, ohiko egitarauarekin. Larunbatean, hilak 9, 20:00etan botako duten txupinazoarekin hasiko dira

bestak. Ondotik ezkilak joko dituzte eta 21:00etan zopak eskainiko dituzte. Igandean, irailaren 10ean, 12:00etan meza izanen dute ermitan eta 13:00etan bazkaria izanen dute. Asteburua borobiltzeko, arratsaldean dantzaldia izanen dute Hauspolariet taldearen eskutik.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE BERTIZ

### Narbarteko bestak bikain joan dira

Bortz egunez bestak giro ederrean ospatu zituzten Narbarten. Haurrek, gazteek eta helduek, denek, izan dute gozatzeko tarte. Kirola, musika, dantza, kantua, mus eta partxis txapelketak, aurorak, kantu zaharren afaria... denetarik izan zuten egitarau oparoan.



Kirolariak eta antolatzaileak abuztuaren 28an Elgoibarren. IBON ERRAZU URIA

## Nafarroa bigarren taldeko herri kiroltako emakumezkoen II. Triatloian

### TTIPI-TTAPA ELGOIBAR

Gipuzkoako taldea (Ainitze Zumeta, Udane Ostolaza eta Nerea Arruti) nagusitu zen abuztuaren 28an Elgoibarren jokatuako emakumezkoen taldeko herri kirol triatloian bigarren edizioan. Xanta Sousa lesakarrak, Iruñeko Patricia Martinek eta Berako Nerea Sorondok osatutako Nafarroako taldea bigarren izan zen.

Maika Ariztegi iturendarra, berriz, Bizkaiko taldearekin aritu zen, Nerea Egurrola eta Karmele Gisasola *Zelai III.* arekin batera eta hirugarren izan ziren. Mintxeta taldea

(Julia Martinez, Olaia Esnaola eta Uxue Ansorregi) laugarren izan zen.

Kirolariak hiru txandatan aritu ziren txinga eramaten (dena 28 plaza 25 kiloko txingekin), harri-jasotzen (dena 34 jasoaldi 63 kiloko zilindroari, 63 kiloko kubikoari eta 50 kiloko bolari) eta aizkoran (metro bobileko hiru enbor moztu). Gipuzkoak 16 minutu eta 4 segundo behar izan zituen lana burutzeko, Nafarroak 17 minutu eta 27 segundo, Bizkaiak 18 minutu eta 34 segundo eta Mintxetak 19 minutu eta 55 segundo.



BAZTAN FT

### Baztango udalaren futbol torneo

Abuztuaren 26an jokatu zen Giltxaurdin Baztango udalaren futbol txapelketa, Baztan eta Lesakako Beti Gazteko talde nagusien artean. Baztandarrek sartutako gol bakarrak erabaki zuen partida. Gorka Urtasun, Baztango udaleko kirol zinegotziak eman zien sariak bi taldeetako kapitainei.



# Erosi BONUA eta irabazi!



## EROSKETA BONUA



 **doneztebeko merkatar**  
*eta zerbitzu* elkarte

Salgai  
400  
bonu

### Parte hartzen dute:

ANGIE ENGLISH ACADEMY  
A.P. AMAYA PICABEA  
ARRATE ESTETIKA ZENTROA  
ARTLEPO - ONDDO TA PUNTO  
BENI ARRAINDEGIA  
CARNICERÍA SALDIAS

CASA LÁCAR ETXEA  
CENTRO TÉCNICO VETERINARIO  
COSAS DE CASA  
FARMACIA MENDIA  
FERRETERIA APEZTEGUIA BERRIA  
GARMENDI TX  
KALASH JOYEROS  
KUKUKA HAUR ARROPA DENDA

KIMETZ BELARDENDA  
MAITE MODA  
MENDIXURI  
MIGUELENA  
OLATZ ZAPATA-DENDA  
SARE AKADEMIA  
TALLERES SANTESTEBAN  
ZE GOXO FRUTADENDA

- \* Pertsona bakoitzeko gehienez 2 bonu erosi ahal izanen dira.
- \* Erosketa tiket bakoitzeko gehienez 2 bonu trukatu ahal izanen dira.
- \* Bonua erosketa bakar batean trukatu beharko da osorik eta ez da dirua inolaz ere itzuliko.
- \* Bonua erosi eta gastatzeko epea: **2023ko abuztuaren 28tik irailaren 30era, biak barne.**



Comercios de Navarra  
Nafarroako dendak  
Nafarroako Gobernua lagundutako jarduketa.



Adoseko pilotari gazteak Zian. UTZITAKOA



Alberro-Landa Donostian finalista.

## Udan ere lehiakor ibili dira herriko pilotariak

Ados pilotako neskek han eta hemen partidak jokatu dituzte eta Ugaitz Elizalde Taron torneoko finalera sailkatu da

### ARKAITZ MINDEGIA

Udako oporraldian ere pilotan aritu dira herriko neska gazteak. Herriko bestetan Ados pilota taldeak antolaturiko Plazaz Plaza txapelketa baino lehenago jokatzeko aukera izan zuten. Horren ondotik hainbat herritar beraien maila erakusten aritu dira. Uztailaren 30ean Etxarrego bestetako programaren barrenean, bi herritar aritu ziren: Irati Altxu Martin eta Ane Deskarga Ariztoi, Iraide Petrirena Gorosterrazu sunbildarraren eta Etxarrego Aiora Baleztena Santestebanen aurka aritu ziren.

Abuztuaren 12an, berriz, Irurtzun ondoan dagoen Zia herrian jokaturako partidaren bertz bi herritar aritu ziren. Kasu honetan Amaiur Landa Ibañez beasaindarrarekin Janitz Irigoien Altxu aritu zen eta Etxarrego Aiora Baleztenarekin, Dunix Alberro Isasi. Bata zein bertzea partida lehiatuak eta politak izan ziren.

Baina laguntasun partidez gain, Dunix Alberrok, Amaiur Landa Ibañezekin batera, Donostiako Alde zaharreko torneoan ere parte hartu zuen. Finalurrekoetan Zizurkilgo

bikote bati irabazi zioten, partida polita jokatu. Abuztuaren 17an, berriz, final nagusian Alde zaharreko Sorondo-Rey bikotearen aurka partida lehiatua jokatu ondotik, azpitxapeldun geratu ziren.

Plazaz Plaza txapelketako partidaren aitzinetik jokatzeko gain, Zizurren antolatutako Frontball lehenengo txapelketan eta Logroño Hiria nazioarteko emakumezkoen II. pilota txapelketan parte hartuko dute pilotari gazteek.

### Ugaitz Elizalde finalista

Bertze aldetik, Garfe enpresarekin Taron torneoko finalera sailkatu da Ugaitz Elizalde, Baraibarko Ladis Galarza lagun duela. Irailaren 16an jokaturako dute finala Logroño-ko Adarraga pilotalekuan. Ugaitzek eta Ladisek aitzinean Retegi Bi eratsundarra eta Aldabe igantziarra izanen dituzte. Ziurrenik partida lehiatu eta polita ikusteko aukera izanen dute.

## Hainbat pistetan konponketa lanak burutu dituzte

2021eko abenduan euriagatik errekak gainezka egin ondotik, herriko pista batzuetan kalteak eragin zituen. Jadanik kalteak konpondu eta ederki gelditu dira Arritzulegiko urtegiko pista, Arrantzelai eta Galardiko bideak. Lanak Mikel Ubiria eskabazio enpresak egin ditu.

## Joaldunen Eguna irailaren 23an ospatuko da

Irailaren 23an izanen da aurtengoan Joaldunen eguna. Goizetik gaueko azken orduak bitarte, joare soinuez gain bestarako aukera ederra izanen da: Bazkaria, joaldunak Amezti, Lasaga eta herrian barrena, bertsolariak... Hurrengo aldizkarian xehetasun gehiago.

## Mendaur triki eta pandero eskolan matrikulazioa

Irailaren 1etik 11ra aukera izanen dute haur eta gaztetxoek Mendaur eskolako trikitixa eta pandereta ikastaroan izena emateko. Aurtizko lokaletik aparte, Sunbila, Legasa, Donamaria, Elizondo eta Arizkunen bada aukera musika tresna hauekin gozatzeko.

**Miguelena SUKALDEAK**

- Etxetresnak
- Pareta-armairuak
- Sukaide eta bainugelako altzariak

948 450 925 | 624 47 57 25

Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.com

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

## Euskara ikasleek iazko dirulaguntza eskatzeko epea irekia

Irailaren 25era arte zabalik dago epea eta, asistentziaren arabera, ikastaroaren %100 ere ordaindua izan dezakete

### TTIPI-TTAPA

2022-23 ikasturtean euskara ikasi duten ikasleendako dirulaguntza deialdia egin du Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Abuztuaren 28tik irailaren 25era aurkeztu beharko dute dokumentazioa joan den ikasturtean euskara ikasten aritu diren Malerrekako herritarrek. Matrikula gastuak diruz lagunduko dira eta laguntzaren zenbatekoa gehienez ere 440 eurokoa izanen da.

### Asistentziaren arabera

Beti ere, euskara-ikastaroan izandako asistentzia hartuko da kontuan. Honela, ikastaroko orduen % 86 eta % 100 artean egin duten ikasleei matrikula oso-osorik ordainduko zaie, % 70 eta % 85 arteko asistentzia izan dutenei

matrikularen % 75; eta % 69 baino guttiagoko asistentzia izan duten ikasleek ez dute dirulaguntzarik hartuko.

Dirulaguntza eskatu ahal izateko Malerrekako udalerriren batean erroldatua egon eta 16 urte edo gehiago izan behar da. 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinera euskaltegian matrikulatutako ikasleen kasuan, Nafarroako Gobernua-ren euskara ikasteko dirulaguntza ere eskatua behar du izan. Bertzeak bertze, euskaltegiko matrikularen ordainagiria eta asistentziari buruzko datuak biltzen dituen agiria aurkeztu beharko dira.

Informazio gehiago [www.malerreka.eus](http://www.malerreka.eus) webgunean, [euskarazerbitzua@malerreka.eus](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.eus) helbide elektronikoan edo 948 45 17 46 telefonoan eskura daiteke.



TESTUAA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

## Beintza-Labaiengo bestak bikain

Herriko bestak ospatu dituzte abuztuaren 4tik 7ra Beintza-Labaienen, eta herriko ttiki, gazte eta helduek izan dute ospakizunekin gozatzeko aukera. Otorduak, musika, herri kirolak, jokoak, mus txapelketa (argazkian)... giro ederra izan dute lau egunez.



Edorta Salvador sukaldari eta BCCko irakaslea.

## Edorta Salvador sukaldariarekin poste tailerra egingen dute Zubietan larunbatean

### FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA

Edorta Salvador sukaldariaren eta Donostiako Basque Culinary Center ikastetxe entzutetsuko irakaslearen eskutik poste tailerra antolatu du Zubietako udalak irailaren 9an, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Zubietako estalpean.

Izena emateko azkeneko eguna irailaren 7a izanen da, eta 5 euro ordaindu beharko da. Horretarako udaletxeko telefonora deitu behar da (948 45 01 61) 08:00etatik 11:00etara. Plaza kopurua mugatua izanen da, gehienez ere hamabi pertsona, eta deitu ahal beteko dira lekuak.



ADOS PILOTA

## Etxekoloneak zail dauka aurrera egitea

Ados pilota elkarrekin antolatutako III. Plazaz Plaza txapelketako lehen fasea azken txanpan da eta Naroa Elizalde Etxekolonea herritarrek zail dauka finalerdietarako sailkatzea, hau idazterakoan jokaturako bi partidak galdu baititu. Halere, maila ederrean jokatzen ari da.

### Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - [ainhoaalzuguren@gmail.com](mailto:ainhoaalzuguren@gmail.com)



Gau giroa joan den urteko bestetan. RAKEL ARIZTEGI



Ur-jokoak, duela hamabortz bat urteko bestetan. ARTXIBOKOA

## Herriko bestak irailaren 7tik 10era prestatu dituzte

Ortzegun arratsean botako dute txupinazoa eta igandean aizkora apustua eta herri bazkaria izanen dute

### TTIPI-TTAPA

Ortzegun honetan, irailaren 7an, arratsean, botako duten txupinazoarekin eta trikitilarien kalejirarekin hasiko dituzte bestak eta igandean herri bazkaria eta herri kirolak izanen dituzte. Egunero haurrendako puzgarriak izanen dira plazan.

### Irailak 7, ortzeguna

20:00etan bestei hasiera emanen dien txupinazoa eta trikitilarien kalejira. 21:00etan zopak Herriko Ostatuan. 23:00etatik aitzinera Modestorekin dantzaldia.

### Irailak 8, ortziralea

#### Ama Birjinaren Eguna

11:00etan kalejira. 11:30ean meza nagusia. 12:30ean luntxa Herriko Ostatuan. 17:30ean haurrendako jokoak eta txokolatea. 17:30ean mus txapelketa Herriko Elkartearen. Arratsaldean gauez dantzaldia Gabenaren eskutik. 22:00etan su artifiziaiak.

### Irailak 9, larunbata

09:00etan gosaria Herriko Elkartearen. 11:30ean Erreka Elkarte dantzari tikiak, «gure Joxe Irigoien gogoratuko dugu». 14:00ean gazteek antolatuta-



Aurten ere aizkolariak lehia ikusteko aukera izanen da. ARTXIBOKOA

ko bazkaria Herriko Ostatuan. Herri bazkarirako txartelak Ostatuan bertan eta elkartearen izanen dira salgai. 17:00etan bingo eta gazteek eginen dituzten jokoak. 21:30etik aitzinera patata tortilla eta postre lehiaketa. Arratsaldean gauez dantzaldia Eztitan taldearekin.

### Irailak 10, igandea

12:00etan aizkora apostua *Basozabal* eta Josean Etxeberriarekin. Aimar Galarraga harri-jasotzailearen erakus-

taldia. 14:30ean herri bazkaria. Bertsolariak: Alazne Untxalo eta Maddi Ane Txoperena. Musika: Joxe Anjelen eskutik. 20:30ean xingar pintxoak. Ondotik, Joxe Anjelekin beste bukaera emanen diete.

## PATATA TORTILLA ETA POSTRE LEHIAKETA LARUNBATEAN





Eratsungo herritarrak eta Gerna elkarteko ordezkariak. PATXI MARIEZKURRENA

## Eratsungo herriak 2.562 euroko ekarpena egin dio Gerna elkarteari

### TTIPI-TTAPA

Uztailaren 29an paella jatea egin zuten Eratsungo plazan. Herriko jendea elkartzeko hitzordu ederra izan zen, baina, horrez gain, beste helburu bat ere izan zuen: Gerna Nafarroako gaixotasun arraroen edo ezohikoen taldeari laguntzea.

Jende asko bildu zen paella jatean eta 2.562 euro bildu zituzten aipatu elkartearentzat. Patxi Mariezkurrena antolatzaileak azaldu zuenez, pozik gelditu ziren jendearen erantzunarekin eta baita Gernakoak ere. Lortutako dirua fisioterapiari inbertituko dute Gernako kideek.



JAIONE ZABALO

## Giro ederra Ezkurrako pestetan

Abuztuaren 14an, hasi eta 18an bukatu zituzten Ezkurrako pestak. Txupinazoa, jokoak, musika, batukada, aizkolariak, pilota partidak, jende asko bildu zuen herri bazkaria... Ekitaldiz betetako egunak izan ziren, eta giro ederrean pasatu zituzten.



Eratsungo peña bakarra 2017ko pestetan. ARTXIBOKOIA

## Lau egunez pestetan murgilduko da Eratsun

Ostegunean hasi eta igandean bukatuko dira Eratsungo pestak. Musika eta kirola izango dira protagonista

### TTIPI-TTAPA

Pestarako prest dira Eratsunen ere, eta helburu horrekin, lau eguneko egitaraua prestatu dute. Ostegunetik igandera, irailaren 7tik 10era ospatuko dituzte.

### Irailak 7, osteguna

20:00etan pestei hasiera emateko txupinazoa. 21:00etan afaria.

### Irailak 8, ostirala

10:00etan diana txistulariekin. 12:00etan meza. 12:45ean luntxa. 13:00 Aizkora apostua: Julen Alberdi eta Xuban Kañamares, Oihan Kañamaresen eta Ibai Soroaren kontra. 17:00etan pilota partidak: Ezkurra eta Leiza, Retegiren eta Eskuderoen kontra. Bigarren partidari Elizalde eta Santesteban, Arribillaga eta Roldanen kontra. Arratsaldean eta gauaz musika DJ Dubirekin.

### Irailak 9, larunbata

10:00etan Diana txistulariekin. 10:00etan mus txapelketa. 13:00etan emakume harri jasotzaileen erakustaldia. 14:00etan herri bazkaria. 17:00etan Los Zacatecas mariatxiak. Arratsaldean eta gauaz musika DJ Dubirekin.

### Irailak 10, igandea

10:00etan diana txistulariekin. 10:00etatik 14:00etara haurrentzako puzgarriak. 11:00 etxez etxe Agerralderekin. 12:00etan sagardo eta txistorra dastaketa. 14:00etan paella, 17:00etan pilota partidak Krespo eta Bertiz, Gomezen eta Sagarduiren kontra. Bigarren partidari Otxandorena eta Telletxea, Agestaren eta Gomezen kontra. Azken partidari Telletxea eta Urruzola, Apezetxearen eta Apezetxearen kontra. 20:00etan musika. 22:00etan su artifizialak eta pesten bukaera Agerralderekin.



## «Kantari ona izateko musika maitatu eta pazientzia behar duzu»

HARITZ SAGASETA URROZ DONAMARIAKO MUSIKARIA ETA KANTARIA

Kantari profesionala izatea du amets Donamariako gazteak eta kantu ikasketak egiten ari da Iruñeko kontserbatorioan. Gitarra ikasten ere aritu da eta irailean organu ikasketekin hasiko da

**G. PIKABEA** DONAMARIA

Musika maite du, baina «bereziki kantatzea». Ttikitatik atsegina izan du eta familiako bazkarietan euskal kantak eta mexikarrak kantatuz pasatzen zituzten momentu haiek omen dira horren jatorria. Hala dio Haritz Sagaseta Urrozek (Donamaria, 2004). Kantari profesionala izatea da bere ametsa eta poliki-poliki bere bidea osatzen ari da musika munduan. Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan kantua eta gitarra ikasiz hasi zen, eta egun, kantuarekin segitzen du. Irailean organu ikasketak hasiko ditu eta Iruñeko Katedraleko abesbatzan ere ibiltzen da.

**Zein klasetako musika gustatzen zaizu eta aditzen duzu?**

Haurra nintzenetik hainbat estilotako musika maite izan dut, baina musika ikasketak hasi nituenetik klasikoa izan da gehien erakarri nauena; Erdi Aroko musika erlijiosotik hasita, erromantizismo bukaerako konposatzaileetara. Kantaria naizenez, bereziki ahots musika gustatzen zait, baina instrumentala ere aunitz maite dut.

**Zer da musika zuretzat?**

Naturan dagoen komunikabiderik osoena eta ederrena da, pensalarik aunitzek erratan duten bezala, jaio aitzinetik bizitzaren azken unera arte laguntzen digun bakarra. Nire kasuan, sentitzen dudana hobekien adierazten dudana hizkuntza da.

**Normalean baino beranduago hasi zinen musika eskolan, 12 urterekin...**

Sei urte nituelarik Doneztebeko Agorreta Musika Eskolan sartu nahi izan nuen, baina ikasturte horretan ez zen talderik atera eta gibelera egin nuen. Solfeo ikasteak ere ez ninduen erakartzen eta 12 urtetatik aitzinera solfeorik gabe musika tresna ikasteko aukera izaten denez, hala hasi nintzen.

**Solfeo ikasketak noiz egin zenituen?**

Kontserbatoriora sartzeko asmoa nuela erran nuenean, bi urtez, bakarkako klaseak eman zizkidaten musika eskolan. Kontserbatorioko sarrera proba prestatu nuen, eta kontserbatorioan sartuta, bertze bi urtez hizkuntza musikal ikasi dut.

**Musika eskolan gitarrarekin hasi zinen. Zergatik gitarra?**

Egia erran, ez dakit seguru. Familiako bazkarien ondotik izebaren gitarrarekin jostetan aritzen nintzen eta beti erakarri nauen tresna izan da. Musika eskolan lau urtez ikasi nuen eta kontserbatorioan bi urtez.



Haritz Sagaseta Urroz kantari. BLANKA BERTIZ

**Iruñera Batxilergoa ikastera joandakoan, Pablo Sarasate Kontserbatorioan sartu eta gitarra eta kantuarekin hasi zinen...**


Bai, 2020-2021 ikasturtean hasi nintzen eta irailean laugarren mailan hasiko naiz. Gitarra joan den urtean utzi nuen.

**Zer ikasi duzu kontserbatorioan?**

Sarrera probarekin nituenerako gitarra baino nahiago nuen kantua, baina biekin sartu nintzen, gitarra musika tresna bat izanik, musikaren bertze hainbat alde lantzeko aukera izanen nuelakoan. Eta hala izan da.

**Alde handia dago musika eskolarekin eta kontserbatorioaren artean?**

Alde nabarmena sumatu nuen, bai, eta deus baino lehen ikastetxearen neurrian. Ez dute deus ikustekorik herri bateko musika eskolak eta Nafarroa osoko kontserbatorio profesionalak. Horrez gain, nik kontserbatoriora joan aitzinetik taldeko klase bakarra nuen, Musika Hizkuntza bakarkako klaseetan



hartu bainuen, eta horretan ere alde sumatu nuen. Maila aldetik, ordea, ez nuen salto handirik sentitu, ezta irakasleekiko tratuan ere. Uste dut lehen desberdintasuna nabarmenagoa izaten zela. Ikasleak gustura sentitzeko gero eta lan gehiago egiten dutela sumatzen da. Aldi berean, kontserbatorioan gero eta aukera gehiago ditugu ikasitako kanpoan erakusteko: kontzertuetan, erakundeekin elkarlanean ariz... Horrek aunitz motibatzen gaitu.

**Kantatzea ere gustukoa duzu. Musika eskolako abesbatzan hasi eta handik Elizondoko Abesbatza Ttikira joan zinen; ondotik Giltzarri abesbatzara. Egun Iruñeko Katedraleko Musika Kaperan ari zara...**

Kantatzea gustukoa dudala erratea gutti da, kantatzea maite dut. Kontserbatorioan sartu nintzen arte abesbatza horiek nire ahotsa lantzeko bide bakarrak izan ziren, eta denetan ikasi nuen. Doneztebekoan kantatzen nuen lehenbiziko aldia zen eta nire ahotsa pixka bat neurtzen lagundu zidan. Elizondoko Abesbatza Ttikian teknika pixka bat erakutsi ziguten eta musikal batean parte hartzeko aukera eman ziguten. Hor aurkitu nuen nire tokia eta horren bitartez operan lan egin nahi nuela erabaki nuen. Gero, gizonetako eragiten digun ahots aldaketa izan nuen eta helduen abesbatzan sartu nintzen. Aunitz ikasi nuen: ahotsa gehiago kontrolatzeko lan egin dut, bereziki ahots aldatuarekin, erreportorio zailagoak eta handiagoak landu ditugu, kontzertu aunitz eman ditugu, taldean kantatzen ikasten aritu gara... Esperientzia politak bizitu ditut.

**Eta Iruñeko Katedraleko Musika Kaperan zein da zure egitekoa?**

Irailean sartu nintzen, eta gutti goiti-beheiti bertze abesbatzak bezalakoa da, baina lan egiteko modua hagitik diferentea du. Gehienetan elizatan egiten ditugu emankizunak, aunitzetan elizkizunetan parte hartuz. Horrek musikak historikoki funtzionatu duen bertze modu batean lan egiten era-

kusten dizu, eta gainera katedralean kantatzeko aukera izatea zirrargarria da. Bertetik, kasu gehienetan, musika tresnekin kantatzen dugu eta horri esker aunitz ikasten ari naiz. Pixkanaka-pixkanaka bakarlaritza eratzeko aukera ere ematen didate eta ilusio handia egiten dit. Orain arte landu ez dudana errepertorioa lantzen dut, emaitza onak lortuz. Hagitz gustura sentitzen naiz taldean eta musikaren bertze arlo bat ezagutzen ari naiz.

#### **Zein da kantari onaren sekretua?**

Faktore aunitz dira, baina garrantzitsuenak pazientzia izatea eta musika maitatzea dela erranen nuke. Musika ikastea ere gustatu behar zaizu, azken finean, bizi osoa ikasten pasatuko baituzu. Kantatzen ikasterakoan gauzak barneratzea aunitz kostatzen da. Izan ere, ez dugu musika tresna ikusten eta sentsazioen, ideia irajinarioen eta aditzen dugunaren arabera joan behar duzu ikasten. Gainera, ahotsa ezin duzu denbora luzez landu, nekatu eta mintzen ahal baituzu, eta horrek ere pixka bat etsitzen gaitu abeslariak.

#### **Kontserbatorioriko kantu ikasleek hainbat emanaldi egin dituzue. Zer moduz joan dira?**

Denak hagitz ongi. Horrelako emankizunetan aunitz ikasten dugu, eta pixkanaka-pixkanaka esperientzia hartzeko baliagarriak dira. Niretako hunkigarriena Donamariako Dorretxean egin genuena izan zen. Abeslari lagunekin, nire herrian, Dorretxean, kantatzeko aukera izatea hagitz polita izan zen. Gainera, herriko eta inguruko jende aunitz etorri zen, eta horrek aunitz hunkitu ninduen. Jendea kontent gelditu zen ikusitakoarekin, eta gu ere bai erantzuna ikusita. Segur aski errepikatuko dugu.

#### **Zein da zure egunerokoa?**

Batxilergoa akitu nuenetik, musika ikasten eta horretan gozatzeko ari naiz. Alemaniera eta italiara ere ikasten ari naiz, baina horretaz aparte, denbora guztia musikaren bueltan ari naiz: klasean edo nire gisa leitzu,



Sagasetak irailaren 11n hastekoak ditu organu ikasketak. UTZITAKO ARGAZKIA

musika adituz, Interneteko artikulua ikertuz, ariketak eginez, entseatzuz, praktikatzuz...

#### **Musika sortu edo interpretatu. Zer nahiago duzu?**

Biak hagitz garrantzitsuak eta beharrezkoak dira. Historian ezin ederragoa den musika idatzi izan dute eta jenio haiek konposatutako obrak jo edo kantatzea ezinbertzekoa da. Bertetik, musika sentitzen dudana hobekien adierazten dudana bitartekoa da, aunitzetan solasean adierazi ezin ditudan ideiak musika bidez ateratzen ahal ditut, gehienetan inprobisatuta; nahiz eta musika aldetik kalitate baxua izan, espresio ariketa bat da niretako. Musika sortzea ere ikaragarria iruditzen zait, buruan duzun ideia bat soinu bihurtzea sekulako ariketa da, eta horri buruz gehiago ikasi nahiko nuke.

#### **Irailan organo ikasketak hasiko dituzue kontserbatorioan...**

Etorkizunera begira hartutako erabakia izan da. Nire ametsa kantaria izatea da, eta kantariok,

ikasten ari garelarik, normalean, tekladun musika tresna bat erabiltzen dugu. Historikoki tekladun instrumentuak garrantzi handia izan dute. Bertetik, organoa betitik gustatu zait, hamaika modutan egiten ahal du soinua eta edertasun handiko tresna da, baita historia handiko instrumentua ere. **Organo ikasketak egiteko exijentzia maila handia da?**

Sarrera proba ekainean egin nuen, eta irailean ikasketak hasiko ditut. Eta maila orain dela bi urte gitarra eta kantu ikasketak egiteko eskatzen zuten da, hau da, erdi mailako proba. Prestaketa ez zitzaidan zaila iruditu, baina proba egiteko momentua urduritasun handikoa izan zen. Pentsatu guttienez urte oso bateko lana erakusteko aukera bakarra duzula. Lehenagotik hortik pasatua nintzen, baina hala ere, urdurij jarri nintzen. Azkenean, hagitz emaitza ona lortu nuen. **Zein da musika munduan arrakasta izateko gakoa?**

Lehen erran bezala, musikarekiko maitasuna. Ordu aunitz dedikatu behar dizkiozu, eta bidean gozaten ez baduzu, eta emaitzarekin bakarrik gelditzen bazara, agudo aspertzeko arriskua dago. Gaitasun pixka bat ere behar duzu, baina argi dago duzun hori lantzen ez baduzu, musikan etorkizuna izatea hagitz zaila dela. Lana gogor egin behar da, eta aunitzetan gauzak sakrifikatu.

#### **Epe motzera eta luzera begira zein dira zure helburuak?**

Epemotzean ahalik eta hobekien prestatu nahi dut. Iruñean urte gutti batzuk gelditzen zaizkit eta ondotik atzerrira joatea gustatuko litzaidake, irakasle on bat harrapatu eta berarekin ahotsa ahalik eta hobekien landu. Epe luzera, musikatik bizi nahiko nuke, nire ametsa kantari profesionala izatea da, baina ezinezkoa bada, irakasle edo musikarekin harremana duen bertze lan batean aritzea gustatuko litzaidake.

#### **Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Espainiar Estatutik kanpo. Ez dakit seguruki non, baina Alemania aldeak aunitz erakartzen nau, hango kulturak bereziki. Konposatzaile alemaniarrek egindako musika goi mailakoa iruditzen zait.

**«LANTZEN EZ BADUZU MUSIKAN ETORKIZUNA IZATEA ZAILA DA»**

**«NIRE AMETSA KANTARI PROFESIONALA IZATEA DA»**

# Zaindu maite duzun hori...

## Zein da zuzena?

\* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

‘Lan asko egiten du horrek’ edo ‘Lan handia egin du horrek’

Asko (aunitz, anitz...) eta handia hitzek ez dute esanahi bera, kalkoz sarri nahasten badira ere. Zenbat (asko/gutxi) eta nolakoa (handi/txiki, luze/labur) galdetzaileak daude jokoan.

- Su asko bada, han eta hemen sortutako suez ari gara (zenbat su?).
- Su handia bada, aldiz, bakarraz ari gara eta su hori handia (nolako sua?) dela diogu.
- Lan asko egin d(it)u horrek = Hainbat lan egin ditu.
- Lan handia egin du horrek = Lan bakarra, handia, egin du horrek.

Horrelako ezberdintasunik ez dago, ordea, beldurra, hotza, gosea, mina, tristura eta gisakoez ari garenean, horiek ez baitute zenbat onartzen (zenbat beldur?), nolakoa baizik (nolako beldurra?); ez dute kantitatea adierazten, intentsitatea baizik. Beraz, hauek ez dira zuzenak: \*beldur asko, \*hotz asko, \*lotsa asko, \*gose asko, \*min asko... Horien partez honela belar dute: beldur handia, hotz handia, lotsa handia/ederra/gorria/galanta, gose handia, min handia...

Nolanahi ere, araua ez da hain estua kontrakoa denean: ez da ke txikia, baizik eta ke gutxi. Beraz: ke handia / ke gutxi, maitasun handia / maitasun gutxi, beldur handia / beldur gutxi, lotsa handia / lotsa gutxi, gogo handia / gogo gutxi...

## Hizki zopa

Bilatu inguruan aurkituko ditugun 15 zuhaitz:

G	E	R	E	Z	I	O	N	D	O	P	A	G	O
A	S	A	H	A	T	S	D	S	Z	F	E	T	I
B	A	K	A	Z	I	A	E	T	L	A	R	E	N
L	U	E	Z	A	H	L	I	Z	A	R	O	T	T
I	A	M	E	I	T	R	T	T	E	U	S	Z	X
N	G	A	Z	T	A	I	N	O	N	D	O	I	A
R	A	X	P	H	S	T	I	N	K	I	H	O	U
E	L	S	E	P	T	G	U	H	Z	I	Z	T	R
L	T	U	L	O	I	O	N	E	J	N	O	Z	R
O	S	M	E	M	G	R	I	H	A	G	I	N	O
R	S	A	B	U	A	E	S	Z	M	A	K	U	N
R	I	D	A	X	R	A	K	A	E	Z	R	U	D
I	T	O	T	X	A	K	A	Z	T	U	D	E	O
S	H	I	H	U	R	R	I	T	Z	E	M	A	Z

# Kalko ustelak

\*Hark erranen dizu egin behar duzuna’ edo ‘Hark erranen dizu zer egin behar duzun’?

Zehar-galderaz emateko diren perpaus batzuetan, erlatibora jotzen da, inguruko erdaren eraginez. Zenbaitetan, erran nahi duguna erran ez, eta bertze zerbait erratea ere gertatzen ahal da. Adibidez, ez dira gauza bera honako esaldi hauek: *Erradazu nahi duzuna* eta *Erradazu zer nahi duzun*.

\*Ez dakigu gertatu dena.

>Ez dakigu zer gertatu den.

\*Pentsa ezazu behar duzuna.

>Pentsa ezazu zer behar duzun.

\*Hark erranen dizu egin behar duzuna.

>Hark erranen dizu zer egin behar duzun.

## Eta zuk zer diozu?

Bidaliz zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

\* Oharra: Asmatu al zenuen 835. aldizkariko Lazkao Txikiren esaldia? Hauxe zen:

Martxa honetan laster erdaraz mintzatuko gara, euskaraz ari garelakoan.



**Ttipi Txartela**arekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

**836** zenbakiko irabazleak >



# ZOZKETAK

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
M<sup>a</sup> Angeles Torres Ondikol | ETXALAR

**Onddo ta punto - Kamiseta bat**  
Jesus Mari Jorajuria Arretxea | SUNBILLA

**Ez kexa - Kamiseta bat**  
Naroa Plaza Garmendia | AMAIUR

**BKZ Abentura - Sarrera bat**  
Angel Pombar Sainz | BERA

**WOW Park - Sarrera bat**  
Ana Mari Bengotxea Lastiri | URDAZUBI

**Mendukilo - Bi sarrera**  
Lorenxo Kerejeta Iramun | ELIZONDO

**Salting Iruñea - Bi sarrera**  
Ruben Jauregi | ORONÓZ-MUGAIRI

**Kapritxo - Motxila bat**  
Jokine Andone Urkiola Zestau | LEITZA

**Elkar - Hiru liburu**  
Beatriz Etxebeste Erasun | DONEZTEBE

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariums.com



Bi sarrera

**BUATXABAL**  
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**  
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

**IRRISARRI LAND**  
www.irisariland.com



Sarrera bat

**WOW PARK**  
www.wowpark.fr



Sarrera bat

**LA RHUNE**  
www.rhune.com



Sarrera bat

**MARTIKO**  
www.martiko.com



Lote bat

**GARBI**  
Haurte gotzaila, 19 - Leitza



Saski bat

## Sartu

[ttipi.eus/ttipe-txartela](http://ttipi.eus/ttipe-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttipe Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

## LIBURUAK

Bi liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari  
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen  
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun  
deskontuak oroitaraziz!

**txalaparta**

www.txalaparta.eus



Abuztuko irteeran parte hartu zuten mendizaleak. UTZITAKOA

## 66 bazkide elkartu dira abuztuko irteeran

Hurrengo irteera Huescako Acherito tontorrera egingen dute irailean

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 22an Baztanen egin zuten hilabeteroko mendi irteera mendizaleek. 66 lagun elkartu ziren, eta 21 graduko eguraldi freskoa eta lainoa izan zituzten bidean.

Lizarmeakatik abiatu ziren, eta Betarteko kaskoan barna, Eskosko lepora ailegatu ziren. Handik, Andregingo lepora joan ziren eta bertan egin zuten hamaiketako. Eskisaroiako lepoa, Atxuela eta Zuretako lepoa pasata kotxeetara joan ziren. Lau orduz 14 kilometro osatu zituzten mendizaleek, eta ondotik Elizondoko Men-



Eguraldi lainotua izan zuten.

di jatetxean ederki bazkaldu zuten.

Hurrengo hitzordua irailaren 19an izanen dute, Pirinioetan. 2.374 metro dituen Acherito mendia igoko dute.



UTZITAKOA

## 206 bazkide Aralarko irteeran

Uztailaren 26an Aralarrera joan ziren 206 lagun, lau autobusetan. Meza Doneztebeko parrokoak, Jose Manuel Nazabalek, zuzendu zuen. Aipagarria atautxi amatxien eguna izanda eman zuen sermoi hunkigarria. Bazkaria Gorraizen izan zuten eta eguna bukatzeko dantzaldia izan zuten Joxe Angelen eskutik.

## La Palmarako bidaiak azaroaren 17tik 24ra izanen da

### TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak La Palma (Kanariar uharteak) irteera antolatu du azaroan. Azken orduan, data aldatu behar izan dute, eta azaroaren 13tik 20a beharrean 17tik 24ra izanen da. Bidaia honetara joan nahi duenak izena eman behar du irailaren 18 eta 19an bulegora deituz. Bi zenbaki hauetara deitu daiteke: 948450878 eta 618567837.

Oinarrizko bidaiak gain, La Palman bertan hainbat irteera egiteko aukera izanen dute parte hartzaileek. Irteera ho-

riek irlan bertan daudela ku-deatuko dituzte. Egunez egun hauek dira proposatu dituzte irteerak: Bigarren egunean Santa Cruz eta inguruak bisitatzea, hirugarren egunean La Palma iparraldera eta Los Tilosera irteera, laugarren egunean Roque Muchachosera joatea ilunabarra ikustera, borzgarren egunean La Palma hegoaldera eta Mazorra joatea eta 6. egunean Aridanera eta Tajogaite sumendi berrira eta La Cumbrecitara. Irteera bakoitza bortz ordukoa izanen da.

**Zelain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziratera

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaila jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea  
www.kulturkari.com

**Enpresentzako materiala**

Txartelak, gutun-azalak,  
orriak, talonarioak,  
karpetak, zigiluak...

# IKASTURTE HASIERA 2023-2024



Errutinara gogoz  
buelatzeko  
unea

Hemen dugu ikasturte berria. Batzuentzako errutinara bueltatzeko garai aspergarria, bertzeentzako, berriz, gauza berriak bizitzeko aukera paregabea. Oporrak alde batera utzi eta klasera edo lanera bueltatzeko ordua dugu gehienok, baina horrek ez du erran nahi gauzak betiko modura egin behar dugunik.

Argi dago bakoitzak bere modura hartzen diola neurria errutinari, baina eramangarriagoa izan dadin, gure egu-

nerokoan berritasunak sartzea izan daiteke konponbidea: musika tresna berri bat jotzen hasi, aspalditik burutan duzun kirol hari aukera bat eman, ezagutzen ez duzun hizkuntza bat ikasi, zaletasun berri bat bilatu... inoiz ez da berandu gure trebetasunak hobetzeko edo ezagutzak zabaltzeko. Izan ere, ikastea onuragarria da edozein adinetarako, eta garatzen laguntzen gaitu. Zure bizitzan aldaketaren bat egin nahi baduzu, hainbat aukera ditugu eskualdean!



**Anikote**

Amazabal Kalea, 39 LEITZA  
T. 948 510 719

**Ikastaroen inguruko informazioa  
kiroldegian eskuragarri**

**IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:**

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHAZKIN IRAJINKORTASUNIK GABE.
- BAZKIDE izanda ikastaroretan sartzeko LEHENTASUNA eta prezioetan ABANTAILAK izanen dituzte.



• NURSTUDIO PILATES •

## 2023-2024 IKASTURTE HASIERA IRAILAREN 11n



Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE - NAFARROA  
M. 627 039 233 • @.nurfuejo@gmail.com

## GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA

Urriaren 2an hasiko  
da ikasturte berria!



**2023-2024**

Kirol-jarduerekin izen emateko epea:  
Irailaren 4tik aitzinera Baztanen erroldatuek.  
Irailaren 6tik aitzinera gainerakoak.

\*Izen emateak [www.giltxaurdi.eus](http://www.giltxaurdi.eus) web orriak  
egin dituzkezen.



Giltxaurdi 38, ELIZONDO | Tel. 948 45 23 01  
giltxaurdi@baztan.eus | [www.giltxaurdi.eus](http://www.giltxaurdi.eus)

# ARANTXA BLANCO

MUGARKIKO  
ZUZENDARIA

«Kirola denondako da, gustura egiten duzun jarduera aurkitzea da inportanteena»



Joan den urteko urrian ireki zituen ateak lehendabizikoz Mugarki kirol gunea Arizkunen. Lehenik rokodromoak aurkeztu zuten, eta aurtengo udaberrian, berriz, gimnasioa eta kirol jarduerak.

Gaur egun eskaintza zabala dute kirola egin nahi duten guztiendako; «gimnasioan ekintza gidatuak egiteko bi gela ditugu, *fitness* gunea, aldagelak, fisioterapia eta nutrizio kontsultategiak eta taberna. Rokodromoan, berriz, eskalada bideak, *boulder* gunea eta zeharka egiteko bideak ditugu». Zortzi lagunek osatzen dute lantaldea, «eta denon artean arduratzen gara jardueraz, entrenamenduez, harreraz, rokodromoaz...».

Normalean, «jendeak klase gidatuak egin nahi izaten ditu, indarrekoak zein aerobikoak. Batzuk lehenagotik ohituak daude kirola egitera eta bertze batzuk ez, baina denek nahi dute kirola modu gidatuan, kontrolatuan eta konpainiarekin egin».

Rokodromoak ere jendearen interesa piztu du; «harrera arrasona izan du. Eskalada modan dagoen kirola da eta eskualdean pentsatzen genuena baino jende gehiago aritzen da. Hala ere, jende aunitz hasi da kirol hau probatzen rokodromoak ireki gundenetik». Izan ere, «lehenengoz etortzen direnei monitoreek oinarriko jarraibideak ematen dizkiete eguna aprobetxatzeko, baina serioago hasi nahi dutenentako gomendagarria da kurtsoak edo bataio saioa egitea».

Honez gain, kanpamentuak eta bertzelako ekitaldiak egiten dituzte, «kiroldegitik kanpo jende gehiagorengana eta, batez ere, adin guzietara ailegatzeko. Geroz eta jende gehiagok egiten du kirola erregulartasunez eta eskualdean horretarako gune baten beharra ikusi genuen. Jendeak egiten dituen jarduerak ikusi genituen eta proposamen berriekin ostzeko sortu genuen Mugarki».



**PROMOZIOA**  
Irailaren 18tik 24ra  
abonatu gero  
**-50%** deskontua  
matrikulan  
eta 1. hilabeteko  
kuotan

  
www.lesakakoudakiroldegia.com 948 637 400  
Komentu kalea, 2 · LESAKA · kiroldegia@lesaka.eus 630 174 626

**DANTZATU  
GUREKIN  
Dantzaleben**

**Predantza  
Balleta  
Hip Hop  
Garaikidea  
Modern  
Akrobaziak  
Dancehall  
GAP  
Pilates Mat**

  
academiadedanzarebeca@gmail.com  
649 748 774



# MUGARKI

Kirola, Esperientziak eta Turismo Aktiboa

**MUGARKI** kirol gunea apustu garrantzitsua da, Baztango eta inguruko herritarrei ariketa fisikoa egiteko eta haien bizi kalitatea modu seguru eta kontrolatuan hobetzeko aukera eskaintzeko.

Joan den martxoaren 31n, MUGARKIk, rokodromoaren eskaintzaz gain, gimnasio bat eta jarduera zuzenduetarako areto bat ireki zituen. Adin guztietako pertsonak beren zerbitzuez gozatzeko aukera dute.

MUGARKI eraikinak 800 m2 ditu osasun integralerako, 300 m2ko gela bat fitness entrenamendurako, 150 m2ko gela bat zuzendutako jardueretarako, aldagelak, fisioterapia eta nutrizionista kontsultak eta, azkenik, gune sozial bat zerbait hartzera hurbildu nahi duten guztiendako irekita.

MUGARKIko abonatuak jarduera ugari egiteko aukera dute, hala nola:



## INDARRA



## KROS HIIT



## DANTZUNBA



## ZIKLO

## KARDIO-FIT



## PILATES



Eta etxeko txikienei zuzendutako bertze batzuk: **Dantzunba Txiki, Kros kids**

Zerbitzu horiekin guztiekin batera, MUGARKI taldea etengabe ari da jarduera horiei buruzko aparteko ekitaldiak pentsatzen eta garatzen.

**XAGU**  
**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(Irujan-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

**IGONE**  
LIBURU-DENDA  
PAPER-DENDA  
MARGO-DENDA  
JOSTAILU-DENDA

- 📌 Ikasturte berria hasteko ikasmaterialetan aukera zabala!
- 📌 Neurri guztietako paper termiko biribilkiak.
- 📌 Tonerrak eta tintak enkarguz.

Kanttonberri 4 - Bera - Tel.: 948 630 626  
papeleriaigone@gmail.com

**Ikasturte berrirako prest**  
Ikasturte berriarekin jendeak errutina berrartzen du, «eta jende aunitz etortzen da kurtsoen inguruan galdezka». Hori dela eta, «programazio oparoa prestatu dugu jarduerak goizez, eguerditan, arratsalde eta ilunabarrean egiteko: indarra, Kros Hit, Kardio-fit, ziklo, dantzunba, pilates eta yoga. Gainera, berritasun gisa haurrentako Kros Kids jarduera sortu dugu, astelehen arratsaldetarako». Honez gain, «rokodromoan haur, gazte eta helduendako eskalada kurtsoak ditugu».

Azaldu duenez, «errutina osasuntsua izateko konstantzia, aholkularitza ona eta batez ere egiten duzuna gustukoa izatea da inportanteena. Egiten duzun kirola gustuko ez baduzu, zaila da ohitura hartzea. Horregatik, gure jarduerak probatzera animatzen dugu jendea, praktikatu eta erosoan dauden kirola aukera dezaten. Hau elikadura on batekin osatu behar da errutina erazago hartzeko».

**12 aste Mugarki osasuntsu**  
Ohitura osasuntsu hauek sustatzeko '12 aste Mugarki osasuntsu' erronka sortu dute. «12 asteko erronka da, Vitxori Juanikotena gure nutrizionistarekin batera egiteko. Bere osasuna, egoera fisikoa edo gorputz konposizioa hobetu nahi duen edozeini zuzendua dago, lehenagotik kirola egin edo ez». Urriaren 2tik abenduaren 22ra egingen dute erronka.

Ariketa fisikoa elikadura onarekin bateratzea «funtsezkoa» denez, «erronka hasteko elkarriketa bat egiten da nutrizionistarekin, eta bilakaera ikus-teko hiru kontsulta gehiago». Gainera, «indarra eta kirol aerobikoa tartekatzen duten ariketa plana proposatzen dugu, hiru taldetan; goizekoa, arratsaldekoa eta ilunabarrekoa».

Kirola egiten hasi nahi dutenak «Mugarkira etortzera eta bere helburuak kontatzen animatu nahi ditugu. Gure aholkularitzarekin, egokitzen zaion kirola aurkitu eta jendez inguratuak errutina berria hasten ahalko dute».

**2023-2024**

**TOKI ONA UDAL KIROLDEGIA**  
**Neguko kirol programa**

**IZEN-EMATEAK**  
**Irailaren 18tik 24ra**  
**Kiroldegiko bulegoan**  
**11h - 14h / 16h - 21h**

**Etorri eta ezagutu**  
**gimnasio eraldatua!**

- Crosstraining
- GAP
- Pilates
- Gazte Fitness
- Gazte Kirola
- Zumba
- Psikomotrizitatea
- Ciclo
- 3. adinentzako gimnasia
- Entrenamendu Funtzionala
- Dantza MIX
- Multikirola

**ZURE**  
**MOMENTUA**  
**GAUR DA**

**SAS**  
**TRAKO**

**KIROL ZERBITZUAK**  
Berako Toki Ona Kiroldegia



**Tel. 948 630 215 / 662 300 763 | info@sastrakokirola.eus**

# LEIRE PORTU

## TOKI ONA KIROLDEGIA

«Errutina osasuntsua mantentzeko konstantzia da garrantzitsuena, ohitura hartzea»



Ikasturte berriari begira, presaketa lanetan ari dira Berako Toki Ona kiroldegian, «udan eskaera murrizten da baina kurtso hasieran igoera haundia dugu». Hori dela eta, eskaintza zabala dute: «helduentzako ziklo, zumba, GAP, pilates, gimnasia egokitu... gainera, material berria ekarri dugu eta crosstraininga eta entrenamendu funtzionala egiten hasiko gara».

Gainera, «aurten bereziki haur eta gaztetxoendako kirolari bultzada eman nahi diogu, ohiko kirolez gain, bertze kirolak proba ditzaten. Horregatik, Eskola kirolaz gain, Gazte kirola [10-12 urtekoentzako] eskainiko dugu kirol desberdinekin, eta Gazte fitnessekin jarraituko dugu [12-16 urtekoentzako] egokitutako entrenamendu funtzionala probatzeko gimnasioan eta bertze gelatan».

Adindunek ere badute egokitutako gimnasia egiteko aukera, «adin edo ohiturei moldatua. Hagitz talde eta giro ona sortu

dira eta aurten jarduera berriak sartzeko asmoa dugu; dantzak, mendiko bueltak... haien gustura». Izan ere, «hagitz garrantzitsua da zahartzaro aktiboa izatea, eta hemendik lan haundia egiten ahal dugu horren alde. Taldean aritu nahi ez dutenak bakarka ere etortzen ahal dira gimnasioan aritzeko, eta guk laguntza emanen diogu».

Errutina osasuntsua mantentzeko «konstantzia» da inportanteena, «hasten dena segitzea eta ohitura bat hartzea. Gustukoa duzun aktibitatea aurkitu behar duzu, eta zure egunerokotasunean sartu».

Kirola egiten hasi nahi dutenak «kiroldegira hurbiltzera animatuko nituzke, lotsarik gabe probatzera. Hainbat aukera ditugu, edozeini egokitzen ahal direnak, eta jendeak bere araberako aktibitateak egiten ditu; taldeka, banaka, monitoreen laguntzarekin... etorri eta probatu. Norberak bere mailan zerbait egiten ahal du beti».

# ENGLISH ESKOLA

## ELISA HUARTE

Bertako irakaslea

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik batxilergoko 2. mailara arte.

Eskolako laguntza.

Mendinueta, 8 Ellzondo - T. 657 707 230



# acQrn

Quality Language Learning

Ingeles, frantses, aleman eta euskara ikastaroak  
Helduentzat, gaztekoentzat eta haurrentzat  
Enpresentzat ikastaroak  
Azterketa ofizialak • Itzulpenak

- Udako ikastaroak atzerrian
- DBH edo Batxilergoa atzerrian
- Unibertsitateak atzerrian
- Boluntariotzak atzerrian

Matrikulazio epea zabalik eta plaza mugatuak

Koskontako bidea, 11 behea LESAKA  
628 19 53 22 [www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)

# eLi

Language school



Esperientzia eta berrikuntza  
elkarren eskutik

Ingeles ikastaroak

Haurrentzat 6 urtetik aurrera:  
+Jolasean ikasteko

Nerabeentzat eta helduentzat  
+ Eskolan laguntzeko  
+ Ahozko hizkuntza, entzumena, irakurmena eta idazmena lantzeko  
+ B1 eta B2ren prestakuntzarako

Leitzako errepidea, 90 Doneztebe  
INFO + Tel. 615 70 68 02

## MERTXE

KLASE PARTIKULARRAK

DBH

Matematika, Fisika eta Kimika, Ingelera

BATXILERGOA

Matematika, Fisika eta Kimika, Ingelera

LANGUIDE HEZKETA

Kontabilitatea, salerosketa, diruzaintza



### INFORMAZIO GEHIAGO:

Telefonoa:  
697 968 050

Email:  
[mertxebaylon@hotmail.com](mailto:mertxebaylon@hotmail.com)

MATEMATIKA - FISIKA - KIMIKA  
MARRAZKETA TEKNIKOAK



XULE  
AKADEMIA

DBH  
BATXILERGOA

Elixabete Lizarza Durruty



Pedro Axular, 10. Elizondo  
624 656 488  
xuleakademia@gmail.com

sare  
akademia

DBH ETA BATXILERGOA  
- MATEMATIKA  
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN

Talde txikiak eta jarraipen personalizatuenekin.  
2023-2024ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:

T. 615561458 (Norea)

Emaila: akademiasare@gmail.com

Angie  
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English  
Exam Preparation Centre

Cambridge English  
Teacher  
Member



Angie English Academy-n  
2023/24 ikasturtea prestatzen gabiltza!

Ingelesko klaseak 8 urtetik aurrerako ikasleentzat  
eta eskolako ingelesarekin laguntza eskaintzen dugu.

Oraindik ere plaza libreak  
ditugu klase batzuetan, animatu  
eta ez gelditu plazarik gabe!

T. 626 908 076 - angiacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea - 31740 DONEZTEBE

Eskolaz kanpoko  
jardueren garrantzia



Hamar ikasletatik bederatzik eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen du gaur egun: musika, kirolak, hizkuntzak, eskulanak... haurraren garapenerako berebiziko garrantzia dute. Baina noski, aktibitate bat aukeratzekoan, gaztetxoen ahotsa aditu behar da; zer gustuko duten eta zer ez ikasi, eta euren nahia errespetatu.

Eskolaz kanpoko jardueren onurak

Kirolak, hizkuntzak eta sormeneko jarduerak dira gehien aukeratzeko diren aktibitateak. Ikerketen arabera, ekintza hauek onuragarriak dira neska-mutilen garapenerako: ezagutza akademikoak, koordinazioa, malgutasuna, bizkortasuna, talde lana, autoestimua, espresatzeko gaitasuna, sor-

mena, diziplina... eta hauekin lotutako bertze hainbat balore bereganatzen dituzte. Honez gain, jarduera hauek lagungarriak dira errendimendu akademikoan, ezagutzak, energia eta arretarako ahalmena areagotzen baitute. Eta noski, haurraren trebetasun sozialak lantzeko balio dute.

Jarduera egokia aukeratzea

Aktibitatea aukeratzean, bistakoa da lehenbiziko haurrari galdetu behar zaiola, hark erabaki dezan. Ttikien kasuan, haien gustu, interes eta beharrei erreparatu behar zaie; mugitze-ko behar handia baldin badute, aukera ona izan daiteke kirolen batean izen ematea.

Hala ere, kontuan hartu behar da aktibitate hauek ikaslearen aisialdiko parte direla, eta beraz, hautazkoak izan behar dutela. Haurraren gozamenak izan behar du helburu nagusia.

Errefortzu klaseak

Eskolako errefortzu klaseak ez dira eskolaz kanpoko jarduerak. Ikastetxeko ordutegitik kanpo izan ohi dira biak, baina errefortzu klaseek eskolan ikasitakoa osatzeko balio dute, batez ere ikasleak errendimendu akademiko baxua duenean.

Hala ere, biak bat datoz helburu batean: hezigarriak dira. Ikasteko eta garatzeko espazio ezin hobea eskaintzen diote haurrari.

JOSEPHINE'S  
20 ENGLISH 13  
BILTZA

Pedro Axular, 2 Elizondo

Matrikula irekita

Lehen hezkuntza  
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen 637 176 572 josephinesenglish@gmail.com





Abuztuaren 27an Uharte Arakilen txapela jantzi zuen Alustizak. ARTZAIN EGUNA

## Antonio Alustiza nagusi izan da Uharte Arakilen

Nafarroako 21. txapela jantzi du eta Euskal Herrikora sailkatzea lortu du

### ENERITZ IRAOLA

Antonio Alustiza herritarrak historia egiten segitzen du artzain txakur lehiaketetan. Uharte Arakilen abuztuaren 27an jokatu zuten Nafarroako Artzain Txakur Lehiaketan garaile izan zen Txiki txakur-rarekin eta hirugarren postua ere eskuratu zuen Bat txaku-

rrarekin. Nafarroako 21. txapela etxeratu zuen horrela.

Nafarroakoa irabazi izanak Euskal Herriko Artzain Txakur Lehiaketarako atea ere ireki dio Alustizari, eta hori irailaren 16an izanen du Atxondoko Axpe auzoan (Bizkaia). Nafarroa ordezkatu du Uharte Arakilen bigarren egin zuenarekin.



ENERITZ IRAOLA

### Dantza ikastaroa aurten ere

Pasa den urtean izandako arrakasta ikusita, aurten ere guraso elkarteak dantza ikastaroa eskaintzea erabaki du. Iaz bezalaxe, Villabonako Oinkari dantza taldea arduratuko da eta Uxue arituko da irakasle lanetan. Hogeita bat umek eman dute izena eta bi taldetan banatuta ariko dira, asteazken arratsaldetan.



ENERITZ IRAOLA

### Giro ederrean joan dira pestak

Bost egunez luzatu zen pesta giroa, batzuentzat motz gelditu zen. Txistulariek bota zuten suziriarekin hasi zituzten festak areoarak eta kuadrillen eguneko kamisetak soinean zituztela Trikidantzekin dantzan bukatu. Tartean, bazkari, afari, jolas, solas eta dantza... giro ederrean ibili zen jendea.

### Psikomotrizitate eta pilates ikastaroak aukeran

#### E. IRAOLA

Kirol Mankomunitateak haur eta helduentzat ikastaroak antolatu ditu aurten ere. Ostegunetan, 16:30etik 17:30era, HH2 eta LH1 arteko haurrek psikomotrizitate klaseak hartzeko aukera izango dute. Helduek, berriz, pilates ikastaroa izango dute astelehen eta asteazkenean 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroak urriaren 2an hasiko dira eta maiatzaren 31n bukatu. Interesatuak 170 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko kirol mankomunitateko teknikaria udaletxean egongo da irailaren 6an, 11:00etatik 14:00etara. Egun honetatik kanpo izena eman nahi dutenek [kirolmankomunitatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com) idatzi beharko dute.

### Eskoletxeko eta osasun etxeko lanak bukatu dituzte

#### E. IRAOLA

Uda sasoia herriko eraikinetan hobekuntzak egiteko baliatu dute. Eskoletxeko lanekin bukatzeko falta ziren barandak jarri dituzte eta ikasurtea ostegun honetan, irailaren 7an, hasi aurretik prest dago dena. Bestalde, osasun etxea berritzeko lanak ere bukatu dituzte, bertan hilabete behin eskualdeko emaginak pasatzen du kontsulta.



# XVIII. Talo Eguna eta azoka ibiltaria igande honetan

10:30ean zabalduko dute azoka eta talo tailerra eta lehiaketa ere egingen dituzte, baita nekazaritzako produktuen erakusketa ere

## JUAN MARI BARRIOLA

Pesta ondorengo atsedenal-diaren ondoren, agenda betetzen hasia da gurean ere. Eta hala, igande honetan, irailaren 10ean, ongi errotua den hitzordu batek hartuko du lekukoa: Talo Egunak.

Udalak eta Plazaola Turismo Partzuergoak elkarlanean antolatuta, aurtengoa XVIII. edizioa izanen da. Pandemia tarteko, 2020an ezin izan zuten egin, baina gainerakoan, hutsik egin gabe antolatu izan dute.

Dena den, aurtengoa berezia izanen da, eta Mendialdean egiten dituzten produktuei keinu eginez, Talo Egunarekin batera, Mendialdeko Azoka Ibiltaria egingen dute igandean, udalak, Cederna Garalur elkar-teak, Plazaola Partzuergoak, Habelarte baserritarren elkar-teak, Bertatik Bertara dinamika eta Leitzeko kontsumo taldeak antolatuta.

## Talogleak, ekoizleak eta artisauek

10:30ean emanen diote Talo Egunari eta azoka ibiltariari hasiera, eta aldi honetan, Saralegi Taloak eta Saldiasoko Talogleak izanen dira gonbidatuak. Haien eskutik talo aukera eder-raz gozatzeko aukera izanen dute bisitariak, eta tartean, Kristina Saralegi zenak eta Joxe Manuel Huitzik sortutako ontziratutako taloak erosteko aukera ere izanen da.

Ordu berean irekiko dituzte azoka ibiltariko postuak eta denetariko eskaintza izanen da, bai elikagaietan baita artisaunen produktuetan ere. Tartean, herriko hainbatek ere parte hartuko dute: Saralegi Taloak,

Gorritz, Txokosfera, Soro Goikoa eta Barreneak. 14:00etan itxiko dituzte postuak.

## Tailerra, lehiaketa eta erakusketa

Taloa izanen da eguneko protagonista nagusienetako bat eta 11:00etan ttikienen txanda izanen da. Taloak nola egiten diren ikas dezaten, tailerra izanen dute. Karrapen, berriz, 10:00etatik 12:30era zabalduko dute talo lehiaketan izena emateko epea. 12:30ean lehiaketa hasiko da eta 14:00 aldera emanen dute irabazlearen berri.

Horrez gain, nekazaritzako tresnen erakusketa ere zabalduko dute.

## Jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa

Antolatzaileek jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa den ekitaldi baten aldeko apustua egin dute eta bide horretan, hainbat neurri hartuko dituzte igandean: Mugikortasun Urriko Pertsonentzako Aparkalekua Herri Aretoaren ondoan izanen da, azokatik hurbil. Horri lotuta, desgaitasuna izan eta mugikortasun urria dutenentzako autoak aparkatzeko txartela eskatuko dute. Karrapean, berriz, komun egokituak jarriko dituzte; eta entzumen desgaitasuna dutenentzako indukzio-buclea izanen da informazio puntuan. Gaian aditua denak arreta egingen die.

Azkenik, 0 zabor ekimena ere martxan jarriko dute. Edukion-tziak koloreen arabera bereziak jarriko dituzte eta «espazio garbi eta osasungarria izateko helburuarekin», horiek erabilteko deia egin dute.

## Irailaren 15ean bukatuko da Leitzulian izena emateko epea

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 30ean egingen duten Leitzulia BTT probako izen emateak ere aurrera jarraitzen du. Lerro hauek idazterakoan 180tik gora ziren 42 kilometro eta 1.400 metroko malda duen proban parte hartzeko izena emana zutenak eta

gehienez 350 lagun onartuko dituzte.

Izena emateko epea irailaren 15ean bukatuko da, lehena-gotik libre dauden plazak betetzen ez badira behintzat. 25 euro ordainduta *kirolprobak.com* atarian apuntatzen ahal da.



LEITZAKO UDALA

## Pesta jendetsuak eta parte hartzaileak

Iñaki Zabalo zinegotziaren hitzetan, pestetako «ekitaldi guztietan ikusle asko bildu zen, baina aipagarrienak pilota partida (sarrerak agortuta), Zetak taldearen kontzertua, eta plazako ekitaldiak izan ziren, bereziki 12ko dantza saioa, 160 dantzari baino gehiagok parte hartu zutelako».

## Aurrerako pilotariak eta futbolariak ohiko martxara bueltan

### TTIPI-TTAPA

Udako oporrak atzean utzita, 2023-2024 ikasturtea hasi dute pilotariak eta futbolariak. Pilotari eskolan, 59 lagunek eman dute izena eta aste honetan hasi dituzte entrenamenduak. Adinaren arabera, zortzi talde atera dituzte: benjaminaurre-

koetatik hasi eta nagusien kategoriarara arte. Futbol eskolak izan duen erantzun ona ere agerikoa da, 200 bat neska-mutil apuntatu baitira. Horiekin hamabi talde osatu dituzte, haurretatik preferenteen mailara futbol 11n eta kimuetatik beherakoak areto futboleant.



MIGUEL ANGEL GEREÑO

## Urkiola eta Jaunarena nagusi pilotan

Imanol Urkiola eta Xabi Jaunarenak irabazi dute Aurrera elkarteak antolatutako XXX. Plazako Binakako Pilota Txapelketa. Finalean Ioanes Ceballos eta Mikel Iriarte izan zituzten kontrario. Egun berean hirugarren eta laugarren posturako lehia ere jokatu zuten. Lau bikoteak ageri dira argazkian.

Arma berri zein bigarren eskukoaren salmenta

Eskopeta, errifle eta abarren konponketa

Kartutxo eta balen salmenta

Ehizarako arropa, oinetako eta osagarriak

Kirol arropa eta osagarriak



**eizmendi anaiak**  
kirolak eta armategia




Berria, 19 - 21. AMASA-VILLABONA  
Tel. 943 692 623 - 688 844 983

## Herritarren kontsumo termikoen datuak bilduz

Ostiralean bukatuko da Goiener kooperatibak prestatu duen galdetegia betetzeko epea

### TTIPI-TTAPA

Mendialdea eskualdea osatzen duten hamar udalek herritarren kontsumo termikoen datuak biltzeko bidea abiatu dute. Horretarako azterketa bat egin dezan eskatu diote Goiener kooperatibari eta honek galdetegia prestatu du. Hamar udalen artean daude Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoak.

Besteak beste, herritarrek etxebizitzetan dituzten instalazio termikoak zein diren, neguan zenbat eta noiz jartzen duten berogailua martxan, etxea berotzeko batez besteko tenperatura zenbatekoa den, urteko gastu zenbatekoa den... Halako informazioa bildu nahi dute galdetegian.

Paperean edo telematikoki ([www.goiener.com/galdetegia-mendialdea](http://www.goiener.com/galdetegia-mendialdea)) bete daiteke galdetegia eta horretarako

azken eguna ostiral hau, irailaren 8a, izanen da.

### Galdetegia betetzeko deia

Herritarrei galdetegia betetzeko deia eginez, oharra ere kaleratu du Goizueta Udalak. Idatzian adierazi duenez, «Mendialdea eskualdean uste dugu, etorkizunera begira, gure herrietan erabiltzen dugun energiaren jatorriak ahalik eta gertukoena izan behar duela. Horretarako irtenbidea izan daiteke berokuntza-sistemen erregai fosilak (gasolioa, gas naturala...) gure inguruneak eskaintzen dizkigun biomasa-erregatik ordezkatzeko eta, aldi berean, bertako ekonomia sustatzen duten proiektuak bultzatzeko». Horregatik eskatu diote azterketa Goienerri, «ordezkapen hori ebaluatu dezan».



IÑAKI ETXEBERRIA

## Goiko zentralako kurbak zabaltzeko lanak

Uztailan hasi zituzten Leitzara doan NA-4150 errepideko lanak eta abuztuaren 28ra arte itxita eduki zuten. Joan den astean ireki zuten, baina lanak ez dituzte bukatu eta kotxeak pasatzeko errei bakarria egokitu dute semaforoarekin. Udalak «adi eta zentzuz ibiltzeko» eskatu du, «oraindik lanean jarraituko baitute».

## Kantu zaharren bazkaria irailaren 16an

Txartelak 55 eurotan daude eta erosteko azken eguna irailaren 9a izanen da

### TTIPI-TTAPA

Abuztuko festak atzean utzita, berriz ere jai giroan elkartu eta ongi pasatzeko hitzordu ederra dute ate jokatzaileek. Iskibi kanpinak kantu zaharren bazkaria antolatu du irailaren 16an, larunbata. 14:00etan hasiko da.

Txartelak erosteko azken eguna larunbat hau, irailaren 9a, izanen da. 55 eurotan Amaia kafetegian, Oxeguardan asteburuan eta astegunez Iskibi kanpinean eros daitezke. Prezio horretan kantu zaharren liburuxka ere sartua da.



Angel Mariezkurrenak gidatuko du.

Angel Mariezkurrenak, Aitor Ibarrek tronpetarekin, Frantzisko Santxotena eskusoinuarekin, Aitor Mendiluze bertsolariarekin eta Menditarrak-eko kideek parte hartuko dute.



FELIX LOIARTE

### Festak giro ederrean

Abuztuaren 14ko eguerdian botatako txupinazoarekin lehertu zen festa giroa. Ez zen ekitaldi faltarik izan eta haur, gazte eta helduek izan zuten festetan gozatzeko aukera. Nola ez, Peñaren Egunarekin ezin hobeki borobildu zituzten bost eguneko festak.



Umore Onako pilotari gaztetxoak festetako partidan. FELIX LOIARTE

## 50 pilotarirekin irailaren 11n hasiko du ikasturtea Umore Ona Pilota Eskolak

### TTIPI-TTAPA

Bizi-bizirik segitzen du pilotak Goizuetan, eta horren seinale dira pilota eskolaren datuak. Denboraldi honetan 50 pilotarik eman dute izena Umore Ona Pilota Eskolan, eta ikasturtea datorren astean, irailaren 11n, hasiko dute. Ekainaren 6an bukatuko dute eta tarte horretan, entrenamenduak astelehenetik ostegunera eginen dituzte, arratsaldetan.

### Eskuz

Eskuz guztira 32 lagunek eman dute izena eta palan 18k. Eskuz,

sei neska eta 26 mutilek eman dute izena: aurrebenjaminetan neska bat eta bost mutil dira; benjaminetan lau mutil; alebinetan bederatzi mutil; infantiletan bi neska eta lau mutil; kadeteetan mutil bat; jubiniletan mutil bat eta nagusietan hiru neska eta bi mutil.

### Palan

Palan, bost neska eta hamahiru mutilek eman dute izena. Jubiniletan mutil bat izanen da eta gainerakoak nagusien kategorian; bost neska eta hamahiru mutil.



LEIRE MUTUBERRIA

## Igeriketa ikastaroan 59 haur

Guraso elkarteak antolatuta, uztailean igeriketa ikastaroa egin zuten neska-mutikoek. Taldetan banatuta, 59 neska-mutiko ibili ziren igeriketan, eta ikastaroari bukaera emateko, haurrak eta gurasoak, Iskibi kanpinean bildu ziren elkarrekin bazkaltzeko.

# Arainbururen hurrengo ateraldia Aralarra

Irailaren 16an Albi-Igaratza-Amezketan ibilbidea antolatu du Arainburu Mendi Taldeak eta izena emateko azken eguna irailaren 14a izanen da



Martxoan Goizuetatik Labaienera joan ziren. ARAINBURU MENDI TALDEA

## TTIPI-TTAPA

Ikasturte berriko aurreneko ateraldia prest du Arainburu Mendi Taldeak: irailaren 16an Aralarra egingen du; Albi-Igaratza-Amezketan mendi buelta, hain zuzen. Eguraldi txarra izanez gero, irailaren 23ra atzeratuko dute. 07:30ean aterako dira plazatik eta 16:30 aldera itzuliko dira. 19,6 kilometroko itzulia izanen da, antolatzaileen arabera, sei bat ordukoa.

Ateraldia 28 lagunetara mugatu dute eta parte hartzeko Elena estanko eta arropa dendan apuntatu beharko da irailaren 14a baino lehen. Autobusa 15 euro kostako da eta izena ematerakoan ordaindu beharko da. Gainerakoan, bakoitzak bere hamaiketako eta bazkaria eraman beharko ditu eta aldatzeko arropa eramateko esan dute.

## Ikastaroak proposatzeko azken egunak

2023-2024 ikasturtean ikastaroren bat eman nahi duten irakasleek aste honetan aurkeztu beharko dituzte beraien proposamenak, zehazki, ostirala, irailaren 8a, baino lehen udaletxean. Hala adierazia du udalak bando bidez. Ikastaroak eskaintzeko autonomo izatea ezinbestekoa izanen da eta horrekin batera, ikastaroaren deskribapen zehatza ere aurkeztu beharko da udaletxean, besteak beste, ordu-egia, prezioa, iraupena eta nori zuzendua dagoen zehaztuz.



**1/6**

**Sinetsi berriro zure aurrezkietan. Eta hazaraz itzazu.**

**Nafarroako Rural Kutxa Gordailua**

Epe finkorako gordailua, **18 hilabete** ra, zure aurrezkiak gero eta gehiago saritzen dituen, **%1,926ko UTB** arekin, honela:

**LEHEN SEIHILEKOA:**  
**ITN % 1,50**

**BIGARREN SEIHILEKOA:**  
**ITN % 1,75**

**HIRUGARREN SEIHILEKOA:**  
**ITN % 2,50**

**Epea: 18 hilabete**  
Interesak sei hilean behin likidatuko dira

**UTB % 1,926**

[www.cajaruraldenavarra.com](http://www.cajaruraldenavarra.com)

Proposamena 2023/2023ra arte da baliagarria, 18 urteko edo gehiagoko pertsona fisikoentzat. Adibidea, 2023/05/01ean hasitako 100.000 euroko gordailu baterako: 2023/11/01ean 750 euroko interes gordinak likidatuko ditu, 2024/05/01ean 875 euroko interes gordinak, eta 2024/11/01ean 1.250 euroko interes gordinak gehi printzipalaren 100.000 euroak hartara, 2.875 euro gordinetako interesak ordainduko ditu guztira. Komisia aldez aurretik kitatzeagatik %1 da.

## «Almandoztarren bizi kalitatea hobetzeko ahal dugun guzia egingen dugu»

**BEATRIZ ETXEBERRIA VALCARLOS** ALMANDOZKO ALKATEA

Urtarrilean Pello Sarratea izendatu zuten Almandozko alkate, baina kargua bateragarria ezenez Baztango Independentek taldeko zinegotzi lanarekin, Beatriz Etxeberriak hartu dio lekukoa

**R. OSKARIZ** ALMANDOZ

«Emakume alaia eta jakin-min haundikoa» da Beatriz Etxeberria, «gibelek datozen belaunaldiendako bertze ikuspegi bat uzteko ilusioa» duena.

**Nola animatu zinen?**

Pello alkate zela ni kargudun izan nintzen, eta dimisioa aurkeztu zuenean taldekideek pausoa ematera animatu ninduten, baita herritar batzuk ere. Herriarenganako konpromisoagatik aurkeztu nintzen, hasmentako proiektuari segida eman ahal izateko.

**Gogotsu hartu duzu kargua?**

Bai, ilusio, gogo eta konpromiso haundiarekin.

**Zein dira alkatearen ardurak?**

Egunerokoan sortzen diren arazoak kudeatzea eta konponbide bat ematea, baita azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea ere, herritarren beharrei erantzunez. Honetarako inportantea da komunikazio ona izatea Baztango Udalarekin eta, behar izanez gero, Nafarroako Gobernuarekin.

**Erraza da aurpegia ematea?**

Kontua ez da erraza den edo ez, hartu beharreko erantzukizun bat dela baizik. Batzuetan jendeak kudeaketarengatik zoriontzen zaitu eta bertzeetan kezu dira, baina lanaren parte da. Denondako justuena eta berdinzaleena dela uste dugunaren alde lan egiten saiatzen gara.

**Nor dituzu kargudun?**

Hasi genuen proiektuaren segida denez, kargudunak per-



Almandozko alkatea da Beatriz Etxeberria bi urtetarako. UTZITAKOIA

tsiona berak dira: Iziar, Javier, Jeronimo eta Pello.

**Zenbatean behin biltzen zarete?**

Ez dugu maiztasun zehatzik, landu beharreko gairen bat dugularik elkartzen gara. Hala ere, Almandoz ttikia da eta ia egunero ikusten dugu elkar.

**Alkatetzak lan haundia eskatzen du egunerokoan?**

Orokorrean eramangarria da, nahiz eta egia izan zenbait momentu edo egunetan afera zaildu egiten dela. Baina jendea laguntzeko prest egoten da beti eta esker onekoak izaten dira.

**Almandozko dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urteetan?**

Hainbat lan egin dira: bideak eta kanadar pasabideak garbitu eta moldatu dira, Mendiolako zati batzuetan breia eta

hormigoia eman, N-121-A errepidera zuzeneko irteera defendatu da Mendiolako auzotarrendako, kanposantuko aparkalekuko ura kanalizatu da, autobusari itxoiteko markesina egin da, zenbait ur-ihes konpondu dira...

**Eta gaur egun zein behar ikusten dituzu herrian?**

Alde batetik, kotxe gehiagorendako aparkaleku bat beharrezkoa da. Bertze aldetik, bordetako eta intereseko bertze lekuetako bide eta pistetan mantentze-lanak eta hobekuntzak egiten segitru behar dugu. Gainera, landa inguruan arras garrantzitsua da konexio onak izatea eta horregatik beharrezkoa da Interneta denon esku-za izatea.

**Zuen helburuak agintaldi honetarako?**

Ahal dugun guzia egitea almandoztarren bizi kalitatea hobetzeko, modu eraginkorrean lan eginez eta herritarren ahotza adituz.

**Nola ikusten duzu herria kultura aldetik?**

Baztango kultura ongi errotua dago Almandozen, eta bertako tradizioak zaintzen eta sustatzen saiatzen gara, herriko bestetan, adibidez. Gainera, igandeetako mezak alaitzen dituen abesbatza dugu, eta bestetako egun haundian aurora kantatzen dute. Aurora kantatzen den bailarako herri bakarra da Almandoz. Honez gain, Urritzola-Galaingo bestetan herri kirol saioan parte hartzen du herriak.

**Herrian bigarren harrobi bat egiteko proiektuak kezka haundia sortu du. Nola dago gaia?**

Oraingoz Nafarroako Gobenuak aukeratu dituzten proiektuak alegazioei erantzuteko zain gaude.

**Nolako ondorioak izanen lituzke?**

Argi dago herrian eragina izanen lukeela, eta ez gure mesederako. Imaginatu bi harrobiren artean bizitzea eta herri-eremuan pasatzen den kamioiaren trafikoa biderkatzen ikustea. Herritarrak kezkatuta daude, aspaldi mahaigaineratu zen gaia eta oraindik ez dugu konpondu.

**Beraz, proiektuaren kontrako borrokarekin segituko duzue?**

Argi dugu Almandoz defendatuko dugula, proiektu honengandik eta almandoztarren bizikidetzak kaltetzen duen edozein proiekturengandik.

**Nola ikusten duzu herriko etorkizuna?**

Almandozko gazteak herrian bizitzen gelditzea gustatuko litzaidake, gauzak ongi daudenaren seinalerik haundiena baita hori. Horretarako, herririari eta bailarari aukerak eta zerbitzuak ematearen alde egin behar dugu lan.

**Zerbait gehitu nahi duzu?**

Eskerrak eman nahi dizkiet almandoztarrei haien laguntza eta konfiantzagatik.

# Agenda kulturala ekitaldiz betea irailerako

Bueltan da Baztango Udalaren Kultura Zerbitzuko agenda, eta ekitaldi ugari izanen ditugu hilabete honetan

## TTIPI-TTAPA

### Erakusketak Elizondon

Hilabete honetan bi erakusketak egonen dira ikusgai Arizkunenean. Lehenbizikoa Pedro Arizkurenen pintura erakusketak izanen da, irailaren 1etik 30era. Asteartetik igandera egonen da irekia, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.

Tomas Sobrinoren ikasleen lanak ere ikusgai egonen dira hilaren 4tik 10era lehenbiziko solairuan. Aste tartez 18:00etatik 20:00etara irekiko dute eta asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

### Baztan Kantuz Iruritan

Herriz herri plazak alaitzen dituen ekimena bueltan da, eta Iruritan izanen da irailaren 17an. 12:00etan herriko plazan elkartuko dira.

### Azokak

Baztango artisauek eta nekazariak merkatuak egiten dituzte Elizondon astero; irailaren 9an, 16an, 23an eta 30ean plazan izanen dira goizez.

Erratzuko artisauek ere eskuz egindako produktuak saltzeko azokak egiten dituzte 10ean eta 17an, igandez, 11:00etatik 15:00etara herriko plazan.

### Robotika tailerrak Legoekin

Discover Bricks-en eskutik, 5 eta 12 urte bitarteko haurrendako tailerra izanen da irailaren 28an, larunbata, Arizkunenean. 8-12 lagun bitarteko bi talde egiten dituzte, lehenbizikoa 10:00etatik 11:30era eta bigarrena 12:00etatik 13:30era. Izen ematea 11tik 15era izanen da, [info@discoverbricks.es](mailto:info@discoverbricks.es) helbidera idatziz edo 636 47 99 65 eta 636 45 07 45 zenbakietara deituz.

### Sexualitateaz elean

Sexualitateari buruzko hitzaldirik zikloa izanen da Arizkunenean; hiru saio izanen dira, herritar guziendako irekiak. Hilaren 14an haur eta nerabeen sexualitateaz arituko dira, 21ean hezkuntza sexualaz eta 28an sexualitateaz eta pornografiaraz. 18:00etatik 20:00etara izanen dira solasaldiak, BerHeziren eskutik.



Giro ederra izanen dute elbetarrek herrian bartz egunez. UTZITAKOA

## Elbeteko bestak ospatuko dituzte irailaren 13tik 17ra

### TTIPI-TTAPA

Udako azkeneko bestak ospatuko dituzte elbetarrek irailko hirugarren astean, eta egitarau oparoa izanen dute asteazkenetik igandera:

**Irailak 13 asteazkena, Txopo goratze eguna.** 19:00etan txupinazoa eta bonba japoniarra, ondotik txiki-txopogoratzea. 19:30ean dantzaldia Hauspolariekin eta 21:00etan baztan zopak hartuko dituzte Joxe Angelek alaiturik. 00:00etan txopo goratzea.

**Irailak 14 ortzeguna, Santa Kruz eguna.** 09:00etan dianak eta 11:00etan meza nagusia izanen dira, ondotik luntxa posadan. 16:00etan mus eta partxis txapelketak egiten dituzte eta 17:00etan pilota partidak. 18:30ean haurrendako antzerkia izanen da eta 20:00etan dantzaldia Hauspolariekin.

**Irailak 15 ortziralea, gazte eguna.** 14:30ean paellada izanen dute, ondotik kalejira Tuku-Tuku txarangarekin eta Grand Prix. 19:00etan Harat taldearen kontzertua izanen da Zapatilleran eta 22:00etan dantzaldia plazan Bizphiru Pelau taldearekin.

**Irailak 16 larunbata, zikiro eguna.** 09:00etan dianak. 14:30ean zikiro jatea egiten dute eta ondotik dantzaldia DJ Txiparekin. 22:00etan boletoen zozketa eta dantzaldia plazan Trikidantzekin, 01:00ean DJ Txingudi eta 04:00etan DJ Aimar.

**Irailak 17 igandea, haurren eguna.** 09:00etan dianak eta 14:00etan haurren bazkaria posadan. 16:30ean puzgarriak izanen dira, 18:00etan txokolatada eta bestak akitzeko 19:30ean dantzaldia Joxe Angelekin.

Oharriz Auzoa z/g - LEKARAZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
[info@harrilan.com](mailto:info@harrilan.com) [www.harrilan.com](http://www.harrilan.com)

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.  
HERRI-ERREKONSTRUKTIOA

ELBETEKO  
POSADA  
Hostala eta Jatetxea

ONGI PASA  
BESTAKI

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519  
[info@posadaelbete.com](mailto:info@posadaelbete.com) [www.posadaelbete.com](http://www.posadaelbete.com)



Ortzirale arratsaldean txupinazoa botako dute Muniartea zubitik. ONDIKOL

# Txokotoko bestak asteburu honetan Elizondon

Txokotoko auzotarrek bestak ospatuko dituzte irailaren 8tik 10era egitarau zabalarekin

## TTIPI-TTAPA

### Irailak 8, ortziralea

19:00etan txupinazoa izanen da, ondotik konpartsak itzulia eginen du. 20:00etan baztan zopak banatuko dituzte eta 21:00etan mutil dantzak izanen dira. 23:00etatik aitzinera kontzertuak izanen dituzte: Roña, Kurkuma eta Bananas.

### Irailak 9, larunbata

11:00etan konpartsaren itzulia eginen dute eta 12:00etatik 13:30era Mugarkik antolatutako jarduera izanen da. 14:00etan zikiro jatea eginen

dute eta ondotik Tuku-tuku txarangarekin poteoa elkartez elkarre. 20:00etan DJ Jotatzok girotuko du besta eta 00:00etan DJ Piek izanen da.

### Irailak 10, igandea

11:00etan patata tortilla lehiaketa izanen da; arroltzeak, patatak, tipula eta olio harraren kontu, gainerakoa partaideek eraman beharko dute. Izen-ematea ortziralera arte, Txokoton eta Antxitonean. 12:30ean *vermú salsero* izanen da eta bestakakitzeko 19:00etan Arima Soul System taldearen kontzertua.



SILVIA URSUEGI

## Zigako bestak ezin hobe

Antolatzaileen erranetan, «urtero bezala gogotsu hasi genituen bestak Zigan. Ilusioz, irriz eta musikaz beteriko lau egun eder izan ondotik, hurrengo urtekoen esperoan egonen gara. Aurtan, bereziki ikusten ez diren lanak egiten dituztenei eskertuz akitu ditugu bestak».

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6

31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1

31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22

31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20

31770 LESAKA

T. 948638077



# Baztan Hobetzen herrietako egoerak aztertzen

Irailaren 18an Arizkunen eta Iruritan eta 25ean Elizondon eta Almandozen mapatze kolektiboak eginen dituzte

## TTIPI-TTAPA

Martxan da Baztan Hobetzen, bailarako herriguneak berrorenatzeko helburuarekin udalak sortutako plana. Hainbat bilera egin ondotik, herrietako egoerak aztertzeko mapatze kolektiboak eginen dituzte irailean.

Kuartelka banatuta, lau tailer eginen dituzte guztira: Irailaren 18an Arizkungo plazan 10:30etik 13:30era eta Iruritako plazan 17:00etatik 20:00etara. Irailaren 25ean Elizondoko plazan 10:30etik 13:30era eta Almandozko

frontoian 17:00etatik 20:00etara.

Mapatze kolektiboan parte hartzeko, izena eman behar da [baztanhobetzen.baztan.eus](http://baztanhobetzen.baztan.eus) webguneko galdetegiaren bitartez.

Honez gain, ekimenak antolatzen dituen bertzelako ekitaldietan parte hartzera animatu dituzte baztandarrak; aurkezpen publikoak, elkarriketak eragileekin, galde-tegi digitala, parte hartzeko tailerrak... Informazio gehiago eskuragarri Balleko Etxean eta [baztan.eus](http://baztan.eus) webgunean.

## Besta bereziak izan dituzte Arizkunen

Ekainean sanjuanak bertan behera utzi behar izan zituztenez, abuztuaren 4tik 6ra hainbat ekitaldi izan zituzten Arizkunen. Euripear baina giro ederrarekin ospatu zituzten aurtengo besta bereziak.



UTZITAKOA



LIERNI OTEIZA

## Giro polita Oronoz-Mugairiko bestetan

Otorduak, kontzertuak, kirolak, mozorroak... beti bezala, umore ezin hobean ospatu dituzte bestak aurten Oronoz-Mugairin. Haur, gazte eta helduek ekitaldi ugari izan zituzten lau egunez eta giro ederra izan zuten herrian. Heldu den urteko beste begira gelditu dira herritarrak.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com) • [www.anzabal.com](http://www.anzabal.com)

## Txokotoko II. Xake txapelketaren izen ematea zabalik

Elizondoko Txokoto tabernak II. Xake txapelketa antolatu du aurten, eta parte hartzeko interesa dutenek irailaren 30era arte ematen ahalko dute izena bertan. Txapelketaren saria 50 euroko txartela izanen da, Donostiako Kaxilda liburu-dendan erabiltzeko.



Sei baztandar izan ziren sarituak Arizkunenean. PATXI IRIARTE (ZALDUA)

## Aurtengo Loraldiko sariak banatu ditu Arras Baztanek

### TTIPI-TTAPA

Arras Baztan Fundazioak balcoiak eta leihoak apaintzeko Baztango III. sariketa antolatu du aurtun, eta lehiaketako irabazleak saritu zituzten abuztuan Arizkunenean: Maria Teresa Ibarra Elizalde (Zigaurre), Mari Jose Saldias Saldias (Elizondo), Agurtzane

Goienetxe Goñi (Arizkun), Bego Arizmendi Bereau (Elizondo), Ramon Apezetxea Zubiri (Almandoz) eta Romi Bikondoa (Beartzun) izan ziren sarituak.

Sarituei lore sorta bana eta Arras Baztanerat atxikitutako ekoizle, saltoki eta zerbitzuetan erabiltzeko 50 euroko bonu bana banatu zieten. Zorionak!



ANE GOIENETXE

## Giro ederra Amaiurko bestetan

Antolatzaileek adierazi dutenez, «jende aunitz ibili da herrian bestetan, giro paregabea sortuz. Esker mila egun hauetan herrira hurbildu zaretenei, eta bereziki esker mila eta zorionak egun hauek aitzinerat ateratzen lagundu eta plazan giro ezin hobea jarri duzuen herritar guziei!».



IZASKUN ALMANDOZ

## Ederki ospatu dituzte bestak Lekarozen

Altxaferoarekin hasi eta herri bazkariarekin akituz, bortz egunez musika eta dantzaz gozatzeko aukera izan zuten lekaroztarrek eta bertara hurbildu zirenek. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete herrira etorri zirenei eta bestak aitzinera ateratzen lagundu zuten herritar eta enpresei.



TTIPI-TTAPA

## Arraioztarrek lan ederra herri kiroletan

Nafarroako Herriz Herriko Txapelketako finalean parte hartu zuten Arraiozek Antsoainen. Maila absolutuko taldeetan, bigarren postua lortu zuten lehenbiziko proba konbinatuan. Bigarren proban berdinketa izan zen lau taldeen artean, eta araudia aztertuta, hirugarren postua lortu zuten. Zorionak!



Kortariko gasna eta Nerea Mortalena arraioztarra sariak biltzen. ARTZAIN EGUNA

## Baztango artzainak UharTE Arakilen bikain

Gasna zein ardien lehiaketetan hainbat txapel ekarri zituzten etxera baztandarrek 55. Artzain egunean

### TTIPI-TTAPA

Baztango artzainak ederki aritu ziren UharTE Arakilgo Artzain egunean. Artzain Zakurren Txapelketan Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza Lagun zakurrarekin aritu zen eta laugarren postua lortu zuen. Ardi Latxaren esne gordinarekin egindako gasna lehiaketan 24 gasna aurkeztu zituzten, eta Lekarozko Kortariko gasnak irabazi zuen berriz ere. Enkantean 4.750 euroko eskaintza egin zuten gasnaren truke.

Ardi eta bildotsen lehiaketetan ere baztandarren parte hartzea izan zen: Nerea Mor-

talena arraioztarrak lehen postua lortu zuen ardi muturgorrietan eta hirugarrena bildots muturgorrietan. SC Irigoien arizkundarra, berriz, irabazle izan zen ardi muturbeltzetan, bildots muturbeltzetan eta ustiategi hoberenaren sarian.

Hobekuntza genetikoaren lehiaketan ere, esnearen grasaren kategoria irabazi zuen Irigoienek muturbeltzetan. Muturgorrietan, aldiz, Manex Urrutia azpilkuetarrak lortu zuen saria eta Aitor Agirre azpilkuetarrak indize konbinatuarena. Zorionak!



MAITANE MARITORENA

## Otordu ederrarekin agurtu dute uda Anizen

Urtero bezala, uda akabailako xingar-xixtor jatea egin zuten aniztarrek abuztuaren 26an. Eurixka ari zuenez, Plaxa-xarren egin beharrean, frontoian egin zen urteroko hitzordua. Aurten, gainera, egun horretan berean auzolana izan zenez, pintterdia egiteko ere baliatu zen otordua.

## Azaroko Arizkuneko ikastaroetan izena emateko epea 11tik 15era

### TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak lau ikastaro antolatu ditu azaroan Arizkunenean. Hilaren 7tik aitzinera 40 orduko antzerki jolas tailerra izanen da Josune Gorostegirekin, 14 urtetik goitikoendako. Astartetan bilduko dira, 19:00etatik 21:00etara.

Azaroaren 11tik aitzinera atabala ikastaroa izanen da arituendako Shanti Diazekin, larunbatetan 09:00etatik 10:00etara. Gaita ikasi nahi duten aritu eta hasiberriek ere aukera izanen dute egun eta

ordu berean Tomas Diaz eta Mikel Ortegaren eskutik.

Azaroaren 4an, 11n, 18an eta 25ean plastika lantegia izanen da 5-11 urte bitartekoendako. Sonia Ilzarbe eta Eneko Perez izanen dira irakasleak eta larunbatetan 17:30etik 19:00etara bilduko dira.

Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 11tik 15era zabalduko da, Arizkunenean bertan, [kultura@baztan.eus](mailto:kultura@baztan.eus) helbidera idatzita edo 948 581 279 telefonora deituta. Matrikulak transferentzia bidez ordaindu beharko dira.



**KALITATEZKO MANTENTZE-LANAK  
ERREGAI BANAKETA  
GARBIKETA ZENTROA**

**PREZIO ONEAN**



948 599 090 - 948 599 236 | N-121-B errepeidea • DANTXARINEA | [www.josenea.es](http://www.josenea.es)



Ardi-ile mozketa ikusgarria izan zen. MARIFA ETA KORO



Dantzan plazan. MARIFA ETA KORO

## Onetik eta txarretik izan dugu aurten herriko bestetan

800 lagunendako zikiroa prestatzen eta biltzen aritu dira aunitz eta gaiztakeriak eta nardagarrikeriak egiten bertze zenbait

### MARIFA ETA KORO

Zenbait aldaketa eta berrikuntzekin etorri zaizkigu aurten bestak (lehen aldiz egin den ardi-ile mozte lehiaketa horren adibidea), eta denak arrakasta izan dute, beraz, txalo bat antolatzaileei. Bertze txalo bat ere, lanean aritu direnentzat, ez baitira gutti izan: mendian makilak moztu eta gero xuritzen, txosna muntatu eta banderinak jartzen, bezperako piperrada egiten... Zikiroko haragia, piperrak eta tipula prestatzen, egunero txosnan eta ogitartekoak prestatzen, zikiro eguneko lan izugarria,

eta nola ez, zikiroko baxerak garbitzen aritu zirenak (800 lagunendako baxerak, eltzeak, eta bertze zenbait lan!).

Hala ere, ez da dena polita izan bestetan, eta jende nardagarria ere lanean aritu da: hiru gauez gaiztakeriak izan ditugu. Bezperan Azketako pottokak libratu zituzten, Domitenea, Dolarea eta Sueldegiko loreak hondatu, eta zakarrontzi bat atera. Andre Mari bigarrenean elizako sakristia-ko leihoa harrikatu zuten; eta azkeneko gauean, berriz ere sakristia-ko leihoan aritu ziren eta elizargietako atekak hesten



Gazteen eskea. MARIFA ETA KORO

duen katea eta kandadua ebatsi zuten. Zoritxarrez, beti bada bertzeen lanak hondatu behar dituen jendea.

### Andre Mari egunaz

Abuzturen 15a Andre Mari eguna bezala ezagutu dugu beti, eta behar bada ez gara konturatu zeinen ospakizun zaharra dugun hau: euskal mitologikoa MARIren eguna dugu.

Gero kristautasunak bertze izen bat eman zion (Ama Birjina), baino zugarramurdiarrak harro gaude betiko izen zaharra erabiltzeaz.



Felix Etxeberria aizkoran altueran.

## DENA EZ DA POLITA IZAN BESTETAN ETA GAIZTAKERIAK ERE IZAN DITUGU

**VENTA PEIO**  
GEBAGO EMATEN DIZU

BARDIN 31780 Bera  
BEHOIA 20305 Iruñ  
LUZAIDE 31660 Luzaide  
DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, asteleheneetik igandera arte  
\*Abenduaren 25<sup>a</sup> eta urtarrilaren 7<sup>a</sup> izan ezik

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak  
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

## Martineko belategia aparkaleku bezala erabili da

Kotxe-pasarekin dugun arazoa arindu da pittat uda honetan. Martineko belategia aparkaleku bezala erabili da egun jakin batzuetan, eta han 70 bat kotxe sartu dira, herria gurutzatzea saihestuz. Herriko Etxea planteatzen ari da irtenbide hau betirako uztea.

## Euskal artzainak Ameriketara eguna larunbatean herrian

'Xaretatik Ameriketara' leloarekin hainbat ekitaldi eginen dituzte eta liburua ere aurkeztuko dute

### ARANTXA ETA IRAIA

Larunbat honetan, irailaren 9an, Urdazubin ospatuko da Euskal artzainak Ameriketara eguna. Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak *Xaretatik Ameriketara* leloarekin izendatutako egunak, sorterritik urrun joan ziren Euskal Herriko xoko anitzetako jendea bilduko du. Larunbatean 10:00etan hasiko da antolatutako egitaraua autobusak ailegatzearekin batera, eta ondotik, gosaria izanen dute bertaratutakoek. 11:00etatik aitzinera artisauen azokak

alaituko du plaza eta 12:00etan Bankako menditarrek alaiturik meza izanen da. 14:00etan, berriz, bazkaria izanen dute. Bazkal aitzinean, aperitif berezia izanen dute, edari amerikar batekin bustiko baitute zintzurra. Gero, Santxotenak animatuko du bazkal ondokoa.

Ospakizunaz gain, Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak Ameriketara joandako Xaretako artzainen datuekin liburua argitaratu du aurten. Alexandra Larralde egindako material-bilketa eta elkarrizketak dira liburua oinarria.

## Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketarako izena eman daiteke

### ARANTXA ETA IRAIA

Heldu den urriaren 7an eta 8an, UKLren, Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketaren bertze edizio bat eginen da, Azkar Kirol taldeak eta Urdazubiko gazteriak, udalaren eta Mugarkiren laguntzaz antolatua. Larunbat gaueko

lanak probarekin hasirik, 9,5 kilometroko ibilbidea osatuko dute lasterkariak gauez. Biharamunean, maratoi erdiak emanen dio segida, 21 kilometro luze eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidearekin. Izen ematea irekia da *pyreneeschrono.fr* webgunean.



Arizkongo dantzariak emanaldia eskaini zuten abuztuaren 19an. ARANTXA ETA IRAIA

## Udako ekitaldi andana giro ezin hobean ospatu dituzte

### ARANTXA ETA IRAIA

Urtero bezala, aurten ere hainbat ekitaldi eta besta ospatu dira uztailean eta abuztuan.

**Uztailaren 22an** pilotaren unibertsoan zenbait pilota modalitatearen erakustaldiekin eta patata tortilla txapelketarekin hasi zen. Hauek izan ziren tortilla txapelketako irabazleak: Kategoria tradizionalan Maria Lukek lortu zuen lehen saria eta bigarrena Manoli Azkarragak. Kategoria librean *Ekipo A* taldeak irabazi zuen eta Manoli Azkarragak bigarren saria eraman zuen kategoria honetan ere. Azkenik, kategoria tradizionalan Miren Sansiñenak, Karretero ostatukoak, lortu zuen lehen saria eta bigarrena Guy Hosset-ek, Fagoaga ostatukoak.

**Abuztuaren 4an eta 5ean**, berriz, Burdinaren Eguna os-

patu zen. Berritasun gisara, larunbat arratsean soldadura tradizionalaren erakusketa batekin hasi zen. Igandean, berriz, artisauen azokak girotu zuen plaza eta antzerkiaren ondotik, zikero jendetsua egin zen frontoian. Arratsaldeari Korrontzi taldearen kontzertuarekin eta Jean Luis Bergara musikariarekin eman ziztaion akabera.

**Abuztuaren 19an** herri kirolen jaialdia antolatu zen. Arizkongo dantzarien ikuskizunak, herri kirolak eta sagardo, sardina eta inguruko produktuen dastaketa izan ziren protagonista.

Urtero bezala bisitari andana ibili da, udalak antolatutako ekitaldietan, Ikaburuko lezean, jatetxeetan eta herriko bertze xoko anitzetan. Irailarekin udazkeneko lasaitasunera itzuli da herria.

**MARMOLES SOULE**  
[www.marmolessoule.com](http://www.marmolessoule.com)  
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | [marmolessoule@gmail.com](mailto:marmolessoule@gmail.com)

LAPIDAK  
 PANTEOIAK  
 HILERRIAK  
 ZAHARBERRITZEAK  
 GARBIKETAK  
 HARRI ZIZELKATZEA

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**  
 Jarrai gaitzazu!  
 facebook  
[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)

**Montxo**  
 SATEA • ERREBEGIA  
 Tradizioa, historia eta gastronomia  
[asadormontxo.com](http://asadormontxo.com)

Akuler karrika, 12  
 31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
 +34 848 85 00 21  
[info@asadormontxo.com](mailto:info@asadormontxo.com)



Dantzek ez dute hutsik egiten bestetako egitarauan. GANEX

## Herriko bestak buruilaren 9tik 13ra ospatuko dituzte

Bortz egunez klase anitzetako musikaz gozatzeko aukera izanen da, eta kirolari lotutako hitzordurik ere ez da falta izanen

### GANEX

«Tradizioa eta berrikuntzak uztartuz» eta besten «arima mantenduz» herritar guztienezako bestak prestatu ditu besten komiteak.

### Buruilak 9, larunbata

09:00etan BTT lasterketa. 09:00etatik 19:00etara ball-trap Plaxiden bordan. 17:00etan trinketan esku pilota lehiaketa. 17:00etan Sara korrika 10 kilometroko lasterkaldia. Kontzertuak plazan: 20:30ean Ixtaklok txaranga. 22:00etan Xutik. 00:00etan Gatibu. 01:30ean DJ Uzkuluz. 02:00eta-

tik 05:00etara etxera sartzeko autobusak urrik.

### Buruilak 10, igandea

Goizean karriken alaitzea Danborrada Mariñelak gaiteroekin. 10:00etan meza Urñuñarrak klikarekin. 10:30ean luzean errebotean Luzean eta Hardoy taldeen artean. 16:00etan Leinua dantza taldea. 16:30ean desfilea herriko plazan: gaiteroak eta erraldoiak, joaldunak, ahate jokoa eta herri kirolak. 19:00etan Krexelak taldearen kantaldia. 20:30ean Gaitistaneke Orkestra. 22:30ean DJ Jotatxorekin dantzaldia.

### Buruilak 11, astelehena

Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 11:00etan luzean errebotean Ustaritz eta Hiriburu taldeen arteko partida. 13:30ean Olhain ikastolak antolatutako bazkaria lehengo Keinuko aparkalekuan. 16:30ean artzain xakur txapelketa. 18:30ean Zazpiak Bat dantza taldearen ikusgarria. 19:00etan esku pilota finala trinketean. 20:00etan Menditarrak taldeak alaitutako aperitifa. 22:00etan Koloka taldearekin dantzaldia.

### Buruilak 12, asteartea


Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 11:00etan luzean errebotean Spuc eta Hasparren taldeen arteko partida. Sarako Gazteriaren Eguna ere ospatuko da. 18:00etan Joko Garbi finala plazan: Hardoy/Ustaritz. 19:00etan mutxikoak Kuxkuxtu txarangarekin. 20:00etan gaztetxean Ratapunketa Kuartz taldeak. Marrazki bizidun gaua herriko plazan. 22:00etan dantzaldia Dupla taldearekin. 00:00etan DJ Bull. Gau guzian Kuxkuxtu txaranga karrikak alaitzen ibiliko da.

### Buruilak 13, asteazkena

Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 09:00etan trinketeko zabaldegian azienda lehiaketa. Sarako laborarientzat 1.700 euroko primak. 10:30ean Suharriaga parkean Pontx pailazoa. Euriarekin kirolde-

gian. 17:00etan plazan esku huska partida. 18:00etan trinketean eta plazan bertso saioa Amets Arzallus, Haira Aizpuru eta Oier Urreiztorekin. Antton Etxeberri gai jartzaila. 19:00etan zozketa. 19:30ean Kriolinak taldearekin aperitifa. 21:30ean Burrunba elektrotxaranga. 23:00etan su artifizialak. 23:15ean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

## ELKARTEEK TALO ETA OGITARTEKOAK SALDUKO DITUZTE GAUERO KEINUN



**JATETXEA-OSTATUA-TRINKETEA**

**Buruilaren 9tik 13ra**

**MENU BEREZIA 28€**

- Ahuntz gasna entsalada
- Serrano xingarra, ogi eta tomatearekin
- Idi tripakiak
- Idi saiheskia etxeko patatekin
- Dorada txorizo saltsan
- Bildots gurintxoak pikiloekin
- Panna cotta fruitu estaliarekin
- Txokolate goxoa
- Etxeko bounty
- Ardi gasna

**Haurrentzat menua 10€**

- Haragi xehetua edo xingarra patatekin + izozki bola

**TRINKETA PARTIDAK:**

Larunbata 9, finalerdiak 17:00etan eta 18:00etan  
Astelehena 11, finalak: 18:00etan

Tel. (+33) 559 54 22 06  
trinquetpleka@gmail.com




SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALtasunAREN  
SARJA EH-SANA  
1195 XIV-IX 1493-AN

Plazan

elkar ikusiko dugulakoan

Herriko Kontseiluak

besta onak opa dizkizue



Ainhua Etxegarai, zamarekin lasterka. UTZITAKOA

## Beratarrak nagusi Kontrabandisten 60. lasterketan

laz bezala, Joseba Larralde eta Ainhua Etxegarai izan dira bizkorrenak agorrilaren 27ko proban

### GANEX

Sarako Kontrabandisten lasterketak hirutan hogeigarren edizioa bete du aurten. Eguraldia ez zuten lagun izan agorrilaren 27an, baina beti bezala, 32 korrikalari izan ziren, Iparraldeko zortzi herri eta hegoaldeko bertze zortzi ordezkatzuz. Joan den urteko irabazle berak izan ziren, Berako Joseba Larralde eta Ainhua Etxegarai.

Gizonezkoen artean Joseba Larralde izan zen bizkorrena, 40 minutu eta 53 segundoko denborarekin, Hendaiaiko Damien San Martin garren

(42.16) eta Ainhoako Guillaume Leroy hirugarren (42.28). Lehen saratarra Mathieu Gachin izan zen (46.53). Lehen emaztea Ainhua Etxegarai izan zen, 52 minutu eta 15 segundoko denborarekin. Ia hiru minutu eta erdiko aldea atera dio bigarren izan zen Zugarramurdiko Amaia Remeri (55.43). Hirugarren Zugarramurdiko Veronika Couvreur izan zen (58.07).

Antolatzaileek denak eskertu dituzte: Herriko etxea, Sara Korrika taldea eta Olhain ikastola, ahantzi gabe borondate oneko jendeak.



GANEX

## Kontrabandisten Eguneko ospakizunak

Kontrabandistaren Egunean denbora euritsua zenez, kiroldegian egin zuten lantegiek beren erakusketa eta bazen zer ikusi. Irakurketa xokoa eta ipuin kontaketa, Aire ahizpak, joaldunak (argazkian), eskulangileak eta bertze hainbat ekitaldi izan ziren agorrilaren 27an.



GANEX

## Larrungo koloreak plazara

Abuztuaren 22an egun guzian eta 23an arratsalde apalean, Larrungo koloreak taldeak egin zuen erakusketa plazako errebotean. 30 baziren margolari eta zizelkariak, denek gauz ederrak bazituzten. Denbora beroa baina, halere, jende ainitz ibili zen. Elkarreak denak eskertu ditu.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC  
Itxidurak | Berandak | Toldoak  
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA  
info@irekileihoak.com  
www.irekileihoak.com



## Biniloak

Pareta eta erakuslehoetarako

Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiokoak, gardenak, jartzeko errazak...



Hendaiako Alaiak taldeak kantatu zuen Amotzeko bestetan. JL BESSONART

## Amotzeko bestek oihartzun ona utzi dute aurten ere

Kantu lehiaketa izan da aurtengo berezitasuna eta Pierre eta Romain bikote xelebrea izan da txapeldun

### JL BESSONART

Oihartzun onak ukan ditugu Amotzeko bestetako bilanaz. Jendetsuak (400 afaltiar ostiraleko zikiroan) eta ongi animatuak joan dira. Gazte komitearen inplikazioak fruitu onak eman ditu. Larunbat arratsean, sekulako animazioekin publiko gaztea hurbildu bazen ere, igandeak belaunaldi guziak bildu zituen. Hendaiako Alaiak taldeak, beren izenburuaren arabera, giro alaia sortu zuen. Nola ez aipa aurtengo berezitasuna, kantulehiaketa, sekulako energia sortu baitzuen jendeen

atseginetan. Pierre eta Romain bikote xelebrea izan zen txapeldun, haatik denek merezi zuten podiumean izaitea.

### Oiha etxaldearen okupazioa

Honek beti segitzen du ekipoak aldizkatuz. Senpereko Ostia kolektiboa, ELB sindikata eta Lurzaindia egitura, bildu dira Urruñan abuztuaren 2an notario baten bulegoan. Saltzailerearen notarioak onetsi du, etxaldearen salketa bermatua dela uztailaren 24az geroztik, 1,3 milioi eurotan, haatik berak legea baizik ez duela aplikatu.



JL BESSONART

## Bero zakarra artzain txakur lehiaketan

Izigarriko bero zakarra jasan zuten, ardi, xakur, artzain eta ikusleek lehiaketa ikusgarri honetan. Halere, jendetza hurbildu zen interes handiarekin. Zaldubi ikastolak antolatua zuen ekitaldia eta eguraldi beroa edantegiak nabaritu zuen. Datorren urtean ekimena errepikatzea da xedea.



UTZITAKOIA

## Bi bikote Federazioko finaleran

Bi ekipo esku-huska bagenituen Federazioko final handian, Donapaleun. Estebe Irubetagoiena eta Gabi Harotzarene gazteek amore eman dute Azkaingo Lizardi-Gurrutxagaren aurka, 21-30. Lehen mailan, Peio Azkona eta Amaiur Jauregi nagusitu dira Donapaleuko Mendiburu-Thicoiperen kontra.

## Kontzertu eta erakusketa ederrak izan dira eta izanen dira egunotan

### JL BESSONART

Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertuek musikazaleak bildu ditu. Agorriaren 5ean Easo abesbatza eta 27an Judith Jaurego pianista aritu ziren. Hauetaz kanpo ari izan dira, Goraki Donibaneko kantari talde mistoa, Arin abes-

batza ongi ezaguna, Thibault Solorzano biolontxelista eta Elena Anca pianista, Swinigin' Bayonne jazz taldea. Gure elizan, Ukrainaren aldeko Misja Medyczna Fundazioak aurkeztu du kantaldia, ukrainar behardunei medikazioa garraiatzeko helburuarekin.



Caroline Philipps eta Mixel Ducau.

Bertzalde, Ttitto Aguerre artistak bere obra zizelkatuak erakutsi ditu Larreko kultur-gunean. Estreinaldirako Mixel Ducauk eta Caroline Philipps-ek errezital ederra eskaini zuten. Hatsa elkarteak, bere aldetik, Amotzeko Larralde baserrian *Formak eta Funtsak* erakusketa zabaldu du, Iñaki Basterrikaren margoekin eta Auxtin Zamoraren argazki formekin osatua.





Handiko txapeldun, txapeldunordeak, hirugarrenak eta laugarrenak. ONDIKOL



Oiz txapeldun eta Irurita Migelene txapeldunorde, final ttikian. UTZITAKOA

## Doneztebe The Moment eta Oiz laxoan txapeldun

Doneztebarrek Arraioz Sagardiari irabazi zioten final handian eta oiztarrek Irurita Migeleneri final ttikian, biak Oizen

### TTIPI-TTAPA OIZ

Baztan-Errekako 43. Laxoa txapelketako final handia jokatu zuten abuztuaren 5ean Oizko plazan Doneztebe The Moment eta Arraioz Sagardia taldeek. Ligaxkan baztandarrak gailendu baziren ere, finalean, iaz bezala, Doneztebe The Moment nagusitu zen (9-3). Gisahonetara, Doneztebe The Moment-eko laukote honek bosgarren txapela jantzi du eta Doneztebek 22 ditu dagoeneko.

Doneztebe The Moment taldea Julen San Miguelek, Koldo Legarrak, Pascual Bertizek eta

Javier Bertizek osatu zuten eta Arraioz Sagardia, berriz, Mikel Mindegiak, Ion Gamiok, Xabier Mihurak eta Miguel Maritorenak. Final handiaren ondotik, sari banaketa egin zuten eta eguna afari eder batekin akitu zuten.

Goizean, hirugarren posturako partida jokatu zuten Doneztebe Titi eta Doneztebe Apeztegiaren artean. Final handian baina berdintasun eta oreka gehiago izan zen eta zortzinako berdinketaren ondotik, Doneztebe Apeztegia gailendu zitzaion Doneztebe Titiri (9-8). Doneztebe Apez-

tegia taldea, Jon Apeztegiak, Ramontxo Etxebestek, Iban Santestebanek eta Joseba Juanenak osatu zuten eta Doneztebe Titi taldea David Mitxeok, Eloy Garciak, Erik Garciak eta Aimar Jabalerak.

### Oiz txapeldun ttikia

Astebete lehenago, plaza berean, final ttikia jokatu zuten Oizek eta Irurita Migelenek. Partida arras parekatua hasi zen, 2-2 joan baitziren markagailuan. Ondotik, oiztarrek kolpe bat eman zuten eta 5-3 paratu ziren aitzinetik markagailuan. Finaleko giltza orduantxe izan zen, izan ere, iruritarrek, 40an zirela, laugarren jokoak egiteko aukera izan zuten, baina oiztarrek ederki defendatu eta ados jartzea lortu zuten. Seigarren jokoak egin zuten etxekoek eta maiz gertatzen den bezala, batzuk goiti etorri ziren eta bertze batzuk beheiti, eta horrek azkeneko 9-3ra eraman zuen markagailua.

### LAXOA TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE
2019	IRURITA
2020	ARRAIOZ
2021	IRURITA
2022	DONEZTEBE
2023	DONEZTEBE (H) / OIZ (T)

## Doneztebe txapeldun gaztetxoetan ere

Doneztebe B taldea nagusitu da gaztetxoan laxoa txapelketan. Oizen abuztuaren 12an jokaturako finalean 9-7 irabazi zion Iruritari. Hirugarren Doneztebe A izan zen, Arraiozi 7-1 irabazita.



UTZITAKOA



Diego Uriarte, Finisher taldeko eta Madrilgo Itzuliko irabazlearen maillotekin, Erratzun. JUAN MARI ONDIKOL

## «Txirrindularitza gogorra da, baina sufrimendu hori gozatzeko dugu»

**DIEGO URIARTE BELTZUNEGI** PROFESIONALETARA SALTO EGINEN DUEN TXIRRINDULARIA

Baztanen sustraiak dituen Barañaingo txirrindularia da Diego Uriarte. Uztailean zenbait garaipen izan ditu afizionatu mailan eta hurrengo denboraldian profesionaletara salto egingen du

**AITOR AROTZENA** ERRATZU

2001. urtean Barañainen sortu zen Diego Uriarte Beltzunezi txirrindularia, baina gurasoak baztandarrak ditu: aita Erratzukoa eta ama Elizondokoa. «Barañainen sortua izan arren, denbora aunitz ematen dut Baztanen, erdi eta erdi naizela erran daiteke» dio. 21 urterekin (22 egingen ditu urrian), gaur egun Finisher taldearekin ari da afizionatu mailan, baina heldu den denboraldian, egitura bereko Kern Pharma taldearekin profesionaletara salto egingen duela jakinarazi diote. 23 urtez behetik Madrilgo Itzuliaren azken etapa ez ezik, sailkapen orokorra ere irabazi ditu uztailean.

**Madrilgo Itzulian azken etapan eta sailkapen orokorrean garaile, astebete lehenago Villatuertan ere nagusi... Denboraldi honetan garaipenen bat gehiago lortu duzu?**

Madrilgo Itzuliak bortz etapa zituen eta azkena irabazi eta sailkapen orokorrean ere nagusi izan nintzen. Villatuertan aitzineko igandean irabazi nuen V. Trofeo Electricidad Robert Innova eta ondotik erran zidaten profesionaletara pasako nintzela heldu den urtean, beraz, aste borobila izan zen. Urte hasieran Espainiako kopako proba bat irabazi nuen, LXIX. Gran Premio de Primavera Ontur, Onturren (Albacete). Afizionatutan lehen

aldiz joan den urtean irabazi nuen, Seguran, San Juan Sari Nagusia. Emaizta aldetik horiek izan dira lasterketarik onenak, baina emozionalki polita eta arras berezia izan zen Bidasoko Itzulian parte hartzea, etxetik pasatuz, entrenatzen dugun errepideetan... Gauzak ez zitzaizkidan nahi bezala atera, lehen etapan Jaizkibel jausten erori egin nintzen, zulatuak, bizikletako matxurak... baina halere, oroi-men polita dut: taldeko lana egin nuen eta Bagordiko etapa taldekide batekirabazi zuen, Hugo Aznarrek, baita azken etapa ere, Pablo Carrascosak. Sailkapen nagusiak ihes egin zigun.

**Sasoi betean zaudela erran daiteke, bolada ederrean...**

Errendimendu aldetik urtero mantso-mantso urratsak ematen joan naizela uste dut eta aurten nabaritu da bertze pauso bat eman dudala eta gauzak ongi atera dira.

**Eta aitzinera begira, zein probak dituzu begi bistan? Zein helburu?**

Abuztuan Euskal Herrian egun bateko karrerak izan ditugu, Lehendakari Sarikoak. Eta irailean ere lasterketa batzuk egingen ditugu, egun pare bateko itzuliren bat, baina oraindik ez dakigu zehatz zein. Irailean erdialdera akituko dugu denboraldia aurten. Maila honetan segitu nahi nuke, forma onean nago eta hori aprobeztatu behar dut. Gero ikusiko da irabaztea lortzen dugun, garaipenak garesti daude.

**Nola definituko zenuke zure burua txirrindulari moduan? Non moldatzen zara hobekiago? Zertan hobetu behar duzu?**

Gehien bat txirrindulari langilea naizela erranen nuke. Talde lanean aritzea gustatzen zait eta ihesaldiak hartzea ere gustuko dut. Maldan goiti eta zelaian ere ongi moldatzen naiz, baina egia da portu gogorrenetan gehixeago kostatzen zaidala. 1,81eko altuera dut eta malda horietan ni baino tikiagoak bizkorrago ibiltzen dira, baina mantso-mantso ari naiz hobetzen. **Juanjo Oroz taldeko managerraren solasak zuri buruz: «Taldearengan pentsatzen du bere buruan baino lehen eta taldekideen alde lan egiten du beti. Baina gehien erakarri gaituena denboraldi bakoitzean eman dituen aurre-rapausoak izan dira, jubenetan ailegatu zen taldera eta bilakera arras ona izan du. Jarrera eredugarria dauka, taldearen interesak lehenesten ditu eta ausarta da».** Lore ederrak...

Eskertzekoa da norberari buruz horrelako hitzak entzutea. Taldean sartu nintzenetik aitzinera pausuak eman diturtero, hori nabaria izan da. Printzipioz, asmo horrekin segitzen dut, urtero aitzinera

egitea eta ea profesioaletan ere maila polit batera ailegatzen naizen.

**Nola hasi zinen txirrindularitzan eta zer ibilbide izan duzu orain arte?**

Hamar bat urterekin hasi nintzen CC Ermitagaña taldean. Ttikitan futbolearen ere aritzen nintzen, baina txirrindularitzarako afizio handia daukagu familian, beti karrerak ikusten, Tourra ikustera ere joaten ginen. Beraz, gustukoa nuen eta probatzea erabaki nuen. Hasieran joko bat bezalakoa zen, ongi pasatzeko, baina urteekin serioago hartu dut eta orain arte! Zazpi urtez egon nintzen Ermitagaña taldean, gero Galibier Kirol Elkartearen egitura pasatu nintzen, hiru urtez Lizarten eta orain Finisher taldean nago. Eta heldu den urtean bertze urrats bat eta Kern Pharma izanen naiz, koxkarik altuenean.

**Erraten duten bezain gogorra da txirrindularitza?**

Kirol gogorra da, ez da dudarik, baina gogortasun hori gogoko dugu. Gustukoa duzunean ez duzu hainbertze sufritzen eta, azken finean, sufrimendu hori gozatzen dugu. Astearen 15 eta 24 ordu artean entrenatzen dugu. Ordu eta erdiko egun suabeak ditugu; fondo egunak, bortz ordu eta erdi artekoak...

**Heldu den urtera begira, profesioaletara salto. Nolabait zure ametsa bete duzula errana duzu... Zer helburu jartzen dizkiozu zure buruari?**

Amets bat betetzea da. Azkenean, hasten garen guztien ilusioa egunen batean profesioaletara ailegatzea da, mundu mailako onenen tropel horretan zure burua ikustea, arras zaila dela jakinik. Orain badakit salto gogorra izanen dela, maila aldetik erran dinate aunitz nabaritzen dela, baina mantso-mantso lanean segi eta ea maila hori lortzen dugun.

**Oraindik salto handiagoa egin eta ProTour talde batera ailegatzearekin amets egiten duzu?**



Profesioaletan ere urratsak eman nahi ditu Diego Uriartek. JUAN MARI ONDIKOL

Hori gauza handia da. Momentuz Kern Pharma taldea niretzako leku aproposa dela uste dut. Urteak pasa ahala ikusiko da goitiago egiterik badugun.

**Baduzu gaur egungo profesioalaren artean eredurik edo idolorik? Zein txirrindulari duzu gogoko?**

Thomas De Gent gustuko dut. Ihesaldietan aunitz ibiltzen da, talde lanean ere gogor aritzen da eta pixka bat erreflejatu ikus naiteke lan horretan. Euskal txirrindularien eredu ere beti hor izaten dugu.

**Zein karreratan parte hartu nahiko zenuke profesional moduan?**

Etxekoa dugu eta Euskal Herriko Itzulia egitea handia izanen litzateke. Ttikitatik beti

ikusiko izan dudana karrera da, beti eraman naute ikustera. Taldearentzat zaila da karrera horretan sartzea, baina ametsa izanen litzateke etxeko karreraren egotea.

**Txirrindularitza aparte, ikasten ere ari zara... Nola eta non ikusten duzu zure burua hemendik 10-15 urtera?**

Lehen Hezkuntzako magistriritza ikasten ari naiz on-line, ez dit hainbertze denborarik kentzen. Baina 10-15 urtetan txirrindularitzan segitzea gustatuko litzaidake, txirrindulari izan nahi nuke. Baina profesioaletara pasatuko nintzela erran arte, inoiz ez dakizu zer gertatzen ahal den, orduan ikasketaren bat ere egin behar da.

**«HASTEN GAREN GUZTIEN AMETSA PROFESIOALETAN ARITZEA DA»**

**«EUSKAL HERRIKO ITZULIA EGITEA HANDIA IZANEN LITZATEKE»**



Diego Uriarte.

**Hurbiletik**

**Erratzu edo Barañain?**

Erratzu.

**Mendia edo zelaia?**

Mendia.

**Arabola edo grupetto?**

Grupetto.

**Tropelean edo ihesean?**

Ihesean nahiago.

**Izpegi edo Tourmalet?**

Izpegi.

**Pogacar edo Vingegaard?**

Pogacar.

**Mikel Landa edo Pello Bilbao?**

Mikel Landa.

**Tourra, Giroa edo Vuelta?**

Frantziako Tourra.

# AGENDA

## IRAILAK 7 - 21

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



### LEITZA Talo eguna eta Azoka ibiltaria

Taloak, azoka, taloak egiteko tailerra eta nekazaritza tresnen erakusketa.  
Irailaren 10ean, 10:30etik aurrera.

### TAILERRAK

#### ELIZONDO Sexualitateari buruzko solasaldi zikloa

Irailaren 14an 'Haur eta nerabeen sexualitatea', 21ean 'Hezkuntza sexuala' eta 28an 'Sexualitatea eta pornografia'. Arizkunenean, 18:00etatik 20:00etara.

#### Robotika tailerra Legoeekin

Arizkunenean, irailaren 28an, 10:00etan eta 12:00etan. Izen ematea info@discoverbricks.es helbidean edo 636 47 99 65 eta 636 45 07 45 telefonoetan.

#### LESAKA 'Hizkuntza eta garapen ez-tipikoa haur elebidunengan: diagnosia eta esku hartzea' ikastaroa

Harriondoan, irailaren 15ean eta 16an.

#### 'Hitzaztanak, indarkeriarik gabeko komunikazioa' tailerra

Liburutegian, irailaren 21ean, 17:30ean.

#### BERA Baztango mutil dantzen ikastaroa

Eztegara pilotalekuan, irailaren 17an, tailerrak 09:30ean eta 16:00etan eta erakustaldia 19:00etan. Izen ematea berakoagenda.eus-en.

### ERAKUSKETAK

#### SENPERE 'Formak eta Funtsak' margo eta argazki erakusketa

Amotzeko Larraldea baserrian.

#### ELIZONDO Pedro Arizkurenen pintura erakusketa

Arizkunenean, irailaren 30era arte, asteartetik igandera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.

#### Tomas Sobrinoren ikasleen margolanak

Arizkunenean, irailaren 10era arte, aste tartez 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

### AZOKAK

BERA  
Berako ekoizleen merkatua  
Beralandetan, irailaren 9an, 10:30etik 13:30era.

#### ELIZONDO Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, irailaren 9an eta 16an, goizez.

#### ERRATZU Erratzuko artisauen azoka

Plazan, irailaren 10ean eta 17an, 11:00etatik 15:00etara.

### JARDUNALDIAK

#### LESAKA Lesakako erraldoien 75. urteurrena

Irailaren 8an eta 9an.

#### Arrano elkartearen eguna

Arrano elkartearen, irailaren 16an.

#### URDAZUBI Euskal artzainak Ameriketara eguna

Irailaren 9an.

LEITZA  
Talo eguna  
Irailaren 10ean.

### KIROLAK

#### GOIZUETA Araiburu mendi taldearen irteera Aralarrera

Plazatik, irailaren 16an, 07:30ean. Izen ematea Elena estankotan irailaren 14ra arte, 15 eurotan.

#### LESAKA Beti Gazteren BTT ibilaldia

Irailaren 17an.

### BERTZELAKOAK

#### DONEZTEBE Xake txapelketa

Casino elkartearen, irailaren 16an, 10:00etan. Izen ematea 662 44 98 78 telefonoan 5 eurotan.

#### GOIZUETA Kantu zaharren bazkaria

Iskibi kanpinean, irailaren 16an, 14:00etan. Txartelak irailaren 9ra arte Amaian, Oxeguardan eta Iskibin 55 eurotan.

Nire aukera

## «Herri kirolak poz eta sufrimendu ugari eman dizkit»

**DANI SALDIAS BENGOTXEA** ARRAIOZKO HERRI KIROLARIA



«Herri kirolen munduan murgilduta» dabilen Arraiozko gaztea da Dani Saldias Bengotxea. Kirolak orokorrean ditu gustuko, «eta naturarekin lotuak daudenak maite ditut». Hala ere, «lagunarteko otordu eta mus partidak ere gustura hartzen ditut!».

### Familiako kontua

«Nahiko mantso» hasi zen herri kirolatan, 20 urte inguru zituela. Familian ongi errotua dute zaletasuna, «anaiarekin arpanean probatu nuen, eta gustukoa nuela ikusita, herri kirolen munduan ibili nahi nuela erabaki nuen».

Hortaz, anaia izan du eredu; «berak haurretatik bizi izan ditu herri kirolak, eta gaur egun nire ilobak ere mundu honetan sartuak daude. Julen aizkoran eta arpanean dabil, Eider, berriz, arpanarekin eta

konbinatuetan lasterka aritua da, eta Alaitz, tikiena, aurten hasi da konbinatuetako txapelketetan. Beraz, familian segida badu».

### Kirol exigentea

Gaur egun, hainbat modalitatean aritzen da Saldias: «arpana mistoan eta gizonezkoen mailan, txinga eramatean eta zaku lasterketetan. Bertze batzuk probatu ditut, baina horretan gelditu dira...».

Hala ere, argi du aukeran arpana duela nahiago; «kirol guzietan bezala, bere maila eskatzen du, entrenamenduak

**«KIROL GUZIEK BEZALA, BERE MAILA ESKATZEN DU»**

eta konpromisoa. Baina arpanak exigentzia plus bat eskatzen du, zerbait berezia da, eta pertsonalki gustukoena dut».

### Plazaz plaza

Duela hainbat urte hasi zen herri kirolen txapelketetan parte hartzen, «eta bide horretan denbora luzez segitzea espero dut». Horrek prestaketa handia eskatzen dio, «kirol guzietan bezala, fundamentuzko zerbait egin nahi baduzu, etxean lan horiek egin behar dira. Egia erran nahiko lehiakorrek gara, beraz, ahal bezain ongi prestatzen saiatzen gara, posible bada bederen!».

Normalean astean behin entrenatzen dira horretarako, «baina txapelketen aitzinetik astean hiru egunez aritzen gara». Eta entrenamenduek txapel eskuratu baititu arraioztarrak.

Udan Nafarroako Herri Kirol Txapelketan aritu zen, baita ongi aritu ere, txinga eramaten irabazirik baitzuen eta arpanean bigarren postua lortu. «Barditut urte batzuk parte hartzen dudala, eta sanferminetan jokatzeko den txapelketetan aritzea berezia da beti. Iruñeko Foruen plaza bete egoten da eta gogoko dut, bere neurrian, plazara ateratzeko urduritasun hori».

«Kontent» dago egindako lanarekin; «aurten bereziki anaiarekin buru-belarri aritu gara arpanean, eta ordu deditu dizkiogu. Txingari ez nion kasu gogorrik egin egia erran, beraz gustura gelditu nintzen egindakoarekin».

**«PLAZA BETETA IKUSTEAK POZA ETA MOTIBAZIOA SORTZEN DU»**

Txingari hainbetez denbora eskaintzen ez badio ere, «hortzak ongi estutzea eta sufritzen jakitea» da ongi aritzeko sekretua. «Hortaz aparte, behatzak ongi lotzea da sekreturik haundiena, 100 kilo eramaten ditugu eta ez baditugu ongi hartzen, eskuak irekitzen dira eta ez da eusteko fundamenturik izaten. Beraz, beharrezko denbora hartu behar da txingari ongi hartzeko, eta sufritzen jakin behar da. Horretan laguntza handia izaten dira inguruko animo eta txaloak!».

### Etorkizunera begira

Bete nahieko helburu zehatzik ez du arraioztarrak; «plazetako jendearekin harreman onak izaten segitzearekin nahikoa dut, eta tartean txapel baten bat lortzen badut, hobe!». Azaldu duenez, «herri kirolak poz eta sufrimendu ugari eman dizkit, momentu on aunitz, lagunak, txapelen bat edo berte... eta bereziena, gaur egun nire neskalaguna den Iruñe Biurrun».

Urte batzuk gibelerat bigiratuta, «herri kirolak nahiko motel ikusten ziren eskualdean, baina gaur egun geroz eta jende gehiago animatzen da, gazte aunitz sartzen ari dira eta segida badago. Horrek poz handia ematen dit».

Hala ere, «neska-mutil guziei gonbidapena egin nahiko nieke, ez dago adinik, beraz, animatu probatzera! Modalitate aunitz badira eta seguru gustukoena aurkituko dutela. Eta jendea plazetara hurbiltzera eta kirolariak ikustera animatu nahi dut. Plaza beteta ikusteak poza eta motibazioa sortzen du, eta gogo haundiagoarekin hartzen ditugu eginbeharrak».

Saldias dagokionez, «herri kirolen munduan segituko dut, gorputzak laguntzen duen bitartean sorik, plazetara ateratzeko asmoz».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN HARTZEKO

Baserri edo etxe zahar baten bila, hasierako urteetan zaharbertzearen truke eta ondotik errentan hartzeko. ☎624 34 76 89.

**BAZTAN, BERTIZARANA EDO SUN-BILLA** inguruan baserri edo etxe bat errentan hartu nahi dute. 500 euro gehienez. ☎624 34 76 89.

**ELIZONDO.** Bi neska erizain pisu bat errentan hartzeko prest. Arduratsuak eta garbiak. ☎674 44 82 73 / 631 12 10 31.

Euskaldun familia baserri bila, alokairuan edo zaharbertzeko, 1.000-1.500 euro hilabetean ordaintzeko. ☎646 67 08 43 / 609 75 62 25.

Malerreka eta Bertizaranako gazte batzuk gara gure inguruan etxe edo baserri batean bizi nahi dugunak. Errentan hartzeko edo mantentze lanen truke bizitzeko prest. ☎690 15 46 44 / 608 60 29 34.

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Altzate karrikan 90 metro koadroko pisua errentan emateko. Terraza eta gibebeko patioa. ☎650 98 19 50 / 631 89 36 98 (Deitu 10:00etatik 20:00etara).

**ARANTZA.** Eguzkialdea auzoan baserria errentan emateko. ☎666 04 69 02.

#### SALGAI

**ELIZONDO.** Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

**BERA.** Kanttonberri karrikan 81m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

#### KONPARTITUAK

**BARAÑAIN.** Hiru logelako pisuan logela bat errentan emateko. ☎659 09 93 09.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO



**LESAKA.** Arte martzialak, yoga, pilates, aerobik edo horrelakoetarako prestatua dagoen aretoa orduka errentan emateko. Aretoak 100 m<sup>2</sup>

### IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

ditu 70m<sup>2</sup>ko tatamiarekin. ☎629 68 71 71.

### LANA

#### ESKARIAK

Emakume bat adinekoak zaintzen ariko litzateke, interna moduan. ☎667 22 17 51.

25 urteko gaztea lan bila. Garbiketan, zerbitzari, haurrak edo adinekoak zaintzen, fregaderan laguntzaile... ☎645 02 48 54.

Titulazio sozio-sanitarioa duen neska batek adinekoak zaintzen lan eginen luke. Interna modura edo kanpoan biziz. ☎653 72 41 92.

#### ESKAINTZAK

**BAIGORRI.** Oronozia aterpetxean garbiketa eta zerbitzuan aritzeko pertsona bat xerkatzen dute. 35 oren

asteen. Hastapenean epe mugatuko kontratu batekin (3 hilabete), ondotik mugagabe izatera pasa daitekeena. Lehenbailehen hasteko. ☎671 84 24 94 / 559 37 42 03.

Aldakolan enpresak eraikuntzako langileak behar ditu. ☎948 58 12 96 edo [info@aldakolan.com](mailto:info@aldakolan.com).

**GOIZUETAKO** eraikuntza enpresan, guarekin lanean aritzeko langilea behar dute, karnetarekin. Donostia eta Baiona arteko obretarako. Lan baldintza onak. ☎639 70 84 14.

**LESAKA.** Atxaspi hotelean garbiketa eta harrera lanak egiteko pertsona bat behar dute. Lesakan bizi den pertsona, lanaldi erdian edo osoan aritzeko. Bidali informazioa [hotela@atxaspi.comera](mailto:hotela@atxaspi.comera) edo deitu. ☎673 33 99 20.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak: €/kg kanal**

- Extra 5,25 €
- 1.koa 5,13 €
- 2.koa 5,01 €

**Urruxak: €/kg kanal**

- Extra 5,36 €
- 1.koa 5,22 €
- 2.koa 5,11 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

**Zaldikoak: €/kg**

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

#### ARDI-AZIENDAK

**Bildotsak**

- 6-8 kilokoak: 8,90/9,00 €
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,70 €

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 59 €  
**Zerri gizona** 1,930 €  
**Zerramak** 1,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 18tik 25era bitarteko prezioak)



**IGANTZI.** Irrisarri Land parkean zerbitzaria eta zerbitzari laguntzaile bat behar dituzte. Interesatuak curriculumak [rrhh@irrisarriand.com](mailto:rrhh@irrisarriand.com) helbidera bidali behar dute. ☎948 92 89 22.

**LESAKA.** Iturbena kafetegian irailatik aurrera ostiral, larunbat eta igande gauetan afariak emateko sukaldaria behar dute. Orduetgia: 19:00etatik 23:00/00:00etara. Bokatak, hanburgesak, ratioak... Kozinatzeko. Interesatuak bertatik pasa edo telefonoz deitu. ☎620 70 09 64.

**BERA.** Beola Etxea Bentan biltegi-zaina behar dute. 40 orduko lanaldia astean (asteen bi egun libratuz). Bidali curriculumak [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com) helbidera.

**BERA.** Beola Etxea Bentan kutxazain aritzeko pertsona bat behar dute. 40 orduko lanaldia astean (asteen bi egun libratuz). Frantsesa jakitea eta autoa izatea beharrezkoak. Bidali curriculumak: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

**BERA.** Beola Etxean boutiquean eta lurrin dendan aritzeko langilea behar dute. 32 orduko lanaldia (asteen 4 egunetan, 8 ordu egunean). Bidali curriculumak: [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com).

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO



Boss zakurrarentzat familia bila. Zakur ona eta sinpatikoa, urtebetekoa American Staffordshire arrazakoa. Txipa, txertoak eta antiparasitarioak jarriak eta zikiratua. Familia maitakor baten bila gabilta, zaintza egoki bat

ezingo diogulako eman aurreran-  
tzean. ☎630 58 03 51.



**LESAKA.** Zakurkumeak oparitzeko.  
☎637 71 53 83.



**ARANTZA.** Hiru urteko ardi zakurra  
oparitzeko. ☎690 36 05 23.

#### SALGAI



Zerrikumeak salgai laberako edo  
bizirik. ☎690 98 61 18.



**BAZTAN.** Bi artzain txakurkume sal-  
gai. Ama collie eta aita euskal artzain  
txakurra. Arras onak. Artzain edota  
mendian aunitz ibiltzen denarentzat  
aproposak. Baserrian bizi dira ani-  
malia artean. Baztanen, Otsondoko  
portutik hurbil. Bakoitza 50 eurotan.  
Ez dira oparituko, ezta edozeini eman-  
en ere, aktibitate handia behar  
dutelako. Dudak Whatsapez. ☎636  
18 15 46.

#### DENETARIK

##### SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan,  
ekonomikarendako eta lurreko sua-

rendako, etxera eramateko zerbitzua  
barne. ☎690 08 56 65.

Obrako etxola salgai. 2,40 x 3 me-  
trokoa. Atea bere giltzarekin eta  
kristalezko leihoa. ☎607 63 18 81.

#### GALDU-AURKITUAK



**LESAKA.** Uztailaren 9an, bizikleta  
Bittiriko plaza inguruan aurkitu zuten.  
zazpigarrena7@yahoo.es.

#### ZERBITZUAK

##### KLASE PARTIKULARRAK

**BERA.** DBH eta Batxilergoko klase  
partikularrak ematen ditut. Interesa-  
tuek deitu edo idatzi lasai. ☎677 54  
42 67.

**DIANA INIESTA PINTURA ESKOLA**  
PINTURA ETA MARKAZKETA  
TKASTARDAK URRETIK MATATZERA

BAUKRENTZAT ASTEAREN 12:00-18:00  
BELDUENTZAT ASTEAREN 18:00-20:00  
ASTEAREN 10:00-12:00

+INFO: +651 948 926 diana@iniesta@netmail.com

#### PSIKOLOGOAK

**PSY BAZTAN**  
Psikologia kabinetea

Psikologo klinikoa. Terapia  
haur, heldu eta bikoteentzat.

+659 948 926  
psybaztan@gmail.com

#### MOTORRAK

##### SALGAI



Vespa Iris 200 salgai. Errebisatuta-  
ko motorra. Atzeko gupil berria. IAT  
(ITV) abendura arte. Beti garajea  
egondakoa. Prezioa: 1.300 euro.  
☎618 41 11 14.

BMW 3200 autoa salgai. 2.000. ur-  
tekoa, IAT (ITV) pasatuta eta 280.000  
kilometroarekin. Egoera eta prezio  
onean. ☎646 69 98 86.

Hyundai accent autoa salgai.  
2003koa, 280.000 Km, diesel, 82CV.

IAT (ITV) ekainean. 4 zirrikak berriak.  
Azken azterketa mekanikoa 2023ko  
otsailan. 1.700 euro. ☎661 01 58  
20.



Ford Transit, homologatua, 2000.  
urtean matrikulatua, 176.000 km, 3  
plaza, ohea eta harraska. Motorra  
ona. 2 leiho eta klaraboia. Bigarren  
bateria eta giltza deskonektatzeko.  
Prezioa 8.500 euro, negoziatu dai-  
teke. Ez dut erabiltzen, horregatik  
dago salgai. ☎635 70 77 31.

#### TAILERRAK

**SANTESTEBAN  
TAILERRAK**

**RENAULT CLIO  
TCE 75 CV  
2018 urtekoa - 41.500 km  
11.700 €**

**GANIX**  
Zalain Pol., 11 - BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan  
948 63 06 69

**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

**Kotxe berriak**  
SUZUKI  
SX4 S 1.6 120 CV.

NISSAN  
QASHQAI 2.0 150 CV.

www.mendaurmotor.com

#### IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak webgunean ere argitaratzen ditugu  
hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten:

<https://erran.eus/sailkatuak>

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

URTEURRENA

**Maria Josefa  
LOIARTE ARANBURU**

Beran, 2022ko uztailaren 26an  
**I. URTEURRENA**

*Ama, amatxi,  
egunez egun zugan pentsatzen dugu,  
gure bizitzako une guztietan,  
zure oroimena, berotasuna eta maitasuna  
gugan dago.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Itziar  
DURRUTY SUKILBIDE**


Arizkunen, 2023ko ekainaren 23an

*Beti laguntzeko ta eleko prest,  
irribarrez gehienetan.  
Ez zaitugu errex atzendiko.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Ainara MARIZKURRENA SAGASETA  
Joxe IRIGOIEN PERURENA**

*Eskerrik asko eman diguzuen guztiagatik.  
Gure bihotzetan egonen zarete betiko.  
**Maite zaituztegu.***

OROIGARRIA

**Joakin  
LAZKANO ARRIETA**

Arantzan, 2023ko uztailaren 30ean

*Gogotsu lanean hara,  
baserrian tirri-tarra,  
Etxeberriko zaindari fina  
zu izandu zara.  
gustura bizi zu gara,  
zuretzako besarkada,  
eskerrak aunitz bihotz-bihotzez  
Joakin osaba.*



DERMIOKO FAMILIA



**BAZTAN  
BIDASOA**  
Herentzia Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*



**IZARRA**  
HEREN, ZURE ONDOAN  
ANIMA ETZAN

Gure harra,  
gure jendea,  
gure sustraiaik








**TANATORIOAK**

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**948 05 90 90** [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)





Zuregandik  
hurbil gaude



Mugaz gaindiko  
herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren  
pentsioen eskaera



Herentziari lotutako  
gatasketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO  948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasygestion@gmail.com](mailto:herenciasygestion@gmail.com)



## URTEBETETZEAK




**Sara Gomez Ribeirok** 4 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak eta muxu handi bat Nahiaren eta familiaren partetik.



Narbarteko **Unai eta Saioa Zubigarai Bertizek** abuztuaren 5ean eta 21ean zazpi eta lau urte bete dituzte. Zorionak bikote! Maite zaituztegu!



Agorrilaren 2an Gorostapoloko **Siuka Bidegarai Iturrek** 4 urte bete ditu. Auniz urtez Siuka maluca! *Parabéns borboletinha* mugalari! Musu ainitz Mamãe eta Aitarek partez. Ikaragarri maite zaitugu! Segi beti bezain alai!!!



**Alain Lazkano Zozaia** beratarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 8an. Auniz urtez eta muxu aunitz familiaren partez.



**Lara Etxeberria Mindegia** goizueta-rrak 2 urte beteko ditu irailaren 22an. Zorionak etxeko bihurri eta saltsere-nari! Besarkada bat familiaren partetik.



Abuztuaren 18an urte bat bete du **Naia** gure preziosak. Muxu asko Curtea de Argeseko eta Goizueta-ko atton-amonen, osaba-izeben eta lehengusuen partez.



Abuztuaren 18an urte bat bete du Goizueta-ko **Naia Ispasoiu Apezteak** Zorionak bereziki zure anaia Enaitzen, eta aitaxoren eta amatxoren partetik. Muxu potolo asko, asko maite zaitugu.



Arantzako **Suhar Sorli Lizardi** gure etxeko suhiltzaile ttikiak 4 urte bete ditu irailaren 5ean! Zorionak eta auniz urtez Suhar, familia guztiaren partez, baina bereziki zure arreba Intza eta Xuneren partez. Auniz matte zattugu!!!




**Carmen Zubirik** 81 urte beteko ditu irailaren 10ean. Auniz urtez eta muxu potolo bat zure seme-alaben, iloben eta birbiloben partetik!



Iturengo **Haritz Ariztegi Gorosterrazuk** irailaren 16an 9 urte beteko ditu. Zorionak! Egun ederra pasa bihotza! Berendu goxoarekin ospatuko dugu.



**Aritz Sagastibel-tza Lazkanok** 2 urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak! Segi beti bezain alai eta bihurri! Besarkada bat etxekoen partez!



Itsasu-Urdazubiko **Jone Etchart Ibarrek** 3 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak familiaren eta bereziki anaia Oihanen partetik. Hiru muxu.

## HILBERRIAK

- **Miguel Angel Ordax Buenetxea**, Doneztebe, uztailak 18, 67 urte.
- **Juan J. Kerejeta Iramuno**, Elizondo, uztailak 19, 74 urte.
- **Tere Oronoz Zabaleta**, Leitza, uztailak 19, 79 urte.
- **Luis M<sup>a</sup> Telletxea Iguzkiagirre**, Igantzi, uztailak 22, 66 urte.
- **Jesus Legasa Apezteglia**, Lesaka, uztailak 27, 90 urte.
- **Pedro M. Galilea Plaza**, Bera, uztailak 27.
- **M<sup>a</sup> Pilar Arretxea Mitxelena**, Lesaka, uztailak 27, 87 urte.
- **M<sup>a</sup> Jose Juanena Leonis**, Urroz, uztailak 28, 51 urte.
- **Joakin Lazkano Arrieta**, Arantza, uztailak 30, 80 urte.
- **German Berrueta Iribarren**, Lesaka, abuztuak 1, 71 urte.
- **Tomas Portu Etxabide**, Bera, abuztuak 1, 74 urte.
- **Martin Gallardon Iribarren**, Etxalar, abuztuak 2, 56 urte.
- **M<sup>a</sup> Jesus Sagardia Alzugarai**, Sunbilla, abuztuak 3, 85 urte.
- **M<sup>a</sup> Pilar Perez Alvarez**, Bera, abuztuak 5, 79 urte.
- **Maribel Etxarte Agesta**, Lesaka, abuztuak 6, 84 urte.
- **Ainara Marizkurrena Sagaseta**, Doneztebe, abuztuak 7, 30 urte.
- **Jose M<sup>a</sup> Jorajuria Arretxea**, Sunbilla, abuztuak 8, 86 urte.
- **Agustin Urrutia Sanzberro**, Elizondo, abuztuak 9, 63 urte.
- **Joxe Irigoien Perurena**, Doneztebe, abuztuak 10, 50 urte.
- **Juan Aleman Larregi**, Elizondo, abuztuak 10, 79 urte.
- **Enrique Perez Fernandez**, Lesaka, abuztuak 12, 91 urte.
- **Jose Antonio Ansa Huizi**, Arano, abuztuak 13, 76 urte.
- **Angelita Oskoz Almandoz**, Igantzi, abuztuak 16, 91 urte.
- **Carmen Pikabea Arozarena**, Lekaroz, abuztuak 16, 94 urte.
- **Fulgencio Larregi Sarratea**, Oronoz-Mugairi, abuztuak 19, 75 urte.
- **Pakita Irazoki Berasain**, Bera, abuztuak 19, 95 urte.
- **Jose M<sup>a</sup> Sola Garcia**, Elizondo, abuztuak 22.
- **Naxari Huizi Madariaga**, Igantzi, abuztuak 23, 93 urte.
- **Bartolo Igoa Otxoteko**, Bera, abuztuak 23, 72 urte.
- **Hilaria Mutuberria Martikorena**, Ituren, abuztuak 24, 96 urte.
- **Pakitto Lekuberria Ariztegi**, Lesaka, abuztuak 24, 58 urte.
- **Lourdes Belaunzaran Pellejero**, Areso, abuztuak 25.
- **Raimundo Elizalde Elizalde**, Arizkun-Urepele, abuztuak 28, 72 urte.
- **M<sup>a</sup> Carmen Leiza Igoa**, Lesaka, abuztuak 29, 80 urte.

## EZKONTZAK

- **Mikel Laborde** eta **Eva Arbenoits**, uztailaren 15ean Saran.

## SORTZEAK

- **Imanol Perugarria**, Sarakoa, uztailaren 17an.
- **Ilargi Gago Telletxea**, Arantzakoa, abuztuaren 13an.

**ZORIONAK!**

**NAIA AGIRRE eta ALAITZ PORTU**

835. eta 836. zenbakietako irabazleak zarete!

# PLAZAN BAZAN

**HANDITIK TXIKIRA**



Ordena itzazu izotzeko patin hauek, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.

Marrakizkiak: Garbifite Ubede (Alurni)



Loguntzailea:

ibaizabal

**Plazan bazan egiteak BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin irailaren 11 baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whattsappera:  
(0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.  
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

# ITZALA



Zortzi itzal  
hauen artetik  
zein ote da  
zuzena?

# SUDOKUA

	I	A			R
	X		A	T	
	R	O	T		
X				A	O
I		T	X	R	
R				O	T

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerroj, zutabe eta area bakoitzeko.

**euskara hurbil,**  
zu urrun heltzeko

**a tu lado,**  
para llegar lejos

**aek**  
euskara praktikoa

## **Baztango** **AEK Suinki euskaltegia**

**EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

**Maila guztiak – Ordutegi guztiak · Todos los niveles y horarios**

**Aurrez aurreko taldeak – Autoikaskuntza**

**Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**B1, B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak**

**Baztan Berri, 7 · 607 605 802 · [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus)**

**DIRULAGUNTZAK / BECAS**

**Nafarroako Gobernua/ Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera**  
Posibilidad de optar a ayudas del Ayuntamiento y Gobierno de Navarra.